

Jusef Egiategi

LEHEN LIBURIA

EDO

**FILOSOFO
HUSKALDUNAREN
EKHEIA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Lehen libürria edo filosofo hüskaaldünaren
ekheia*, Jüsef Egiategi (Txomin Peillenen edizioa).
Euskaltzaindia, 1983

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00739.htm>

HAMALAUDUNA

Irakurtzaleri

Bere denboraz egünkal dena bürüzagi
franko dianak arraiñ edo aragi,
aldizka delarik hetzaz laski bazkatzen
Bere bizi az da balima botzki gozatzen.
Libürüz niza ni akhi, paper belzten niz ari?
bortxaz gibel üzten, xüxen ezinak jarri:
megopia düt arrabuhin, ülhün, herabesti,
gor müthü, lüma ere ardüra net eri;
belarra ehünetan berekatürik
ezin hantik khent zerbait dena hontürik.
Zer düket arren obratu? Deusere balio etzena,
heltübada laitekina nere obra azkena.
Bihoa arren dena! eztianak irakurtüko
etzereio balima, sekülan dolütüko.

Jusef Egiategi

HITZAURIA

Libürü labür bat' etzerelo eder hitzauri lüzia; alabadere leal da, dian bat, nolako nahi zertakoz egina den gatik erraiteko. Jakintzüek dakie hüs-kara ama mintzoetarik dela bata, hartakoz ere Jinkoak eman zereioan obedantza güziak dütiäla; bena delakoz Zeiakinen saldoa hanitzez jakintzüena beno handiago, ta hen üstiala hüs-kara lizatiala hiztera nahasi bat, ezkiderik, jarraikirik elükiana bakhotzik, halako basa sinhestearen garhaitzeko, hartüren dügü heben nabastarria.

Ehünetan entzünik gaude, hüskaratik lankheihonik sorth'eztaitekiala; badaite othoitze libürü txar zonbaitek diela sinheste hori sorthü ta gogortü, bena izanik ere botxia beno gogorrigo, mardotüko dügüla, düti sinhestia: hartakoz mintzo haren ohoriaren gatik, lümari niz heben lothü; ez gorrer entzüneraziz nahian, ez etare ütsüer ikhüseraziz egarrian senthagailla hek eztaoteke niri; bena bai egiari zor düdan eginbidiaz düti lan hau besarkatü, fidantzan düdala

ager jarriren, hüs kara zertan nahi hitz arrotzetaz paira dateikiala. Gauza berrietan ere, berze mintzoek bezala, beraren izairiatik hüs kaldün ükhüdian izenak arozta litiriola.

Haur-min harez, niz obra hüntan salbü izanen, behar eztüdalakoz zaharretarik baizik; ta hetan dialakoz hüs karak, berzeren khinper, bere edertazünak franko. Ezi, ikhertzen deno bere zahartazünian, xahiago da, bere aberatstarzünian agertzen; badaite hitz batzü zahar diradialarik, berri diradiala üdüri izanen; ezta haren falta hüs kaldünek ahatze badüt le. Bena hen eginbidiak dereie hitz hen arra hartzia manhatzen.

Llabür ta argitzü izaitia, ezta lankhei arhina, ezetare hitz khütoetan hanitz erraitia. Orozbat ederki mintzatzia ezta erraile güzien arraifia; bena erakhutsi badüt hüs kara xahüki har daitekiala, probatürrik dago hala ere mintza ahal daitekiala, ta ni beno langile hoberik diano, hetarik sorthüren dela haren ohoriaren gatik oraño hanitz berzerik.

Egündano etzait bürían sarthü, ez etare sart-hüko, gaizki mintzatzia hüs kaldünen axolgabiaz

etare nola gogatü eztién beren amamintzoa dieno mezpretzaten, herria diela arnegatzen; ta Jinkojaunaren dohaiñak zankopetan dütiéno jarten, beren büriak dütiela apaleraziten. Ezi sortzepena denian eder, ta mintzoa arauiala, ükhätzen dütianak biak, herriari dago traidore, ta berze diéri güziak berenetzaz baliatzen diradiáno, baliatü nahi ezten hüskaldünak, berzeren gaiñtik abantailla ükhen dütianetzaz.

Mintzoen banaitiak dütü diéri güziak bederakutzen, hartan daude bederak tieso. Hüskaldüna aldiz hetarik lehena dena bere mintzoa eskeletürik zinez, haren hilerazitera dabila. Deizogün galtha, datekenian hartara heltü zer datekian hüskaldüna? Bohamien kastatik datekia? Hek bezala beren artian hitzauri txar bat orhatürik, tximinoek, mintzazale balaude, elükiena nahi. Dieia holako bat obratüren?

Ene gogoan eztago, jendia bere ama mintzolari arrimatürik, berzerenetzaz eztián axolik. Aspaldian dago errana, gizona dela hanbatetan gizon, nola mintzo suerte beitaki; topa hüskaldün menditarrak dakian espaiñola, delako hen aizo; topa ere, ordokitarrak dakian biarnesa edo

zerbait frantsesetik, hantik biek dütükien aban-
tailla gatik, bena beren artian ta etsaien ere-
tzian, hüs kara xahia dezen mintza, da ene ega-
rria. Hartakoz ere hüs kara baizik eztakiana, bego
artzaiñ, merkhazalia beno gizon perestiago date-
kiala ni berme.

Bena hüs kararen ontartiaren gatik, erran
dügüna sinheste gabien eretzian thipil bedi, aka-
doikeria handi baten auzi hau lizateke ekheia.
Lizate, elhen parrasta altistak urden aitzinian
ereitia bezala. Llabürzki dügü erranen hüs kaldün
lealak bere mintzoaz jakin behar diana, *Aita
Larramendik* ere las ki probatü(rik) dagoela hau
dela.

Lehena, mintzorik hüs kara beno bere
hitzen egokian hobedantagorik denik
eztela.

Bigerrena, batere jende güzier mintza-
tzian haren garthardia dianik.

Hirurgerrrena, ez etare, bere elhetan
hain llabür denik.

Laurgerrena, bere araudian ta ardies-
tian batere jarraikiagorik eztela.

Bostgerrenian, alozia bat diala, berze mintzoetaz edereiten eztena.

Seigerrenian, batere hüs kara bezain aberatsik ta naharorik eztela.

Zazpigerrena, ama mintzo dela, brobantza güzietzaz ikuraitürrik, dena, hetan ere lehenetarik dela.

Zortzigerrena, Griego mintzoak hitz hainitz jesan dereioala.

Bederaizigerrena, Latiak, frantsesak, Espaiñolak ta Italianak orozbat.

Hamargerrena, Hüs kara dela net posmagarri bere zazpi hitzkondien gatik, diranak: Nafarrakoak, Züberoako, Gipuzkoako, Bizkaiako ta Alabako hitzkondietan.

Hamekagerrena: Hüs kararen khorpitzta, bere hitzkondiak berhez jarririk ere, elizatekiala gütiago obedant. Probak daudiala bi Nafarretako, Lapurdiko, Züberoako, Gipuzkoako, Bizkaiako ta Alabako hitzkondietan.

Hamabigerrena, hüs kara dela mintzo bizia ta jakintzia.

Hirurzpalaurre Katezimetan ageri dena, libürü ere zonbaitetan diradianak, Kempesa edo *Contemptus mundi*, Mosde Chourio (Xurio) Dn Joane Lapurdin Erretoraren obra 1720 urthian moldizkidatia. *Doctrina Christiana* hüskaraz bihurtia ta Irunen moldizkidatia, 1626, Dn Juan de Beriain lizenziatiaren obra. Berze libürü bat tritia diana *Noelak ta berze Espiritual berriak*, Baioanan moldizkidatia, 1630. urthian, Joanes Etxeberri theologian dotoraren obra; ber ezkiribazaliak egin dü ere berze libürü bat, Hüskararen adretzaz, mintzo dena.

Bena ezagützen eztügüna; bada oraiño berze libürü bat moldizkidatia, langiliaren izena eziana: tritia du *Exercicio Espirituala*, harek ere bere egiliren izenik eziana Baionan moldizkidatia, urtherik bagia Berze bat ere ber tritian: hamabi berezitan erthailtia gaiza ezin hobenez bethia, Dn Pedro Argaiñ apezaren obra 572 orrestan, Bordalen moldizkidatia 1686. Berze bat ere Saro de Labortarena ezin Hüska ederragoan, *marinaren eginbidez*, Baionan moldizkidatia, 1642 urthian, bena güzier gaiña da *J.K. Ordeinu*

Berria, Juanes Lezarraga berazkoizkoaren obra da Rochelle-an moldizkidatia, 1571 urthian, Erregiña Joanari eskentü ziana; haren landan, berze bat *Geroko Gero* deitzen dena, Dn Pedro Axalar Sarazoko Erretoraren obra, Bordalen moldizkidatia, 1641 urthian. Joan Etxeberrik mediketan doktor zenak Azkoitian zian ere, *Hitztegi bat* egin, *hüskaraz, Espaiñolaz, frantses ta latiz* antolatia, bena moldizkidatü izan denez eztakigü.

Mosde Arnalde Oihenartek dereikü ere ützi libürüñi bat, *Atsotitzak edo refrañak*, izen diana, Parisen moldizkidatia, 1657 urthian. Jarraikiz dereikü beraren *Gaztaroa neurthitzetan* ta azkenekoz *Zaharzaroa ere neurthitzetan* eman, Pauen moldizkidatia 1664 urthian, beherago zer-bait obra harez dügü erranen. Agergei da ere (ümen) berze bat trite dükiana *Aberatstarzün güzien giltz bakhoitza*, nere izenian sorthüren dena, ta aberastü nahi direnen komendian datekiana.

Libürü jarraiki(a)z, heben dagoenaz, begotze laidoriak, berzer, txipi bada ere, ikhertü dütian gauzetarik franko da ageri, bere irakoietan hüskarak berzeren arropetarik eztiala beharrik.

Soberana ere lükiala, beratan, bere zazpi hitz-kondetzaz; Hornera bezala, beretzaz, ari baladi, obratüren dian lanetan ta bide xüxena kхой denari berze batek bezain honki erakatsiren dereioala bide llabürena ta ederrena.

Berze libürü zonbaitez, erdi latiz edo frantsez josirik direnetarik, heben mintzo ezpakirade hobe(ki) egin ahal lütükienek dereikie balima barkhatuko; eztereiet aharrarik borondadian eginen, düdalakoz uste ezin giradila hobe hen gogamenaz. Bena egar eztirot hen hüs-kara txarra; ta dakigünian urthe baten barnian Jesuita batzu, Kastillanek, ikhasi diela Loyolan Hüs-kara konfesatzeko doia, hirurgerrenian aldiz peredikatzeko behar zeretena, ahalkegarri da Hüs-kaldün ezkiribazalek eztakien hüs-kara. xahiren eztien axolik.

Jesuita hek ere zien aithortzen hüs-karak eki-dar güziak zütiala ta gramatikaren itzala dianak egia hori ükha elirioiala, haren bokatziaz zerbait erran behar badügü, dügün galtha non den proba agerragorik hüs-kaldun menditar baten behatzian heno; ezi Biarneseki akointarik ezpadü ükhen hartan dirade hüs-kararen egokiak, alozia,

ta gaillardi egiazkoak, dakitzanetan edirenen diradiala nork ükha.

Nere althetik ageri dena, eztirot ükha eta ait-hortzen düt, eztüdala hüskaran azardun(ak) aski ta haren edertazünak aski erran, ahal nadin haren barnerat behar bezala ari; alabadere gogoan düt: haren arakoietarrik zerbait argitü düdala, berze batek porrogatüren diana. Ezi ene arauiala ezta mintzorik llabürago ez eta azkar-kiago hüskarak beno gaizak azaldüren dütianik. Hantik arren gogomena, hüskara Jinko jaunaren obra dela, eta ez gizonena? Ezi galdürük balego osoki, halako bat jendiak egin derokiela? Nik ja diot ezetz, ez eta ere lür güzian diradian jakintzüenak, ehün urthez lanari lothürük ere halako obra eliroiekiela egin.

Mündiaren laur bazterretan probak daude xütik, ama mintzoak Jinkoaren obra diradiala. Dierriak ere berhezi ziradenian eraman zütiela nork beriak. Mintzo hetarik dirade hanitz sorthü, hetarik ere saldo bat arragortü ta jendiaren beharrak jesanez ta joskürüz haboroenak mündian labekatü, hetarik Griegoa, Latia ta berzeta-rik saldoa, bena mintzo hek zer lan jendiari eztie

eman, lehen eziez beirade zerbaireta gerthü Latiaren hirur alhaba: Italiäna, Frantsesa, Espai-fliola laur ehün urthe azkenetan ari dirade bet-hatxüz ta arrapaintzez osoki khanbiatürük, ta beren amari hüillentziarekila baizik mintzo izenik ezte irapaizi orozbat Latia amamintzo eztena, Griegoa ere ber denboran ber medioz obratü ziradianak.

Bi mintzo eder hetarik lehena aspaldian hilik'-ta libürüetan ehörtzirik dago; berzia aldiz gizon-tze obraren doiala, dago bere herrian eskeletürük ta noizpait izan zenetik hain eskeletürük, non (banaite) libürüetan ikhasi dütinek oraiko griego-kila nekez beilrade aditzen; ama mintzoak aldiz meskabü hetara eztrade erori, hek dirade üdüri-goarik beren artian batere ezütienek.

Dügün orai hüskarari sokhaldi bat: nonbait erran dügü, Espai-flia güzian, lehen mintzoa izan-rik, ta dierrri arrotzek mendietara baztererazirik, hirur mila urthe hetan dagoela hetan kokatürük. O ama mintzoa ezpaliz, xoko batetan lüke bere ama, eztelarik ageri ihon ere haren üdüri-goaren seiñale dremendena; oral txipi badago ere, Erru-ma handi izanik txipitürük dagoen bezala, oroz-

bat Espaiñiatik ohiltürük dagoela ta mendietan baztertürük. Mendi hetarik (ümen), Alabatarrek Zuberoala, Nafartarrek Basa Nafarrara, Gipuzkoanek Lapurdira, dagoela ekharririk. Dian bere herritar banaitetan, banaite jarri dien, batzüberze(ak) heno hobeki mintzo diradiala gogoan, nekez ere beren artian dialarik aditzia, ohore, ogen heno gehiago hüskarari dereie, zeren eta herri batian galdü dütian hitzak, berzian beitütü edirenen, hala hüskara bere osoan dagoelarik haren ohoriari enjogi diradianek, dian hazteriaz sendoturik, ta sekulan bezain eder agereraziten beitü.

Libürüaren jarraikian Mosde Oihenarten atso-titzak ta refrauak irakurtzaler agrada ziratekiela ustian, ditut jarri; ta gerthaldiak diradialakoz gizonaren miraila, hantik dükien probetxia ezta-te gaiza apürra, hitzkonde hüskaran izkont diraitekiala ta bakhoitzari tieso nahi lazaitekina, bet-hatxiak kanpo, llabür lükiala kondera die erakusten.

Nadin aldi batetik edo berzetik seme, hüskaldün niz. Arren mintza, hen güzietan düt züzen, amaren hontan düdan bezala; zeren amen

horrez enaite balia, amahari dereiodan amorioa agertu badüt, nik beno hobeki proba ahal lirokie-nak ixil egonez ogen dü. *Filosofo hüs-kaldünaren Ekheia*, dü't nik heben lanthia, berzek beze *egiaz-koarena* egin. Obra dago beben hüs-kaldün-güzier eskentürük, batzü arrotz bazereitze zon-baiti, holako ez-tirateke hüs-kara dakiener, berzek aldiz hitz ez-ezagütiak Latin, Frantses edo Kaste-llano ez-pazereitze Hüs-karatik diradiala, bortxaz aithortü behar dükie berriz ere hüs-karari ützüliz. Medio horrez beren ama mintzoari, seme izanik, ohore dükie, Jaun Jinkoari ere berak egin dian mintzoari beba egoitez, diratekino ederki antola-türük hüs-karazko obretan langiliak dü'tü beredi-katüren. Halabiz.

BEREZITA I

Berthüdiáz

Hüskaldün ezpaninz, izan nahi nintzate; daki-dalako z dierri leiñarginagorik mündian eztela eziez enia. Bena audiak dialako z gizona den-ezten, baliatüren eniz nere sortze penaz arakusteko baizik, ukhaitü dütüdala izairak eman derei(z) tadan abantaillak.

Dakit ene aitasoak ziradiala Espaiña güziako herritarrak ta hogei ehü(n)kez herriaren etsaier bihurtürük, azkeneko z daudiala orai, noizpait büruzagitü ziradian bazterretan, han beren eskelegoak berzen aberatstarzünari etzielarik bek-haitzen, ezetare irritsiaren egarriak, jende güziak aberiak bezala eztütialarik üztartzen, ta direlarik hen azaliaz ta hen minkaitzentzaz ürr-hün, hüskaldünak beren lege zaharretan botzik bizi diradiala.

Hantik soz Errege Jaun khortian daudener ta loteki saldoak beren ürrhezko bürdüiñetan ikhus-ten, erhoen gisala dabilzala kheari laisterkaz,

kharroetan lerratzerata heldzia leze übernoaren zolan diela jargia, dütie ikhusten.

Mendien thinitik die ere entzüten ordokian zezenen adar khaldien hirotsa, leihoñaren orroiak, alanoaren marrakak, biperen hüstiak, gizona basa arimaltürik, hegaitz ürrikarrian jarririk, lerratzen lürrilat.

Hantik die ikhusten oraifio hegoak jendia inharrausten, urikaldak lürrian, itxasoan bezala ontziak baiara ustez heldü porrokatzen osoki, galgiroa nausi hari jarraikiz eskelegoa beharren lagün, ta berthüdia bethi hen artian arrotz.

Bere egongian laket eztenak, bere khorpitzari eskernío hainitz dü adelatzen. Dakigü arraiñ handienak itxasoan daudiala; bena angera txar batek barazkaria badereit emaiten, arren, erho ezpaniz, laur taulen artian arrantzüren jokatüren düt ene bizia?

Zer niz ni'? Aragiz eta ezürrez zathi bat arimaz bizi dena, haren faltaz ere hilen ta hirotürik errhaustüren dena, dialarik igutzian ziana, bere egi-liari ethorriren: honki egin badüt heren eretzian, düke honki jina, gaizki aldiz bizi izan baniz, ene

zorretzaz dateke arima berme. Dügün ikhus arranküra harentzat badenez medikarik.

Erhokeria handiagorik ezta, eziere erraitea ene aberatstarzünaren arauiala, bizi nahi niz. Heremitagei e'nintzan sorthü, nere bezalakoekila, zeren ene lenendian e'niz egonen? Santü izan, e'nainteke betanda hortara heltzeko bidia sobera herxe zait, J. Jinkoaren baimenarekila, batian lekhü düket haren saihetsian; bena sobe-rana erranak, honki eginaren aidüria itsutzen. Ezi berthüdiaren adra llabür da, nahiarena llabü-rago, obrak aldiz flakü. Sn Augustinek dereikü erraiten «Hizanian, ez hadiala laket, laket nahi bahiz ez hiziala heltü; aski egin dükiala uste badük herratürrik galdia hiz».

Aberats ta ahaldün handi baniz, Jinkoari honki eginen zorrak dütüt arauiala. Noiz niro erran, franko dütüdala pakhatü? Jinkoak bihotza egin dereit, zelia bezain zabal, bereak ere honki eginekila bethe nahi dü, ta nik txoko bat ez nahi ützi hutsik, nola arren hartan egon daiteke? Non date hari zor dudan amorioa, berak eman diroan dohaiñ ederra, onesgilia edo karitatia berbera ezpada? Ezi ez San Thomasek dio dela Jinkotar-

zünaren ziargia, berze berthüdiak argitzen dütianna, argia dago althare gaiñen ta ez pian. Hantik, arren, ta ez hebentik haren ziarrak.

Obendatü izaiteko aita bethierekoai üdüri, izan behar nintzate; bena nor haregana hegaltaz hel daiteke haren semiaren bidia lürrian ezpadü jarraiki. Jinko horren etxian niz kristiatü ta hitzemanetzaz deusere ezpadüt etxeki, izenaz baizik e'niz haren jarraikile, obretzaz ezpaniz batere, baten (ganik) noa ihesi.

Kastaz hüskaldün diradianak, dirade güziak aitoren seme; arrazo horrez, beraz, ezta jende kastarik lür güzian hüskaldünak bezaiñbeste berari zor dianik, dremenden apalkeriaz bere jagotza bidaltzen dialakoz; dü hantik bere famari berak thonak egiten, inhurek eta deuserek izart liorakienak. Bena delakoz hüskaldüna halako, hortakoz berthütiari tinkoago dago estekatia, ta hüts egiten dereionian ohoiak, kastigo handienaren zereio mereximentien; ezi mithil, berrogei luis soldata dianak, errekeitü gehiago dü zor etxaltiari, eziez hogeia baizik eztianak; hala ere jinkoak ezarri dütianak berthüdiaren langile beren eginbidetzaz berme.

Hidalguia da egiazki Jinkoaren dohaiña mere-
xiari eman diana, mereximentia akabi bezain
sarri erorten da lürrilat dohaiña.

Filosofo batek zioan ber denboran «Hidalgoa,
aragian ta odolian balago, gaiza arhina lezate-
kiala ta gizon apürrekila nahasirik, berhezta
nekez lizatekiala»; alabadere ber moldizkian
bada ageri jende güzia eginik dela. Ukha e'laite
aitoren seme egiazkoen ta langilen artian ageri
dela lürrian ber banaitia, izarren ta eoliten
artian, zelian dena. Nontik den banaitia, galtha
baladi? Ez itxurian edo khorpitzaren edertarzü-
netik, bena bai arimaren xüxengoatik, deusere
okherrik akoga e'lorioanetik. Nobliak xüxen diala-
koz, dü bethi begithartia, begiak ta agrimatürak,
ibiltia bezala, da etxeke liskar baterez lotsa ezte-
na, dialakoz berthüdiak bürrian gaiñen ekharten,
bizioak aldiz zankopetan ezarten.

Egiazko hidalgoa thorrea ahünzostoz estalie-
tan, ez thonaa higatietan ezetare pergamü
mintsüetan eztago; bena bai arimaren xüxengo-
an ta halakoa diana da, non nahi, aitoren seme
behar bezalakoa. Sn Ambroisek dio, Egia haren

arrimagei, gizona dela gizonen kastatik, bena berthüdia dela arimen kasta.

Erospenaz handitü dena, da itxaso ostraren pare, arraiñ handiaren küsküillan sarthü denian, bere aiziaz dü bethatzen, bena dago hanitzez txipiago han ageri, eziez egon baliz bere sortze-penean ta soegiliak dütielakoz üsiago bere ohe-tan jakiliak kathez dütü aide orotarik; hantik gorde lütükian faltak egongia lehenian daude güziak ageri, bigerrenian ülhün sorthü zena, bere ülhünpian egon bedi, edo bürían jar beza kopre zelarik, ürrhez behar dela agertü.

Petik gora igaiñ dena ta nontik den ohart dena bere zorthü honaz ürgüillürük eztiana, bere askazi flakiak indartzen düttiana, mainatak mes-pretxatzen eztütianak, arrazoaz baizik ari ezte-na, honki eginak gordatzen düttiana da ta dateke mündian senthagailla handiago, eziez Joben bizi-pena bere gorotzian izan zena; zorthü honaren soberana da pezü handia egünkal ikhusten dügüna; aberatsa harrez illüritürük, ürgüillü(z) hantürük, adiskidegoa osoki ahatzerik ezagützia-ren zorrak zankopetan ezarririk, jende perestia diana iñaginatzen, behardüner horer bezala min-

tzatzen; bera, aldiz, bere arima apalaz desaraukatürrik, dremenden atsekabiak larrapoka ibileraziten dian gizona da.

Arima handia aldiz, zer nahi hel dakion, bethi zorthü hona beno gorago dago. Haren gozomenari egobiar, galtziari bi bidar, thenpestari, zürründari, harriari, ekaitz lotsagarriener dago botxia bezala tieso ta zelia zathikaz erori inkarrietzaz lotsarik eztialarik, deuserek sorthüko e'liroana dereikü erakhusten; berak diolarik *inter eclipses exorior*. Aboaztüren diradiala odeiak eta ekhia agertüren zereiola dago aidürrian.

Nork bere gaizkorriak ükhen eztütü! Erregetarik baratariadrano; zorthü gaitza, hegoaren pare, laketago da oihanetan zühaiñen porrokatzen eziez khaparren azotatzen. Orozbat dütialarik jende txipiak mespretxatzen, dütü handiak erroetarik zothükatzen ta lürreratzen, halaere non eta zaiñak beitirade azkarrago, dütü astindiak üsüago. Aitoren semia poterez animatiak, dütüke orozbat bere inharraus'khaldiak, zelia khexatürrik dereio garrak egoisten ta düründaz bere thorria khordokatzen, balima ere eroreraziten bere fama lanhoz üngüratürrik, isterbegiez

thonatürük. Bere azañak zathizkatürük, betarlisa belztürük, adiskidiak argütsütürük ta traidoritürük, dütü gaiza hek güziak borogatzen, bena han dü lerdetik berthüde egiazkoaz ta hüskaldun dela erakhutsiren.

BEREZITA II

Nekeziaz

Zilzikidiak aberatstarzünari eztereio esker-niorik egin, (non) ez den beraz mespretxügarri; bena dialakoz ardüra enplegia halako; ordian da bere lepotik loth ta nabel zorrotzaz, ürrhez egongia diana, zünzürra dereiona muzten; ürrhezko kopa da khozua edaneraziten diana, ordian, zilharrezko zübia da lezila xüxen doana; bena zer dirade aberats haboroenak, gaizki halakatü diradianak: zekein, asemagur, desleal, Jinkoaren ta jendiaren eretzian, fede bagiak; halako aberats-tazüna da, arren, hügüngarri, ez berberaz, bena bürüzagiren eskietarik dian desohoriaz. Bera ezta bizio galkiroso, da gaizki bildü diana ta gaizkiago manüntzen diana.

Berthüdia ta eskelegoa bekhanki dabilta lagün, hantik eskele aberastia nekez gizon perestü, anima ederrareki ezpada sorthü. Ezi beharra delakoz bethi galthari, hartako gogoa dialarik, bizitze lealaren errekeitia(n) ütsarterik eztie; bihotzaren zaiñak dereitzo llabürtzen; gar-

haitzen badu ere gaitza, bertzaren zolan bethi ere dago ondakina.

Behardünak eskelegoaz etxaltia dialarik üngüratürrik, etxia haur pikarraiez betherik, arka hutsik, abaiñak zelaurian, zorren galthariak aidürü, algoezila borthan, auzietzaz nekatürrik, hen aita ünhüdetzaz xukatürrik, aberiak deuseretzürrik, hantik beharra bizioen ama da gertzen, honek honki egin ezinari, gaitza egineraziten.

O! non zirade xühürra, Jinkoari galtha ziriokina, berze aberatstazünarik eztüzüla nahi, baizik nekeziatik salba zintzan? Orai zonbat dirade soberakinaz aski eztienetarik: zier niz mintzo jaun aberatsak; zien palazioetan, arraiña bezala hur gizenian jaten düzie berzek ereiñ dien ogia, edaten ardoa berziak lantatu dianen miñatzen-tik; aragiak zereitze mahainiala jiten adelatürrik; jakinik bage zer errekeitia dien ükhen, ihize güziak zientzat dirade habiatzen ta hüme egiten. Nork dereizie hek güziak? Behardünek ta ziek gorr ta müthü hentzat. Nor da, arren, gizonago? Balle hek bizi doia ta zietarik ez deusere beharrik, zer zinantekie?

Egik (dio Jinkoak) behardünari honkia, askazi ziradie. Da kristianaren eginbidia, alpura den bezala süiari, argia ekhiari dereikü berak ere «jinkotze handiena dagoela gizon hilgarriak bere üdüriari honki eginetzaz, bethiereko doakintaren bidia llabürtzen dialakoz hola».

Azaldi halakoaren erezian, aberatsaren gogortazüna behardünaren erezian, ezteia gaiza harrigarria! ta dialarik potere sokhorrigi, diharü dohaingei, bata ta berzia ükhatürik, dezan bide hari gibel egin, Sn Augustin-ek dio «aberratstazünak maite badüzie, dei'zazie zien honki, zorthiala doi diren bezala jar, zure salbazionearen lankhei diratekianak. Bürüzagiren dohaiñak dirade ta zure laudakeriaren prendak, arren, aitoren semiak direlakoz jendetarik seiñalatenak, ta direlakoz berzer bethi gerthaldi gei. jarraik beze santü handi haren errana».

BEREZITA III

Baloriaz

Gizonaren baloria da haren balioaren doiala. behar bezalako denian, hegaltaz gaitzür güziak dütü erdiratzen, saldoak behezten ta bihürtü nahi direnen lekhü eragiten. haren baloria arranoaren pare dü odeiak xilhatzen, düründarekila da borrokatzen. Lehon berze animal güziak garhaiten dütianaren pare da. Arroka itxasoaren ühin gahüntsüak jin zereitzon beno laisterrago urthukitzen dütiana. Deus erez beldür ezta, deuserek etzereio gaitzik ta gaitza izan bada azkarrago, dago bera harritürrik, halako da edo behar dizatekina aitoren semiaren bihotza; bena aharretara, ez etare auzietara ezta apaltzen. Bera beno handiagorik eztü isterbegirik, pare zereitzonier dü ohore egiten, borthak bethi behardüner dütü zabalik üzten.

Lasdaki da denboretzaz, ikusten ziradianian aitoren semiak etsai-sorho batetara deithzen zielarik, nork bere jakiliak zütielarik, bardin zela hen artian adelatzen zien arategiaren lotsa;

bena zer arategia! Jakiliak aragin, aberiak beren artian erhaile, borreroak aragiaren erosle zira-dianak. Bi mila urthe dira iraganik, filosofo batek erran diala herioa mespretxatzen zianak, etsainaren biaz büüzagi zela; bena bere adiskidiaren edo herritarrenez bada, büüzagigoak zer ohore düke? Basa animal odolgiroak bere lagüna erho diana. Gehiago dena, anaie erhaile fama, Jinkoaren ira, erregen erraieta, legen ostikarra, akadoieren naga, zeliaren ta lürraren gaitzko-tzak dütian.

Dügün soegin, ohoria errabia halakoari honki zereionez. Jende xühür güziek diroe, balore egiazkoaren ofizioa Jinkoaren ta Erregiaren zer-butxian dagoela. Zer ta nola ari dadin, hantik kanpo, bere preziotik hanitz dü galtzen, oskiegi-liak gal liroena, aitoren semik bere hidalgoan dü jarten. Sortzepena ahatzerik Errumako ezpataren pare jarririk plaza ostandikian doa bere tre-bandiaren erakhustera ta Espaiñako zezen lais-terkarien ofizioaren egitera.

Ohoriak eztü nahi apalkeria lagün, inhork ideki eztirona ta ginhaurrek baizik gal ahal gini-rokiana iraindü dianak gaiza handiak apürrenera

irandutzen dütü. Zer legek mandatzen dereit halakoaren manhiala jalk nadin? Jin bedi niri, bürria gora nabila orotarar sortitzak dereitan legiaz nai ene esküdantzan iderenen. Mark-Antoni-ri Augustek egin zioan arrapostiaz bikudaran zianian desafiatü ziolarik: «bere egitekoa xeden gaitzaren gatik herioaz khi baliz, liroala har berze medio onestagorik lehen, eziez odoltsü errabiak esken tzereiona har beliro». «Arrapostia kobarde bazen ezpata-zaiñen ustiala, Lür güziaren Enperadore izan zenarena zen ta desafioa aldiz ohekide baten besoetan hil zenarena». Egiazki ere, biderdira edo duela suerte hek zira-dian Erruman mespretxü ezin handiagoan, orai bezala Espaiñian güzian jende apalenen ta ankesgarrienen ofizioa.

Egia dela hori diozü, bena oheriak eskilima hek atzürka e'litiroela, lizatekelakoz atzurkaria ahalkez ta zizendaz estalirik. Bena erradazü soldadoa etsaiari eztoana bere serjentak ezpade-reio halabardaren zorrotza bizkarrian edo aitoren semia sorhoala dereielakoz oheriak manhatzen, nor da bietarik manhiaren mithilena? Bata doa, jagoitik mintzatü ezetare ikhusi eztianaren

erhaitera, berzia aldiz elhe txar zonbaitez mendikatzerera, dakialarik Erregiak zin, bere koronatzian egin diala, pharkamendürik bizian ezteraiala emanen ta legian diela aztentü, beren jakilekila diradiala güziak ürkhatürik izanen, hilak ere khe-retetan —büriak lürrian— herresta ziratekiala herrestatürik. Arren errelijonia dagoelarik berhez, erausten bazirade, bizirik edo hilik korda edo khereta biak desohore handienak dütükezü. Ari ezpazirade desohore? Norenganik? Erregeren etsaien eretzian ikhara, übelez ohoriak eroaiten dütiennen ganik; ardüra ere soldadoek dereielarik emaiten aitzinanda halakoek edo sordeitsek dieia arraheñ zure ohorian akadoitüren eztakielarik zertan dagoen berena?

Dügün jar, hen elhe txarrer ezkapi nahiz, ohore faltsiak zure anaia hitz txarragoen gatik erho-erazi ta ziradiala herriz kanpo ihesi. Zer dükezü ira(p) aizirik? Ez berzerik, eziere bi desohore egiazko, ohore faltsiren gatik: lehena zure üdürientzat dateke ürkhategia ta zure aurrhiden des(o) horearen jakile; bigerrena kasü hetan dolü diala koz hilak eragiten ezteate batere zuretzat ta arrotz herratürik, gizon erhaile fama bela-

rrian, nolako dütüketzü honki jinak arrotz herrietan.

Dügün, oraino jar, hilak ziala ogen güzia, bena erradazü ogen harek merexi ziana herioa? Nork eman dereizü zihauri poteria ekadoi izatez, non ikhasi düzü eman düzün herioak diala puskatu etartü düzün batzigoa? Errege beno gehiagoziradia? Esküdoia, bilhaken xüxentzia, iraiñen mendekatzian, potere hori dialarik, eskietarik nahi deriozia arrapatü ta harez errautsi? Jinkoa beno handiago ziradia? haren manhien mes pretxatzeko. Etsaier bere herioa barkatü dialarik, zük hitz zonzabaiti behar düzia zure pare denaren biziaz doskaiñtü? Kristia bazirade «oratio dominicala»z zure Jinkoari galthatzen dereiozü hartan parka derezazün zure iraiñak, zük barkatzen dütützün iraindü zütiener bezala, trüfatzen zirade arren harez edo desleal zirade haren eretzian, ta zure hitzemanaz burlatzen ziradialarik mendekatzeko, zure othoitziak galto dereiozü mendika dadin, mendikatü ziradian bezala, hala zure khorpitza desherritürik, herratürik, arinka eripe-türik zure izena ürkhia erazirik, zure aurrhidiak desohoratürik pakhatü dükezia franko txori-bürü

athiaren onesbidia kharioago ja deriezüla JINKO-AK hilaren üdürían norat nahi joan zitian, ezi loan eta iratzarrian lagün dereizü ta mezügei dükezüna berze mündian.

Oi! Aitoren semia! delarik zure bizia sortzepe-naz Erregiari ta Herriari zenapenatürik, ahalkia arakeiaren pare den zure khorpitzá kharríka güzietan herresta edo zure izena ürkhategian, haiñbeste bergontza erakus dezen batetan etzi-radia harritzen? Txakürraren txanpak galeraziten badereizü zentzia, gauza hetarik ihesi edo mespretxa? Elkhi edo egon e'lírokianari zer ezkonde emanen zereio berezítaren hatsarrian dena beno hoberik. Non dirade aurizka lezarra-te(n) faltsiak ta zankhopetan arima zeha leger, balore franko düzü erakutsiren.

BEREZITA IV

Haurren azkontziaz

Gerthaldi zonbaitez erakutsiren dügü, heben, haurrak ünhüdetarik lehen eziere aita ametarik gizon perestü edo gaitz diradiala gertzen ta hazaroak beno hazkürriak diala oitüretan potere gehiago. Ezina da odolai ardoilla bürdüinari dena, azkontzia nazaroari dena ta ekhia lantha güzier dena. Alemanian kondairak dio oihanetan ihiztariak otsoekila larrapoka zabiltzan haurra hatzaman ziela ta Henrik Hessa-ko Margraf-ari zereuela eskentü; hirur urthe zütian, jaten zian lagünek hatzamanetarik, pikarrai zelakoz zen hen artian ohatzen. Otsoa bezain ohil zen, ibileraziteko zankhoak hezitü bezain sarri, eskiak bizkarrian zereitzen estekatü, bere adintsüenak beno zelakoz azkarrago hausten zütian hortzez estekak, nahiz ezkapi; basa animalaren gisala erakusten zialarik bere ünhüdiek ziela otsotü.

Ber libürüian dügü ikhusten haur batek zialakoz ahardiak eznatü lohitegietara inharaustera, ahatia hurilat igerikara bezala laister zabilala.

Champaigna-ko herrian 1734.urthian orozbat ihiz-
lariek bost urthetako haur ürrüxa bat horer inhe-
si ürxainxa bezain laister haritz tiniak igain,
zenian jendia hüillantü zereion, oihier marrakaz
zütian arrapostü, bata zühainiala igaiñik bortxaz
zian eraitzi; pikarrai zelakoz zen bezala Chalon-
ko jüratier eraman ta hek arropak eginik, serora
konbentian zien ezarri; mintzo zen, bena elhe
gütik zakian. Ikhasi zianian bere kondairaren
erraiteko doia, zioan, ützi ziela oihan batetan
haritz hirotian barnen lo. Biharamünian nigarrez
eta heiagoraz agortürik, gosez ere nekatürik,
bizitzia nekez frütü txarretan ziala ediren. Jen-
den lotsaz herots entzüten zianian, zela gorda-
tzen borotxetan edo zühaiñetan, gogo honagoz
gaiez eziez egünez zabilala, ihize suerte güzieta-
rik ziala hatzamaiten.

Zathizka zoatzano arropak hotziala zela
gogortü. Ihizia falta zereiomari, arraiñtzüra zabi-
lala ta bi huren artian igerika arraina ziala hatza-
maiten.

Hantik bi urtheren landan frantziako Erregi-
ñaren ama Lorrenaratkoan hiri hartan igaraiten
zelarik, entzünik neskatilaren mentüra, sororek

erran zereuela kunbentiala heltü zen egünian, ezkapa e'ladin leihoa ta bortha ziela tinkatü, biharamün goizian ziela heda ideren zelaurian hantürük eta hüillan hilik, bena leihoa zabaltü bezain sarri zela arrapiztü. Baratzeko paseia zianian gathiak bezala zühaiñak trepatzen zütiala. Eman zereuela lebraost bat atzazküliez ziala mementoan lahardekatü ta ausiki; geroztik zela emeki emeki mantsotü, zialarik megopia izigarria erakhusten. Erregiñak, sororek errekeita lezen ta mentsik etzükiala haboro'zik harez ezta-kigü bena franko da gerthaldi hau erakhusteko, lehen dela jendia basatzen, eziez basa mantzotzen.

Dügün oraiño berze bat Enperador batan, Caligula Seme, jende ezin hobenetarik sorthürük, zonbat gizonak potere handian, gaitz zonbait egin diroian, dereikü erakhütsi. Bere aitak, nahiz zadin gizon borthitza ta lan güzien bürüzagi, zereioan eman ünhüde emazte bizardün bat, gizonari emazteari beno üdüriago zena ta jaigü-ra güziak bazakiana, soldadoak bezain honki harmak zütian maniatzen, zaldünik etzen hobeki zianik zaldia zikatzen. Emazte halakoak eznatü-

rik Caligüla, lürrak ekharri dian gizon gaistoena gerthü da izan. Balauke sortzepe naz gaiztokeria- ren azia lükian, bena gerthaldi ja erranetarik, düdarik ezta ziala eznetik hartü bere (i)zadia, lürretik lanthak diana.

Noizpait zen, jende noblia oraikoa beno balio- sago, aita-amer estekatiago, aürrhider maithia- go, ohoriari lealago. Zeren? Zeren eta amek beitzütien beren haürriak eznatzen ta bizia ükhen zien ber odoletik beitzien hazkürriak hau- rrian, düda bagerik nazaroa dü osoki khanbia- tzen; khanbioa milatan ikhüsirik gaude. Ahüntza bere khastaz net mantso dena haurren ünhüde bada, haurra net sano handitzen da, bena gizon jauzkari ta kosko arhin gertzen da, halako diala- koz ükhen ünhüdia, hainbeste broben landan nork ükha liro arren, nolako den ünhüdia, halako datekiala haren ezne semia. Hazkurriak hala haurraren sorthiza osoki khanbiatürrik, berritü beharrek ta langiliaren animez aitoren semiare- na egin, azkuntze handia baizik obra egin eztai- te ta faltarik balin bada obran, langiliren arima dago aitoren semiaren khorpitzian, hantik ardü- ra apalkeria handirik sortzen.

Zeren eztütien Erregiñek ünhüdiak anderetarik hartzen? Zeren aitoren semek eztütien ünhüdiak hobeki haitatzen? Zeren, ditian bezaiñ sarri sorthü kanporat igorraiten? Zeren etxen ünhüdia begiratzen dithian diradiano, aita amen errekeitziaz ikhas dezan haurrak, nor den eta zer egin behar dian? Gaiza hen khinperrek naie harritzen.

Nago ere izitürik haurrak eztiradian etxerat deithzen berak ibiltan diranian baizik, bihotzetik behar zekienian haurrari khentü ezniaren khozia zereio aita ünhütsüaren ofizioko thermaiñiak sartzan: marinearen etxian izan bada esnatü, arnegü dirateke següro dütian hitz lehenak erranen. Kastatik dela hora ihiztari diozü, bai, nik aldiz egia handiagoa dena, amak bere hümia bereki ihiztara eramaiten badü, azkontza bagetarik hor hona dela gerthüren ta artzaiñhorik eztela azkontziarekila batian halako eztatekiana, bena düda bagetarik lehena hobe datekiala.

Lorrenan ikhüsi dügü zonbat kastak dian potere jendian: aitoren seme batek igorri zian ürhün seme berri sorthia. Unhüdiak ikhusirik beria beno azkarrago zela beretzat zian begiratü ta beria trüküz aitoren semiari eraman. Biak

handitzen zirelarik ziradian banaite beren aitüretan (ohiduretan). Aitoren semiaren-enian zenak deusere ikhasi etzian nahi, jakite güzier arrabuhin, jende güzier antzater, lagüneki panpakari zen; azkenekoz soldadotürik harmadatik hetzurrita khordala eripetü zen. Haren ezne anaia aldiz etxeko lan güzietan eskia zian ezarten, bena aürrhiden eretzian handios, akointarik batere berzekila bürgian, bere eginbidian mantso, manhier ohil. Unhüdia ama izena ziana eritürik, alboldian zian bere erretorari, ohoñkeria kanbio haurretan egin ziana, jakilen aitzinian aithortü ta ize-nak zütiala bier khanbiatü; hartakoz ere bi ünñüde anaia hen artian auzi handia zen sorthü, zianian laborari semiak bakiaren gatik barkhamena alkanzatü, nola akabi den auzia eztakigü.

Gerthaldi hartarik ageri da jenden artian banaite handia badela, langile kastatik delakoz aitoren seme nekezago gertzen eziez kasta nobletik langilia ta sorthiza bethi tieso bere züzenetan dagoela, hantik broba bata ta berzia beren aklüretarik(?) kanpo diradianian bizi gizon diafratiak(?) direla, hantik ere aitoren semiari abisa haürzaroako plegiak diradiala nekez barratzen ta

hartakoz bere sorthzepenari doi diradianak goizik behar zereitzola eman. Aitatik dütian gerthaldiek dütü lehenago hartüren eziez errejentaren erranetarik, hala eginez dügü ikhüsten etxiak bere izen ederretan xütik egoiten gizon handirik hetarik jalkiten, ta hen akabaillek dolü handirik eragiten.

Andere bat, ja haur egützian (egükian?) eztü adiskiderik, ünhüdia eskentüren eztereioanik ta ardüra txarrenak düke legoitzta, hantik haurraren lehen hazkürria gaisto ta osagarria mehe: ünhüdiak dian dithiak handi, moskoak lüze, larriak ta hortzak xüri nahi dügü; bena arranküra handiagoari, gogo eztügü emaiten dena jakitez heia emazte xühürta hügün dianez, ardoari khoi ezteñez ta errazitala, himor gaitzala ere enjogi ezteñez; ezi haürak düke odola halako, haurraren khoi bada orozbat.

Unhüdiren landan da amaia haitoan ber nau-tsia galtho diano, dian bihotza hon, megopia ezti ta eskia latz, dezan batetan haurrak, dian amorio ta beldür haren erranetzaz, harek dereio Jin-koarenak erakhütsiren; ohe mardorik ezetare

hazkürri gozatsürük eztereio, bena landarien gisala dereio emanen.

Emaztetarik gizonetara denian mithilkoa iganen, hetarik dü aitoren egiazko eginbidia jakinen. Berthüde güzietarik jakintze güzietan herriaren amorian erreligionian berze jenden miraila behar diala izan, ta delakoz bere sorth-zepenaz ta aberatstarzünezjenden lehendanik potheria dereiodala behardünentzat Jinkoak eman dereioala dü erakütsiren.

Aitoren seme gaztia bizarra agertü etzereioana erran daite(ke) mündü handiak dian lerradüretan ta lagün xühür bat ezpadereitze lezila xüxen doatzan bideskak erakhüsten, larrütüren da ütsia bazala. Lürra gerthaldi halakoz dago estalirik. Sobera ordüz bürüzagitü bada balaketzaz ta laidorez horditürük, sarri bidagi edo tirano dateke etxen. Kanpoan aldiz leho kadenak haütse dütianaren pare dabila, ordian diot: aitoren semiari adio ta trükaderari honki jina.

BEREZITA V

Irritsaz

Handi izan nahia da aitoren semiaren eritar-zün sorthizkaia ta nahiari, ahalaz ez neurtuz edo ez izartüz haren galtzepena. Bere jauregian liza-tekelarik jaun handia behardüner, mothaldi, bar-dinen adiskide, bere menpekoen estalpe ta guzien maithagarri, bere irritsaz errerik doatzan-de hek urthukirik khortiala doa loteki jartera; *ükhen dügün errege hobenenak zioan aitoren seme hamar mila arrandadünak, ezagützen enaianak, ez etare axolik, zorthia nik beno hobe dü. Alabadere doa khortiala ta itxaso hartan marinera bezala itxasorratz bagerik dabila ta lehen ezi kamerzain bateki beitüke ezagützia egin, ehün süge dütüke ireitsi.*

Han dütü hainbeste bürüzagi edirenen non bere egarriak betereio egiteko adelatüren. Arrat-hü khozütia bezala da ibiliren ithotü ezteno, delarik mithil bati apaltzen, bürüzagiari nahiz mintzatü, igaran düke berrehün oren txoko bate-tan beha, baten ohoria eziano ükhen dütü igara-

nen; ikhusiren dügü dateke lehen arrapostia, zorbait asteren landan *eztüt ütsarterik ükhen* bigerrena, hantik ber denboraren üngürünetan — *zure egitekoa ezta eraskirik bage* hirurgerren arrapostia; azkena aldiz *dolu dereit egin eztaite-lakoz*. Zure egitekoari berze hanitzer ere so egiten eztüke, bena beriak eztütiala ahatze ni berme. Hantik aitoren semia doa berze bortha baten trükara, ber ofizioaren egitera ta bere begitharte berriaren deberaren pakhatzera. Orotan arrotz, auher guziak hari soz, algarri galtho zertara dabilan dirade arranküra handian. Pelegriek bezala egünkal egongia berritzen dü. Behar aldizkal borthazaiña balakatü faboredünak lagüntü, mithil bati eskia eman, adiskidiari gorde, ürhotsak etsaiareki esterrazi ta egünkal üztarberri bat lepoan jarri. Khortezaiñ bati galtho egin zereioan behin, nola khortian zen zahartü, *egünkal eskernio franko ükhenez ta her esker esküpotak eginez*.

Ezta mündian ofiziorik khortezaiñarena bezain, ohoriari kharatzagorik. Alkantzatzen badü behin galthoa, ehünetan egina bi mila gür khosta zereioana, hogeï mithilen mithil dago.

Igurikiari dagoeno loth, otsoaren beharritik ala-noak bezala, azkenekoz dü zathia ta arimala da ezkapatzen. Frairiak dü eskelegoaz boto egiten, denian bere bapildian sartzen ta janzkaia hartzen; khortezaiña aldiz aberats da sartzen, eskeletzen deno zereitze mesperetxiak athetzen. Zerbait hatzaman badü, eztateke gastütü (jan k.) dianaren ehünetarik bata. Deusere aldiz ezpadü alkantzatü ützültzen da bere jauregiala zorthü honari bihürtürük lepoa eskelen pare izaitera.

Ordian, bena berant, dü aithortüren khorteko bizitzia eztela bizitze, bena bai garbai otsandikia jende güzier ageri dena; eztiradiala khortezaiñak gizon biziak bena bizirik ehortziak, jeloskeriak dütialakoz egünkal erhaiten Khortia da egiazki azartiaren, min(d)üriaren ta hümiltazünen egongia, jinkoari eskent litirokianak, mereximentu gehiago berze munduan luke, eziere fraile zoiñ nahi denak; bena hen gatik harat eztoa ta balaki haren aiduru dagoetzala, bere jauregian egon laiteke bere handitarzün egiazkoan hiltzera.

Han handiagorik eztialarik bazterretan khorteko ta khortezaiñen nautziarik e'lüke inhuren

manhü egile e'lizateke oroer ere aldiz emaille. Erregia beno, bere denboraz bürüzagiago, ohia-
ren ta mahaiñaren thenorietzaz nausi. Egündano
khortezaiñek izan eztizenak, han hek elhorrien
artean diradiano, lüke lürrak dian lili ederrenak;
bilzuran ari diradiano ere khek borreükatzen
Khortezaiñak aitoren semiak aldiz bere honki
eginetzaz libro famak bere hegaletan ekhar, ezi
die honki eginik berthüdia arimal basaenen mar-
dotzez bihotza, salbü khortian, han ühaitz
harriak beno gogorrago dirade. Zer nahi egin
deikezün zerbützügeia, ezpada ageri güziak aha-
tze dirade. Androdus-ek elhorria aztaparretik
lehoari idekirik, ezagützia haiñ zen arimal hartan
handi nun Errumako kharriketan axuriak artzai-
ña bezala jarrekiten beitzian, bere honkiegilia,
arrano bat ere gazterik hazirik, ikhusi zianian
bere andere bürüzagisa hilik erretzera eramai-
ten ta egürretan jarten (denbora hartako usan-
tzan), süia piztü bezain sarri hegaltaz garretan
zen sarthü ta haren hautsak andrearenekila zira-
dian nahasi.

Ezagutzia delakoz eznez ta eztiz egina, khor-
tetan ezta laket. Esker beltzak aldiz hainbeste

(hainberze k.) plaga zelütik lürriala jinerazi dütianna, dago oraiño Khortian osorik. Norbaitek erran dü hareki hiltzen zena heno galostiagorik ükhen e'liroiála ta thonba hartan alabadere ardüra jaun handiak dirade ehörtzten.

Zorthizak gizon güziak ber moldizkidian dütü egin, sortzepenean dirateke güziak bardin, herioan dütü harek zehatzen zeta ta ilhe brustoá; bena soegiten bada gaizen üdüri da, gizontik gizoniala banaitia dela handiago, eziez gizontik aberiala, hainbeste eskele sortzen delarik eskelegei zü aitoren semia?, Diadumenianus bezala khoroa belarrian sorthürik eta etzirade askitü zure zorthü honaz. Nontik ta nola sordeitzüren düzün, gaiez ta egünez, düzü arima esker-niatzen.

Bena diozü aberats niz, aitoren seme ere seiñalata ta ene jauregian ehörtzirik nago khortian behar nintzatekiano. Zer! hemen güziek dereitzielarik behar güziak eskentzen, zütielarik jende güziak errespetüz akogatzen, düzülarik zure Khortia etxen, zure büria gütizera ta deusetartzera zünükia errabia, ta zure borhondate güziak dütüziano egiten berzerenen mithil izan nahia.

lkar-aren erhokeria jarraiki nahi zünükia, ta sobera igaiñ nahiz erortiaz ez axolik?

Oh! aitoren semia, zorthiak franko honki egin dereizü haboroenaz zitian paira, berze egarririk, eziez honki egitia zü bezalakoer etzereizü konbeni tieso ziradiano, egin ahal zinioari zitianari ta zure balioari ezte zü beno handiagorik, zure pareren artian zirateke lehena, menpekoen ertzian errege, eskelen ta behardünen aita, errege hobenen leiñuargi da Erregegoa argitzen diana ta aitoren seme hüsaldünari doi dena.

BEREZITA VI

Gerthaldien indartarzünaz

Gaiza güzietan lion edo gaitzetan da, haboroetan, gerthaldia langile. Norat nahi ützül nadin, zientzat, aitoren semiak düt Eginbidiaren here-xak ohoiaren akhületak ta berthüdiaren obrak edireiten. Zien gerthaldietan. Bai handienen gerthaldietan honkiren edo gaitzarentzat, bath' ahal daitekenetarik da, düda bagerik arrapagoe-na; hortakoz, ere Paganek hainbeste Jinko eginik nola beitirade bizio mündian, gaitzak her zütien dagokitzen, gütiago itxusi ager laitian. Hala sortizaren bizioak jinko faltsien gerthaldietzaz arri-matürik zabiltzan laisterka bürüz behera ürrhez-ko itxura begietan.

Hala adulteroa belhariko Jupiteren Eretzian, haren altharian zian pizten bere amorio ganüstarra zialarik laidatzen Zezenaren, Belxarraren ta Arranoaren Ekantzian zütialakoz neskatilak engana-tü, ta berak gizonarenian orozbat egin ziala-koz, esker ta obertak eskeintzen zereitzoen.

Jinko faltsü hek hil dirade, hilgei ziradialakoz hen obrak; bena obrarik ezpeilizateke, gerthaldirik ezpaliz, jendiak dü jaun handier so egiten ta hetarik hartzen gaitzak lehen eziez eta honak. Izar thürbütsiek die ülhüna hen ageriak dian bezala Lürra argitzen. Orozbat ziradie Jaun aitorren semiak zien aiziak du, goratzen ta beheartzen jendiaren itsaso bagak, haren bihotza da lür-büztan zuriz nahi düzün üdürria har diroana. Fier dago tinko, üntza bezala thorriari, fier gertaldiek Legen indarra hen eretzian die hartzen eta hek jendia khozützen. Hantik askotü beharra, detzen handiak bizioak gorda, direlakoz hen gaitzkurdietzaz berme ta delakoz gaizkiegiliaren mehatxia flakü.

Ezi bizioak doanian aitzina, ta berthüdia gibel egoiten, jende gaztia doa laister Lehenari, zaharra aldiz jarraikiz azkenari. Hala, batak berziaren lekhian jarririk, die azkenekoz gordatzen ta honestarzünaren Legiak erroetarik adheratzen; desadura halakoa, handien ganik heltü baliz, altharian jarridukien bi mila oberta errusigarri lizatekeana dütükielakoz beren gerthaldi gaitzetzaz obratü hala.

Urthekal dügü ikhusten, egin izan dena berriz egin daitekiala ta Legautsiak gerthaldiez diradiala arrapizten; orozbat berthüdiak diradianian herrian hetara Jaun handiak enjogi ezi jendiaren ustia da noblezian dagoela jakintze güzia ta gaitzik balin baliz egiten dütianetan, egin e'litirokiela hitzaldi hartarik da ari Jaunaren ürüdiala jentia ta aita bezala semia, hantik ere Errelijionaren akitzia mündüko gaitzik handiena dena.

Jendiaren begiak bere jaunaren obretan dirade, Argusarenak gütiago beno haborik dü ezarriren hetan: flakü badü indarra ohoiñarentzat düdarik ezta eginen dereiela ebatsien detxema ta primezia lealki pakatzen; dohaiñetzaz koi bada, bi eskiez hartzen dütiala. Aharren ta auzien xüxentzian inkari baizik eztiala ta bethi azken emanliari doala züzena, hitzemanak ere, batetan diala hütsa, bena anguru batek bezain jagoski diala Jinkoa othoitzen.

Esker beltza da jendian den arraoena zeliari ere hügüingiena, dialakoz borthitzaren Legiak irkaizten. Ezkiribü Sainiak dio haren kastigoa pare datekiala: Jeloskeriarenari bere zitharian zointan ezpeita oliorik, ezetare insentsik ixurten

eta eztekiakia ürrikalmendiaren oliorik m, inkaitzen eztegi(i)k, ezetare othoitzzen inzentsik Jinkoaren Errazitearen emaztegei(i)k. Ezteate düründa ekhaitz ta mendekin baizik, deusererek eztielarik bizio hügügarri hek, harek beno, gizona desohoratzen deusererek ere eztü aitaren semia Jinkoaren ta jendiaren eretzian bere gradotik itxuskiago eroreraziten; jende apalenetara zideperatürük dütü gerthaldiaz hek basa arima bat beno sordeitzten ta hantik heltzen den gaitzaz dago berme.

Nabukodonozorek khoroa izarren pare ziana, Jinkoaren mandhüz esker beltzaren gatik aberetürük, kabaleki bazkala zebilan. Balthazar'ek apairiaren gozomenian zian paretian, eskü batek ziala hareri akadoi espantagarria ezkiribüz jarten, ikhusi. Herode sarriez janik, Antiochus biziirik hirotürük. Absalon zühain bati zintzilika. Aman ürkhätürük. Neron bere eskütik hilik. Alexandre ardoan ithorik. Valerian Enperadorgoatik eska-belatürük. Bayazet kaiolan. Anastasa ekhaitzak jorik. Julian Apostata eskü ikhusezinez bere harmadaren erdian hilik. Meskabü hek güziak eskerbeltzaren gerthaldien gatik harrigarri diradianak,

dielakoz mündü hontan desohore ta berzian kas-
tigü.

Honki eginari zor zereio ordaria, diharü
perestatiari den bezala pakia, bi zor hek xahatü
eztütianak ohoin ta ganberotar da hiltzen Aito-
ren seme badira zer fama! zer gerthaldia! Ta zer
erran berze bizio, lür güziari hügün denaz, esker
beltzaren ahizpa bera —denaz bethi harzale,
sekülan emaile— holako arimaren, dianaren
erreljionia, pützü bat betha eztaitekina dü ega-
rria, deuserez itho e'laitekiana, begiz ikhusten
dütian güziak jaten dütianak ta jatiareki mengoa
zereiolarik emendatzen, sabela betherik, gosiak
lehereraziten diana ta arrapatzian bomitzera,
ifernurat doana. Nola deithüren düzie bidützen
halakoa; zizaiña, zekeiña, eskenaia, irritsa,
zekintarzüna edo lükürgoa ezi haiñbeste 1zen
dütian nola maredikü ta gaitzkotsü ber athian
beitütü. Zer ahalkia holako Kristianaren lagün
izaitia! Zer aitoren seme halako gerthaldia! Zer
bizitzia loan bekanki, gerlan iratzarria, sekülan
bakian. Irapaiz txar baten gatik ehün ohartze
kharatzik, onza eztiren (ordez?) mila libera

behatzün. Barneko bilhakak bethi arra hasten ta bethi honkeriak jauspetzia garhaitzen.

O! zü aitoren seme, zitiala jar peregriaren pare, bethi zü baizik eztüzüla, goga bethi zü baizik, zure eztela, düzünarenaz gozamina baizik eztüzüla, lürrian ja peregrin gisala izaitia ta zelian (zeruan) aizo dela zure egarria; santü batek dioana ta han dagoela, berthüde egiazkoa. Aberats ezpazirade, hanbat hobe, zure berthüdia dateke agerriago. Zure honki eginak aberatsarena beno dateke baliosago; haren soberania baizik eztialakoz emaiten, aldiz zük beharraz zirade pairatzen.

Egiazko noblezia da animaren xüxentarzüna, berzer egin zihauri nahi zünükiana, ez egin zuri etzünükiana, dirade sortizaren legiak, ta zelüko zürübietarik bata, Jinkoa, diharian diana, Jinkorik bage hilen dela gaitzüran dago eta zorthü honari aldiz fida eztena, gaitzaz ezta lotsa. Deusere eztügü mündian ützi behar eztügünik ta ardüra merezi eztianari doana; gaizki ere bildia bada, eskietan seguro hurtüren zereioana, berzeren gaiza arra ützü, zorrak pakha ta gerthaldi hoik emanik bihotztoiki ta kristianki agurrak botzki

mündiari erraitian, dago seme hüskaaldünaren
hiltzia, herio ere ederrena.

BEREZITA VII

Aitüretzaz

Arkanbela zaharrak dio «Ezegokia Jinkoaren palaziotik akhazatürik jin zela lürriarat egongia-
ren egitera. Bere ürüdia nahiz eragin erran zereioela pintaririk etzela hari atrebitüren zenik, zelakoz behin handi, gero txipi, behin lodi gero mehe, behin lerden gero makhür behin xuri gero beltz; azkenekoz bethi hegaltaz ta jagoitik geldirik. Alabadere denborari mintza ladin, langile handia zela ta gaiza güzietan erakusten zuena». Denborak ezegokiari begitartiala so eginik etz-
kialakoz non obra jar, ziala gizona arrimatürik egin.

Sorlakita da eder, geroztik ere gizonaren megopia mugida bethierekoan delarik dabila, itxasoaren pare gora beheratan, adarrik ez eta bazterrik eztü, nahiak dütü bethi bata berziaren jarraikian, bakian nahi dü gerla, gerlan aldiz bakia; lanian ütsartia, ütsartian lana.

Ezta gizonik ezegokia hügü eztianik. Alabade-
re, batere hari jarraik eztoanik, hanitz dirade zil-

har biziz büría betherik berritarzünaren hazkeri-
ñak bethi haztatzen dütienak ta igaranaz higüin-
dürík, jingeiaren egarriaz errerik, oren güziak
dütienak bederakutzen, salbü bere pausia behar
lükiana. batzütan doa üillü-farfailla bezala lilitik
liliala non dian ürrin hobenena iderenen. Berziak
arkanbilaren horaren pare die ahotik zathia
üzten nahiz handiagoa. Berziak sobera lo eginik
ohe mardo batian dirade inharrausten dütieno
akhidüräz loa arhatzaman. Berzek die haifí biziki
gaiza opakatu non axolik ezpeitie dütienian alk-
hantzatü, berziak bethi beha daude sekülan
jinen etzereienaren aidürü, hantik zerbaitetara
heltziaren neketzian arrazuak üsü dirade.

Lehena berthüdietara inhur hel ezpetaite
begien aitzinian ezpadü haitatü dianetarik bata
abiatü nahi denari: hala sarri eztena, arren dabi-
la erhoen gisala ta arrotz da bere sükhaltian;
gaiza güziak dütü erabilten ta deusere ez egiten;
hala dabila gizonaren megopia-bethi jauztekoz,
di4no herioak ükhüratu.

Bigerrena dügülakoz gaizak besarkatzen
jakin eztügüno, besoen artetik ezkapa daitekia-
nez ta hala zorthien gaitzari beitügü dagokitzen

gure faltari dagokitü behar günükiana; ezi egiteko haboronetan gertariak gure axoletarik dirade azertatzen. Edo biziki jarraiki bagez eztoatza batere edo gaizki ta parada doa sekülakoz galdürrik: hartakoz zoiñ nahi egitekok hirur gaiza dütü galtho, müga, lehia ta denbora. ezpadirade batetan hatzamaiten ta hetzaz baliatzen ezpazirade bathüren eztützüno auherki zirade ariren.

Hirurgerrena tieso ezkielakoz egon lothü giradian gaizari gure sorthüzko egokiaz jarraikian beikirade debeiatzen ta txit akabi lizatekian beitütügü egina ta egingeia üzten ta hüguiña edo gidarra arzkara urthukitzen.

Zuri niz aitoren semia mintzo, zuretzat edo berzerentako behar beno ardürago kargüdan diren jenden beharrian, ez deusere galtha leal eztenik ez etare egin dolü zekezünik, bena ürrhatsa zertan nahi ta noren nahi eretzian honki adratü dükezünian tieso izan zite bihoztoi ta egokide düzüno edo akadoitü edo okarroia alkantzatü. Etzirade, lehena ez etare azkena izanen, bena zure galthoa leal bada, ari zite khortezale zaharrak bezala. Ekhiko orlunda haren pare

doa hen ibiltia, dieno ükhen nahi zütienak — ürguillia berhez ezarririk— doatza bethi xüxen beren bidia, artzakiak, desazuak dütie, ezta bezala ireisten. Ekhaia ageri deno dabila daratüria bezala xilhatü diano bihotz gogorra ta ezagützia arhinago eziez lana gaitz ükhen beitü khorteza-liak.

Zure arima ofizio hortara plega ezpaladi egon zite jauregian handien zerbützietaz paira, zure poterean diradianak behardüner barreia, bena diozü nere ezarpiak legarretzaz thapatürik Jaun Intendantaren beharra die? Lagüntetzazü, erakuts züzenaren indarra, errazü zothukatüren etziradiala ekadoitü ezteno zure galthoa. Ez gal ozartia berzeren ari denak indar handia dü zerbütxiela denian enjogi ta bere egokidaz merexitü dian ohoriak dereio milatan emanen ordaria.

BEREZITA VIII

Esterratziaz

Qui nescit regnare, nescit dissimulare, dio rafraio zaharrak. Erreger baizik eztagoana ta orai jende megopia llabüren kapan dena. Mündü güzia ari delarik txarlatanen gisala pastoraletan mozorroa bethi begithartian nahi girade agertü, ezkiradianak ta ihuri ez aithortü nahi zer giradian, hala sinpleziatik ürhüntzen giradianogaiz-tokeriari girade hüillantzen ta mündia da haiñ borthizki halakatü non gizon xüxenak direlako zozo xuriak bezain bekhant beitütü jendiak argalen herrokan jarten ta lealki bizi egiazki ere mintzo direlako haurren herrokan jarten.

Bena halako eztirenak nor dirade? Bi bihotz ta bi mihi dütienak. Nola enganatüren ta bairatüren dütien arima xüxenak bethi gogoan, irudes-tia gaizetan ta elhetan sekülan egia, hipokresia da orotan hen gidal Jinkoaren ta jenden erezian hareki bizi, hiltzen ta ehorzten dirade, berze bizioak doatza herioa denian heltzen; bena hipokresia dago errhautsetan gaiñian mila ogen egin

badü, oberta demendrenaz uste dü hukitü dütia-
la ta santü baten fama diala lürrian ereiñ.

Ehünetan jendia enganatürik obra hartan
bethi zerbait berririk ikhertzen ari da, azkenekoz
bere büria ere enganatzen dialarik, uste dü bera
heno gizon prestiagorik eztela mündian, ta
mündü güziak daki nolako dian khinperra, kan-
potik xuri ta barnetik beltz diala soiñekoa: üdüri
da, etxe hanitzer latsünak xuri agerteraziten
dütiena ürhünetik ta lohiz direnak, khaparrak
argitzen dütien arbisker ta har txarrak diradia-
nak karakoillarren ta sagarroiaaren pare beretan
gordetzen direnak hüillantzen zereitzener; ozta
arrari üdüri ihon jargiarik, sabia üdüri ageri
bezain sarri selauzten.

Ahal lizatekia halako gizonan aitoren seme
hüskaldün bat ideren laitekian ta halako liskarrik
merexi lükiana, delakoz Egia haren eginbidiaren
argia? Gizon zaharrari bilhoak zütialakoz belztü
erran zereien etzianez uste herioak xuri zütiala
salhatüren? Zer ahalkia gizona enganari denian
probatia! auher lizate halako jenden thormentie-
tzaz aipatzia beldürraz dirian agert diradianak
bethi estalirik, bethi gorderik ta bethi berjakina-

reki edo konzientziarekila bilhakan daude. Ezpaz-
liz ere bizioen ta ohoariaren artian den gerla, hek
nahiz gorde hau nahiz agertü, dielarik bihotza
gaiez ta egünez zathizkatzen.

Ahalkia mündian datekiano dü arima izigarri
inharrausten. Neskatala Milesienak ez jakin zer
etsigoaz ziradialarik berak ürkhutzen ta lezetan
larrützen, zütienian pikarraitü hilak etsigoa zian
ahalkiak baratü, erakusteko dela ohoariaren
lagün ta ber dailliak düti ala ondolik muzten Sn
Augustinek dio «Jinkotze berthüdia da inhuren
jenden artian, heia zer den Jinkoaren eretzian!
Den aberats, dian potere nahi bezain beste,
gürrak dütüke aitzinetik mesprexia aldiz gibeletik;
herioaren ere oren bizi izan den beno mare-
dikü gehiago ta aitaren thonak semiak düti ala-
koz soñian ekarriren, non da aitoren seme fama,
halakoz ikhara eztagoena?».

BEREZITA IX

Denbora galdiaz

Elhe zahar bat honki heltzen da heben, dena ainharbaren eta zeta harraren elhestak. Ainharba gaxoa zen mingarki plainitzen, egünez eta gaiez, abaiñ egitian zütiala indarrak nekatzen ziano sabela hüsten ta ürhentü zianian bere obra ürrhezko telaren pare zagoena, neska txar batek erhatzez zereiola porrokatzen. Lan güzia hamar urthetan egin e'lirokiana. Ta halako zela aberatsen etxetan haren sorthü gaitza, etzialarik han üillü txar zonbait baizik hatzamaiten ta ogenik inhuri ez egiten.

Zeta harrak aldiz egiten zütian obra ederretzaz zen bera alabatzen. Herri ürrünetarik (ziolarik) jin erazirik naie, Errege bezala errekeitatzen: hik ezpadük üillü zonbait baizik hire teletan biribilkatzen, nik lürreko podendate güziak ditiat enetan etxekiten Bi lan hek die bi jende süerte seinalatzen, Egiaren ta banitatearentzat ari diradianak.

Gizonak lanarentako baizik ezta sortzen, ibiltzen hasi bezain sarri sartzen da mündian, langi-
liak bezala ofizio güziak ziraitekianak ber botikan
edo dendan; hartakoz dü gizon handi batek
erran gure sortzepena dela *gaitzondoa, bizitzia,
lana ta herioaren beharra*.

Pikarrai zen lehen gizona, larrüz estali zian
Jinkoak jakin lezan bizi zatekino lan franko zükia-
la; geroztik lana da gizon güzien legokia, haren
haituan dago, megopiaren lehen eginbidia ta
lothü denari tinko egoitia; ezi auherkeriari bide
emaiten dianak bizioz dü(tü) hütsartiak betha-
tzen, bizitze dolügarri bat dü herrestatzen ta
hala bere herio txarra ere egiten (obratzen).

Alabadere. Auherrak hirietan dabilta ün-
hüriak beren habian beno üsiago ta ardüra aitoren
semiak beren jauregietan eztirade perestiago,
halako dirade haboroenak, erdikoa dügü bazte-
rraren ta bazterrak erdikoaeren jarten, giziberiek
dereikie denbora jaten: mahainak, ohiak ta pau-
siak die beren orenak lanak aldiz batere.

Batak dio gaiza beharreenen errekeitiak
dereiola lan franko eskentzen; berziak osaga-
rriak dereioala phausia galtho; berziak diharü

ments diala, inhurek dio denbora behar leikiala, ez aithortzen, alabadere, gaiza güzietarik kharioena dela.

Filosofo batek erran dü deuseretan gizona denboraz beno eztela behardünago, hantik dü brobatzen, gaizarik eztela hain baliosik eziez denbora. Ezagützen eztianak, arren nola lakike, zer dian balio ta zer den haren gozomena, batzük nahi ükhen die denbora zela mündiaren arima, berzek zelia dela, berzek mündiaren mügida. Sn Agustinek aldiz dio, «dakiala ta ezta-kiala zer den denbora. Aski dakiala ixil egoiteko ta ez aski harez mintzatzeko» (aski mintza ahal dadin harez).

Halako megopia, garraren pare zenak, ezpa-dereizü azaltü denbora, nork azaltüren dereizü? ezkiribü Santiak dio denbora dela ühaitz handia- ren pare igaraiteko baizik laister emana ta laiste- rra igaraiteko. Bena nontik? Bahetik da igarai- ten, han deusere eztü üzten, hala girade güziak bizi gireno ari, ta gure denbora ontzi hartan iga- ranik, deusere eztügü begiratzen; haren küpera- ztia e'laite aiziaren ühatzia ta garraren pezatzia ; nekezago eztirade lan egin, egin eztaitekinak

dirade. Denbora igarana sekülakoz joan da, jin-geiak eztakigün oraikoa arrenda gure poterian dagoena Gaiza güziak dirade berritzen, salbü denbora galdia, jagoitik ezta edireiten, aberats-tarzün güziak dirade lasto, denbora da ürrhez eros eztaitekiana. Bizitze luze ükhen dianak den-bora hanitzez gozatü da, püntia da honki lothü zereionez, enplegü hon eman dereioanez ta harez zerbait egin dianez. Arrazo handia zian erraiten zianak, denbora feira bat zela, saltzaler eta erosle güzier zabalik zagoena bata ta berziaz nahira ahal lironak egin, zorthü hona lüze hanitz urthez.

Dolü handirik düke gaizki barreiatü dianak denbora; ezi dago hirur jende suerteren eskietan — gaizkia egiten dienetan, auher dagotzenetan ta deusere egiten eztiendetan. Erran nahi beita giziberiak barhianigaraiten dütiendetan. Güziek die bardin galtzen, nork bere maneran. Erran gintiroanak auher ezpalirade, zeren eta auherke-rian laket dena beita lanaren oihüetara gor. Domizian Enperadoreak ülliak puntzon batez zütian erhaiten, Hartabur errege Hirkanian zen sator hatzamaile; Bikantek Lidiako Erregeak ige-

lak zutian hamian atzamaiten, Aeropos-ek Make-
donian errege jinak zakian ixarki egiten.

Zonbat dirade mündian langile hetarik ta
zonbat berze ofizio gizonaren ahalkegarri direne-
tan denbora iragaiten dütienak; zer erran? Zer
egin? Zer uste die hil diradienian? Deusere balio
ziana sortzepenak? Emaztetan orozbat, beren
bizian galtza pare bat egin eztiendarik ta jokian
edo koaifüran bizia igaran diendarik zonbat
dirade mündian. Bego peredikazale errelijoniak
denporaren enplegü hona manhatzen dütianak;
heben ezkirade auherkeriaz baizik mintzo, oho-
riari ogen handia egiten dereiolakoz. Fama txar-
ra düke gizonak bere bizian deusere egin ezti-
nak; izan bedi aitoren semia, bere denboraz
zükian eman bere egitekoer behar diena, gozal-
dier ahalik gütiena: ihinzlari ofizioa dereio sor-
tzepenak detsaz jiten ta libürü honek bihotza
azkartzen, haurrik balin badü hen oikantzak
dereio bere denborari enplegü laidogarria ema-
nen ta beretik ütziren dereien aberastarzün han-
diak dü bere izena aospatüren.

BEREZITA X

Izterbegiak

Hirur kasta ornen dirade, jendien isterbegiaren ausikirik eztenik: kargüdantak, eskelegoan bizi diradianak, ta senhar-emazte gaitzak dütiënak.

Izterbegia da, infernia, gozomenik batere eziana ta gaiza güziek diena, megopiaren estiran jarten Han dago sü bat argirik eziana, bethi mina begietarik bihotzuala doana ta medikarik eziana, gar bat bethi erratzen dena ta sekülan hautsik egiten eziana. Dolore mingarrez janik akitzen eztena? Lana ütsarterik eziana, thormentü harrigarria ta dolürik ihurek eztereioana. Lürreko kharaztarzün güzien da bilgüra. Errabiaren boiltak orotan dütiënak. Bizi deno herioa itxurian diana ta bere minetzaz bizi dena. Zer erranen dügü haren zorthü gaitzaz habororik.

Egiazki ofizio güziek die gaiztokeria arma, bena iztergebia da berzeren gaintik hügüngarri ta nagozü jendiari izigarri dena. Udürri da taon ülliari aberiari egin dian kikan hiltzen dena, San-

tiek dereie izterbegieri izen parrasta bat: batak dü deitzen Satanaren lozarra, berziak arimaren theiüa, beazün khozütia, bizioen erroa, herioaren arma; Eliza aita güziek sü ta gar dereie, alabadere, ez aski erraiten, ezi delakoz Satanen bizioa hartakoz da lotsagarriago; dio Sn Augustinek dialakoz sabela, süge infernüko harek izterbegien kotsü maradikatiaz betherik, diala botzik gizonaren bihotzuala ixurten eta hala dereioala ixuri mündian den beltzena, han jarten.

Bekhatü heriotsü harez jo denak dü erakusten begithartian dela güzietarik beltzena, ezi dü larria holli, begiak ohil, bethi da himor gaitz, megopia gelkaitz,üdüri infernüko lezuala doala. Berze bizio güziek beren astaküriak dütie, bena isterbegi beltzak, gaitzuala baizik eztü borondadia. Ukhen eztiroana eztü nahi berzek dien. Uhaitzak, herrekak, üthürrü güziak agort litiro ahal baleza inhurek edan e'lezan nahiz ta jendia egarritz hil dadin.

Halako bi gizon apürren eskentü zereioan aberats batek batari diharü nahi zükiana, banaindian hartüren zian beno, behin haboro ziala haren lagünak ükhenen, harek gogoan iga-

ranik lagüna, bera beno zatekiala aberatsago nahiago izan zen pairatü. Berziak khexüz erran zereion eskentzaliari «nik dereizüt begi bat emaiten, banaindian biak lagünari dereiotzüla khentüren».

Zenbat halakorik dirade mündian, herioaz ere lotsarik e'lükienik ikhus baleze etsaia hiltzen: Gorgonen begiak, sügien hüstiek ta Bazilikaren soak eztirade pare khortezainen errabiaren, bere etsaia faboriaren hegaletan dianian ikhusten. Bena non eztü izterbegiak gizonak bata berzia bizirik janeraziten, non ezta horaren pare berziari arrapatü nahiz zathia, garra begietarik jauzten etzereioana? Kain-ek izterbegiz zian bere anaia erho. Geroztik ere etzian Jinkoaren begithartia ikhusi bena bai haren maredizionia ükhen; da Egiazki bizio hori harrigarri, hain apal ta itsusi non dianari zereio kastigua bethi jarraikiz: sorthü zereion bezain sarri dütü estira ürkhategia ta arrota bere begien eretzian bethi. Meskabü lotsagarrienak dirade hügünaren lehen frütiak. Bileisten gütü karidadiaz, dena Jinkoari gaiza laketena amorioak aldiz, beregana mündü güzia atheratzen diana dü ithotzen ta gizona otsoaren

pare saldoaren erdian jarten. «Nahi zereia —dio Sn Agustinek— batetan jakintsü, aberats ta doatsü, maitatzian zirade halako gerthüren».

Hügüngoari zorigaitz dereiküna eman eztaiteke ekhiaren egünkal hontarzün milionak zuretzat liriaiteke amorio bazünü. Eztüzülakoz batere berzeren gozomenian dago zure infernü ta bürdüin lantza da, bihotza erdiratzen dereizüna. Helas! hain gütik direia gure minak mündian nun behar dügün gehiago gure aurrhiden zorthuonian sordeitzten (ari). Lürra dohakabietzaz dago estalirik, nigarrez gure begiak gorritürik, bihotzak tximaltürik arimak kharrustatürik eta zauri hen merezia opatü behar günukianian sordeitzten dütü izterbegiak ta berririk sendo ezti-raitekinak eragiten.

Non da haren zorthü gaitza beno handiagorik bethi hüntza bezala bere zilhoan ezinez bere aurrhidian zorthü honaren argiari so egin, boilttürari pare arakei hirotiari bethi enjogi bethi bizia buskari sekülan berthüdiari agurrik. O! zer bizitzia, dio Santü handi batek, izterbegiaz mintzo deno — bere honkia berzeren gaitzaz egitia den, hen zorthü ona haren borreroa, hen omena

haren estira Kharaztarzüna bethi bihotzian azta-
par bürdüintsüak bethi bere erraietan ta sekülan
ezin urthik bere bizioa amoregatik hil eztadin
sekülan. Zonbait abantailla balü hartarik zerbait
lizateke, bena bethi doa izterbegia probetxütan
egin denari, hala hertü zen Jüsef anaiek saldü
zianian mithilgei ta Egipta güzian erregetü
zenian. Samuel orozbat khoroa Davidi jarri
zereionian, Konstantini ere Maiximin tiranak, ezi
galerazi nahiz zeielarik lazo güziak adelatzen
harmadako soldadoek zien bere etsaiaren trono-
an jarri. Hek dirade Jinkoaren obrak arakusteko
jendiari izterbegiaren kostüz dütiara senthagai-
llak egiten ta hitz bakotz bere pothere handia
diala brobatzen.

Isterbegitiak galtha beza isterbegiari, orai,
delakoz haren bizioa satanaren ta mingorrien
infernia, noiz dütian kharidatiaren bideskak har-
türen, noiz den berzia beno handiago edo abera-
tsago izaitiaren egarriaz nekatüren? Elhe zaha-
rreko idiari pare izan nahi dea bethi üztarrian
laborantzian edo organ zelakoz, isterbegi zereio-
an zaldi eder bat, zioalarik harek bezain honki ta
arhinzki trapa liroiara lürra, baliz honki endreza-

türrik: zerralkia, frenoa, hankesta ürrhezkoa zereien ezarri ta igaiñ, bena zelakoz idi, idien gisala zen maneatzan ta idi etzelakoz nahi arageiari zien igorri.

O isterbegia zure sortzepenan egonik, errazü mündü güziaren Langiliari «Jauna gaiza ezin erranak egin dütützüla, zure borondatiala ta ni hetarik nizalarik bata, khanbia e'naintekiana, jar nezazü gora edo behera, nizan xuri edo beltz, ilhez edo zetaz estalirik. Erradazü zertako naizün seiñapenetü hartan airen niz ahalik hobekiena nola ni bezalako lürrontzi txarra bühürt ahal laiteke bere Egiliari ostiko batez mündian diradianak porroka litiroanari. Isterbegi dianak merexi badü, egin dereiozü honkia eskernio düt zure akadoiari egiten ezpadü merexi zariona, egar ezpadiro dereiozüna bizkarrian ezarri ta honki ezpadü ekarri zuri dikezü zorra ta ez niri harez aipatzia». Ziek aldiz isterbegitsüak, mihi khozütiak ixilerazi nahi badützie berthüdiáz harma zitaie бүрүтик zankuetaradrano harez den zien khorpitza osoki estalirik. Ezta itzalik eztenian argirik ezetare Jinkoaren dohaiñik bere isterbegia eztianik. Khea ari da, diano garrak garhaitü

süia. Berthüdiak dükianian zure izena gaintü isterbegiak dantzarik eztüke min egin litzirokianik Ta zure famaren txilimistek ütsütüren die salgaitza. Argizagiak dü zonbait aldiz Ekhia argütsützen, bena ez hain osoki non eztereioan errespetü erakusten ta ederrago agererasitzen. Orozbat düte gaitzarek erranek zure laidoak hantüren zure pausia bere izarretzaz die segürtatüren ta haren erorpenaz zure khoroa tinkoago jarriren.

O zü aitoren seme hüskaldüna, zuretzat hek ezkiribatzen eztütüdanak, mesperetxa ezazü isterbegia, ezpazirade zühau apaltzen hari lekhü egitian —ene gain— dela baztertüren ta haren marrakak zankhopetan jarririk, dereizüla jende xüxenak bürían khoroa jarriren.

BEREZITA XI

Irritsaz ta zekiñanziaz

Handitarzünaren ta aberatstarzünaren ega-
rriak mündian jende erdiren dü nahasten bürüko
hüna ta galeraziten arima. Gizona da itxasoan
sartzen, han hainbeste lezer ezkapirik, hainbes-
te harroker jorik, erorten da eritarzüniala, güzia
nahiz ta güzia eginez sorthü denala, hek bardin
mediker arrabuhin dirade. Die hazteri bat han-
diek amaren sabeletik ekharri diana, hazkeriña
haiñ errabiatia non zeliaren lekian ezar nahi beli-
ro lürra. Da sü erbarratzatia aize bat zeha ezta-
tekina, leze bat ondarrik eztiana. Xühürak dio —
lürrenen erdia dela ideren itxasoan barnatarzüna
dela uki, Kaukasako harzuloak ikhertü diradiala,
Nilaren üthürri begietara jendia heltü, bena gizo-
naren bihotza dela zedarririk eztiana gizonaren
aierartetan ezta erhokeria hau txipiena, errabia-
ri pare da nekez sendo datekiana. Hypokratek
bildü nahi zükian mündüko dotor güziak medika-
ren irudizkatzeko, min harentzat haren landan
filosofoek bi mila ta berrehün urthez ari dirade

nahiz helgaitz khozütsü hau sendotü, bena güziak auherki dirade ari; gaitza sordeitzürük jendia da osoki desmoriala erori ta irritsaren aiziaz irritsaren thiniala bulkatürük, lezila erorteko baizik, hantik eztaiteke eraitsi gizonak bera zehatü nahiz eztaki bere bi besoek eztiela zortzi zehe lüzatarzün, alabadere eskü batez nahi lüke sortaldia uki ta berziaz sorthaitza, jakin ere nontik den Ekhia jaikiten ta non ohatzen. Aita heno nobliago dela Listez ofizio nobliagoa dü nahi egin ta dolü zereio den halako aita apalaren seme, arima dialarik apalago ta ürgüillia gorago bere aitzineken izenetzaz da ahalke hala tzapatzen dialarik bere gorotza südür güzietara sareraziten (bohatzen g.) dü haren ürrina.

Gora behera, esküiñ ta esker mündü hontan ikhusten dütügün güziek dereikie hümildatia diarizten. Izarrek gaiñetik argitzen gütienek, lürrak petik ehortziren gütianak, aiziak aide orotarik bizi girenaz, hurak lürra üngüratzen dianak, arimal güziek beren bürüstetzaz estaltzen gütienek, hirur mua eritarzünen üngürüniak, gure arimek beren zorthiaz arranküran hek güziek ezte-reikieia franko gizonaren apaltarzüna erakusten;

alabadere txitxarrigei dielarik izeiak bezain büria gora nahi dügü ta gaiza hek beno handiago giradiala sinhestian girade. Dügün har hegalta nahi bezain gora arranogei sorthü ezkielakoz, faltarik erortiak ezteikü eginen, bihotz sobera aizez hantü deno zapartatüren dela següro. Nork eztü ikhusten irritsari ta zekinantziari saldü denak arima herratiaren Kainen bizitzia dükiala besarkatü hala arradea (libertadia k.) delarik; gizonaren hon gehiena borreoaren mithil dügü jarten.

Halakatürik irritsutza ta zekiña galeretako arraunariek beno zorigaitza die latzago. Ezi hek bezala dien zankoak dütie bihotza zalhenatürik ta non etare beitie egarria handiago, jagoitik ürhün edatetik, estekan tinkoago bülhürtürik.

Arramüria da bere azotarera oitü egiten berziak aldiz bethi ohil, berer bethi ihesi, sekülan beren barnen nahiz orotan izan ihuretan ezta nonbait bereki denian mementoan dü errabiak inharrausten ta helgaitzak erretzen sordeitz da ere, bereki eztenian. Galeratarrak zilharrez dü erradea küperatzen, berzek aldiz ürrhez bürdüiñ kathenak erosten; botzkario zonbait dereio megopiari emaiten, berzek bethi bihotza harrez

ta garrez die borreükaturik, hen bihotza ürkhategilat jalki bezain sarri doa Satan adiskide izan zereionari lagün izaitera.

Zer bizitzia! ta zer heriotza! Kainen üdüria ezi Prokopek dio «Jinkoak bere aitzinetik zianian akhazatü lür güzian herratürik zabilala zelarik oldeki izigarriz bethi lagüntürik gartsü püñalak bihotziala jauzten zereitzolarik».

Irritzarria ta zekiñantza orozbat dirade Jinkoaren begietarik deslürратürik daude, dütielakoz haren ganik bihotzak baztertü (dio profetak) bidia argiz ülhüntürik ta Jinkoaren angüriak detzan jarraik Bidezaliari hel zereioan maredikü da harrigarriena. Begien ülhünpia zankoen bide kharrus(ta)tüaren lerradüarak, gibeletik akhületak, lezila erorte falta bagia —dirade bi bizio her aidürü— dagoetzan miñondoriak.

Zer dirade bi bizio hetara larrütü diradianak, sükarra bihotzian beroak ezetare hotzak pausürik eztereienak, alkhantzatzen badie opatü nahi ziena zorthü hon batetik bigerreniala igaranik daude errerik. Somatü ezpadütü hainbeste herio dü, non beren zorthia beno sordeitz ezpeitie ikhusten.

Heliogabal Enperadorearen botztarioa zen gizonak herrotetan hurian ützüleraziten hen gora beheretan, behin hurian gorderik, behin gaiñian ikhustian, zen laket. Ber jokian aru dirade handitarzünen ta aberatstarzünen egarriak eskerniatzen dütianak. Bena ardüra itzaletik argiala eztirade berriz hantik jalkiten, han errabia lagün daude ikhara dereieno herioak begiak thapatü.

Milatan aitoren semek e'lükia zorthia hobe aza lanthatzian, eziez ofizio arima nobliari doi eztenaren egitian. Zonbait illurier zonbat mespretxier, zonbat esperantza faltsier ezkapaz erazi e'liro, bere megopia hen estiraz porrokatüririk dagoeno, odeiak bezala hurtzen diradianak bihotza eiheraren azaliatik kanpo igor beza eskeletzera khortiala, ohorez ta diharüz khi diradianak, han die Petrarka famatiaren akadoia edirenen hau dena. «O irritsari gaxoa! dialarik nork berak lan franko bere egitekoen xüxentzian büztana, en idereiteko bahoia botzik berzerenen ikhertzera. Noretara oraiño? handienetara, non agrada e hintzate bethi maniala ezpahi(n)z ta non desgrada bahiz galtzurra beitükek següro.

Berzerena izan bezain sarri e hiz hiretako (hiretzat k.) bizi. Bizia berthüdia, segurantzza galdiak dütük osoki hiretzat. Handiek inhur eziee maite salbü güziak ütirik hen griñalden mithil jarten dena».

Dügün orai sokhaldi bat handitarzünari zer izerdi heriotza jende athiaren behatzia galtho erokier arrapostü emaitia. Egiteko, elhorriz jautzien thipiltzia. Nahiz handiangoari agurratü merexiari ükhatzian obren ordaria ta trükalerari emaitia, jakintsüa ürhüntzian. Zer nahi hel zejakinaren legoitzatzian, han dago handien ofizioa ützülpurdiaren diradianian beldürrian.

Bena erradazü lür güziaren jauna baliz halako, bürüzagigoak merexi lükia herioa lagüntüren dian geldarriak, mula hitz emanetan, mula esperantzatan agortütik ta ekonde batereetan egonik; bena handi hetan ehünetarik bata heltü bada, ofizio hortara zonbat dirade zathizka erori diradianak bidian.

Zonbat hogeitahamar, berrhogei urthe ofizio hartan igaranik mula xüxenkeria ta bi mula okherkeria eginik deusere bildü eztenik, salbü gaizenda bat bere thonbetan jarten dena ta

ardüra gezürra dioana (erraiten diana k.) ezi nekez ideren laite hirurehün azken urthetan bi handi hetarik fama egiazkoa merexitü dütianik.

Dügün handien herrokan jar Abimelech hiru-retanhamar bere anaien odola edanik emazte baten teilla khalditik hil zena; Semiramis bere semiaren amorioaz nekatürik, Coesar bere askaziez ta adiskidiez puiñelatürik, Pompeo ürrhez bere hiria ithorik, mündian ez lürrik haren obraren doia ükhen eztianaren herioa. Scipio Afrika irapazirik bere thonban *ingrata Patria nec ossa mea hababu*, halaber jarrerazi zian; Fuxodenes Ptolemeo Egiptako Erregiaren fabori bere bort-han ürkhatürik, berze bat Constantius enperadoraren fabori, lüma txar bat eman ez izenaren ezkiribüz ezarteko, herioa ükhen ziana ordari ta hainberze gerthaldi erreger hüillantü diradien-tan eztiradia?

Zer arrotak! zer jokiak! Zer gerthaldiak! Lege güziak mesperetxatzen dütienentzat handi gerth' ditian ber, dereikü Persiako errege batek lahardekaerazirik akadoi gasto bat ta kargia semiari emanik, zereioan aitaren larria jargian ezarri. Franko dirade holako jargietan honki lirai-

tekienak ta beldürrak ogoriak beno frenatzen dütienak.

Ikhasezazie! aitoren semiak mündüko handitarzünak eztütiela handi eginen her mespere-txietzaz zihaurriek ezpaziradie handitzen. Zien zorthü hona Alzionaren pare sabelpian dago. Gure sortzepenari do] diradianak, hobenenak diradiala, bena sekulan hantik zorthü hona eztiela ükhenen bazterrik ezta hartan; üngüra ezazie, nahi bezain beste, Skiron mendia zorthia ezpadüzie, lür loskanillala etziradie heltüren, ehün urthez lanian (ari) izanik ere.

BEREZITA XII

Aitzinekoaren jarraikia

Handitarzüna ta apalgoa hitz llabüretan dütü-gü heben jarriren. Dagotze honki erraner thopatzian, mündiren mespretxatzian ta heri gür egiatan, zelüaren opatzian ta lürrari itzeztatürük egoitian, berari amorio hanitz ükheitian, berari khinper (arrabuhin z.) izaitian, bakhiaren borondatian, gerla bethi buzkatzian bihotzian ber denboran, süia ta kharrua korokatxian, osagarri ta eritarzün, herioa ta bizia algarreki izkontzian..

Hekila manhüetan gogor zerbützian mardo, bethi kanpoan laisterkan ta bethi korralian lorik kanpo gogamenak ta loan pausürük batere, mündü güziari erthail bihotza ta beretzat osorik begira. Opa eztugüna ta dügüna mespretxa, dolürük inhuri ere ta arrazoa deith bekhanki berze bekhatiak burra ta begiak thapa egia. Meskabia heltü denian har aitzinantza; mina denian heriotsü sorga osagarriaren khostüz, hur gaziaz itho egarria ta sofre hurez hil süia. Gaitzian tieso izan ta honkian arhin, erhorekietan

erakuts astakürü ederrik. Fedia kharruaren pare ta segürtantza aiziaren doiala ükhen.

Hainberze Jinko nola fabori har ta inhuri ez izan leal. Begithartia mirailla bezain garbi, biho-tza onzaren larriaren pare, izkont aragitia eskelegoari, zekinantza eriandari mainatagoa bürüzagitzari, noblezia apaltarzünari, ürgüillia beharrari ta doluari izterbegia, federik bage hitzeman, errespetürük bage zin egin, arrazo bagetarik mehatxa, hurubil manhiak egin arrazorik bage hügünt, bide bagerik ibil, beratik kanpo bethi bizi, sobera bizi izanez bereki hetan dago Jaun handi haboroen bizipena.

Ingles batek, khortian zahartürük, bere etxerat ethorri zenak, zian adiskide bati ezkiribatzen han ikhusi ziala gehiago eziez infernian sarthü beitie arima herratiek, direlako lürreko, itxasoko ta ühaitzen meskabien gaitzüretan adiskide faltsier, ohoiñer, barurer, beillier, akhidürari ta berze erokerietarat enjogiago khortezaina delakoz izan hetarik.

Han (dio) diala ikhusi ogi ta ardu jan ez etare edan etzinantekianak begiak tinkatü bage, gaia iraganik ziradiala asegarri; diala ikhusi aitoren

semiak ezpata eskian nori zatekian etxola bat urdethegia balio etzenaren bürüzagi; ikhusi ziala jaun handirik pürga ürdaillian zamariz beharrez jaun Erregia jarraiki, berzerik ere, beren egongietarik kanpo ezarririk, kharrikan jarririk zautzenak.

Dügü ikhusi abokatü baten semia (ümen) aitoren seme zena, dialakoz esparber txar bat txori hatzamaile, konestable ta düke gertzen. Frantzian kozinako galopin baten arrasemia Marexal, düke ta printze, bena bederakala ezkin-tiro saldoak, bizia Khortian igaranik beren hona janik, zerbaitetara heltü ezinez, eskeletü diradianak. Printze handi batek zioan zorthü hona emazte hanitzer üdüri zela, gizon gaztiak baizik maite eztütiala, bena Khortekoak nahi dü zürtar-zün ta egokide jende gazten berthüdiak eztiradianak.

Han behar da oren harrigarririk igaran, gai thipilik heriotsü izerdiak txükatü, bizi eskelezki, eskernio iretsi. Laidatü behar lizatekiana mesperetxatü. Balakak ta gezürrak bethi ahoan erri egin bihotzak dioanian nigar, soiñetan ürrhez ta

zilharrez baliz ere jesanik soldatetzaz ez aipa, galdü eztianak nahi hen esparantza.

Khortia ezagütü zianak dio palazio bat dela ezin ederragoa, botxü thinian dagoela jarririk ta lezez üngüratüririk, zankhoz besoa ta khorpitz porrokatietzaz betherik diradianak bideskarik eztialakoz dela neke harat heltzia ürrhez diala bortha ta barnia izigarri eder.

Irritsa ta Zekeina harat gei (abiatüririk k.) zira-dian algarreki bidian jarri ta igaiteko lankhei franko zien ükhen, bena eztielakoz zer nahi latzik, batak ta berziak garhait elirokienik, azke-nekoz ziradiala Palazioala heltü, Zekeiñak ikhusi zian bezain sarri bortha aberatsa, han borthazai-ña zatekiala, gaiza güziak higatzen ziradiala, otsez zathi zonbait balima hartarik jinen zereioa-la inhor etziala sartzera ütziaren etzereion ürrhe peseta eman, ez etare zer oren zen erran berze bat e'lükiano ideki sakolatik ta hala zorthü hona llabür han zükiala.

Sarthü bezain sarri Irritsa, Esperantza emazte eder ta zaia kolore güziez egina bathü zereio-an ta eskütik loth aitzinatzi az enkaria egiten zereiolarik agertü zen Engania zerbützia ¿man

zianari Irritsa ta harek lankhei güzietan zian eza-
rri.

Lanak zianian nekatü Zahartarzünari zereion
eskentü hantik aitzina Ahalkiak zian arrapatü ta
bortxaz sarrerazi Errabiaren mithil, ordian zizün
güziak palaziotik kanpo urthiki, ez ürrhezko bort-
hatik bena atzületik; gizon zahar gaixoa zen
abiätü pikarrai, larria hori tximaltürük, eskü batez
Ahalkia estaltzen, berziaz lepa tinkatzen zialarik
eta bidian Dolia bathürük hareki nigarrez zen
hurtü. Haren lagünak zialakoz limakhaldüz bort-
ha zehe batez llabürtü merexia zian olhoak
ükhenik, leze barnenialat zien bizirik urthiki ta
otsoer janerazi.

BEREZITA XIII

Izkontziaz

Aspaldian erranik dago fede honaren adrak jarraiki balü(tü) jendiak izkontze sakramentia auher zatekiala, gizonaren ta emaztiaren artian hitz emanez angürien gisala beitziradien algarreki biziren, halako zen Jinkoaren borhondadia, lehen gizona zianian egin ta zereioanian emazia eman.

Peska Persian zen khozü berze herri güzietan lanthatü zenian ta früta maithagarria gerthü; khinper dago izkontzia, hatsarrian berak zian berthüde santienak bere izairiaz zianak, orai aldiz sakramentiaren indarrak behar dütü ta legetzaz arrimatürik, delakoz mündia galkidatü ta jendia gaistotü, hantik meskabiak ta desarau-diak lürra desohoratzen dütienak; ez izkontziazaren faltaz bena bai izkondien ogenaz.

Hantik orai izkontzia elhorri adarraren pare; ez jakin nontik hari loth aide güzietarik dialakoz txistatzen; Jonas-en untza da kanpotik berde ta hotz agerri, barnetik aldiz mengoaren harrek

dereie zaiñak abartzten. Da arabiako bipera txi-
piak dienetan habiak egiten, hartara doanak zer
dagoen pian eztakielarik daude ausikirik.

Izkontzia da nozpaiko ametsen isla edo ügar-
tia non loari ageri beitziradian gaiza ederrenak
ta kapa erori zenian gaiza harrigarrienak zerei-
tzoen ageri; dü itxaso khexiaren üdüria thenbes-
taren azotiaz mendiak bezain gora dianian
bagak urthukitzen, txilimistak, düründotsez ta
ekaizez bazter güziak ikhareraziten. ühaitzterrak
ontzi zatikez estaltzen ta heiagoraz airia betha-
tzen. Gütik бага següriala dirade bideatze harta-
ra heltzen diradianak ta hartan jarriz dolü etze-
reitzenik.

Erromeria da Izkontzia, hirur ostatü baizik
bidian eztiana, lehena deitzen da *plazer faltsia*,
bigerrena *garbaia* edo dolia, hirurgerrena *lazeria*
edo desesperazionea da batzen.

Haren meskabüetarik lehena da izan eta
menpeko edo esklabo jartea, hon izigarri hau ari-
mal güzietan, gozomena lehen dena, bai bakho-
tzak ehortzten diana. *Apostoliak dio emaztiak
bere korpitzian eztü potererik, dago gizonian, ta*

harek eztiro beriaz nahi diana delakoz emaztiaren poterian. Irapaiziak balio dia galdü diana?

Zorthü gaitza lizate arhinago ezagün baleza gizonak nori jarri dian eman bere arradia, lezan pürü erran bürüzagisa hon baten esklabo dela jarri ta zü andere gaztia ürzo xuriaren paria, esparberaren aztaDarretan jarten zütiena, zelarik lehen axuria bezain mantzo orain jok hazale, bere ohil, zikiñ, lankhaitzian ta hordikerian dagoena; zü aldiz gizon gaztia, hainberze ürrhats eginik nahiz angürü bat emaztegei ediren, düzü süge bat sü ta gar bomitzen dütiana. S. Jeromek dio idia ta astoa probatzen diradiala erosi beno lehen bena emaztiak, beren bizipenaz ta himorraz ezagütze bagerik diradiala hartzen.

Hogei urthez aita-amek haren dotiaren biltzeko beharraz pairatü diradianian sühiak dü lehen urthian agoreraziten osorik ere etxia thipiltzen ta eskelegoa haur jingeier adelatzen. O! andere ejerra izkontzeko botoek merexi ziena senhar halakoa ta etzatekina hobe konbentian egoitia.

Galerako kathenetan diradianak zonbat urthez kadenak dütien herrestatüren dakie; bena

senhar emaztek dütiela beriak sekülakoz ta herioak baizik eztetziakala ürre ere dakie.

Erradazü süia ta hura batzen diradianian, gizon xühürre emazte erhoarekila edo emazte perestia gizon gaistoareki. Zer lantze hartarik diradian gertüren? S. Augustinek dereiküna erraiten, haren denboran ohoiñ kasta bat zela jende biziak hiler estekatürrik hileraziten zütiela, gosiaz, egarriaz ta ürren gaitzaz nekatürrik halako da senharren edo emaztiaren bizitzia erran dügün kasian diradianian.

Gaitzonde hau baliroe egar Jinkoarentzat khoroa ederra Mie zelian? Berze betüste zonbait dezagün berhez: edertarzünak dü jeloskeria lagün, itsustarzünak hügüntza, aberats bietarik bata da handios Ezkitiala haur ükheitiaz mintza, lüzegi lizate akadoia, bena dügün zerbait aipa izkontziaren goberniaz.

Sobera ogen egin giniro emaztea, gizon haboroen erranetan fede baginande Ezpelirade baizik gizon güzien amak ta ün hüdiak, mereximentü franko lükie bena dielakoz bihotza gizonnek heno hobe, honki egitean enjogiago ta obra honetaz koiago hantik ere flakezietan dirade

gizonak heno barkhagarriago. Diela berthüdiak ta bizioak gizonen beno handiago diozü? Bai halako ageri dirade, diradelakoz bekhantago, bena heentzat ehün dirade gizonetan harrigarriagorik gerthaldi eman giniroenezaz egin laiteke libürü hand, bat kondaira güziak diradialakoz hetzaz betherik bena gitian loth Ezkiribü Saintiari.

«Dio Jinkoak lo zagoela Adam, saihetsetik zereiola Eva emaztegei khentü (Genesak kap. 2) Dio Jinkoak ziala emaztia ekidatü».

Beita hau thermañia etxiaren zolatik thiniala denian berririk egiten ta eztena Adamen lankheian. Zeren banaite hori? Deia erraiteko emaztiak lan gehiago zereiola eman Jinkoari eziez gizonak ta hantik ere gizonak beno hogeietan emaztiak behar diala bere büriaren sagarroitze-ko?

Sn Augustinek dio Sügiaren lehen eskoliera zela lehen emaztia bekhätüen bortha erradüen üthürriata santütärzunaren ardoilla, hantik dioe

zela lehen emaztia Jinkoaren eretzian ezagütze bagerik, senharrari traidore, bere kastaren erhaile, ziala Satani zübü bat egin ta bere bihotzian jarri ziala Jinkoak inferniaren zolan kokatü ziana hantik Lothen alhaba Thamarak, Athaliak, Isabelak, Helenak ta berze hanitz zethabian igaraiten dütienak. Bena hartarik ezprotxu, haborizik eziez Alexandreren ta Caesaren arakezetarik, eztago.

Bada 5767 urtheren üngürían lehen bekhatü harez akogatürík, dügüla gure dohakabia herrestatzen. Ezta aita, ez etare ama xühürrik bere haurrer eginbidia erakutsi eztereienik; alabadere giradia hobetü? Poteria auher izan da, peredikiak auherrago; Salomonen zühürtarzüna dügü ahatze, Daviden psalmietzaz khantorez baizik eztügü jarraikiten. Emaztek die Elia kataraitü Baptistari büria pikaerazi Emaztetarik sorthü zen, gizon handienaren büria jokian dantzari baten eskietan apairü baten botztaroa zen gerthü.

Nor zen sakrilegio haren langilia galthatü ziana edo eragin ziana? hau düda bagetarik doa, zeren eta manhatü ezpalü ezpeitzen zorgaitza heltüren.

BEREZITA XIV

Azkenaren jarraikia

Izkontzien zorthü gaitza balago bethi emaztetan, düdarik ezta güziek lükiela, izkontzerik eztelakoz emazterik bage; bena ageri delakoz egünkal izkontze honik badela, dügün aithor emazter eztaukiela sorthitza galkidikaretik jiten zereitzün minak.

Ezkiribü Santiak dereio emazte gaistoer hainbeste borrau ta honer laidore haiñbeste non hek barratzen beidütie lehenek. Dio emaztia dela lanpada Khandeler Santian dagoena. Ama Berjinaz zer eztü erraiten zühürak bere adagioetan dio, ontzi bat dela ürhünetik pria probiandiaz kargatia, erran nahi beita hainbeste berthüde diala ekharten eziez ontzi batek merkhadera. Halakoen ama lehena zen Lürraren paradüsian sorthü, hek aldiz othoitziak dütie borthan egiten.

Jinkoaren herioak lür güzia zianian ikharatü, zelia ere ülhüntü, emaztek zien lagüntü; ziradiarik apostoliak ihesi, gardiak larrapoka espantatürük ihesi, hek aldiz belhariko nigarrez ta haspe-

renez nekatürük deuserrez lotsarik, bena jinkoa-
ren herioaz harritürük ta bihotza erdiratürük dolüz
ladin, bere haurrentzat mündüko aita hil kürü-
txian, ziradian berak erdi hilik. Geroztik zer zer-
bütxü ezte Elizari emazteiek egin. Zenbat dierri
zeliaren bidian ezte jarri. Batek zian Absalon
Dauden grazian ezarri hainbeste haur erhogei
ziradian egünian, Ester neskato batek bere elhe
eztietzaz baratü zianian arakei harrigarria Bertze
batek herria galtzera zoalarik bi hitzez bere
seme Coriolan-ari etsaien kapitanari gibel eragin
ta herria salbatü. So egizü Judithi, haiñ indartsü
nola bihoztoi, Holophernari büria mozten ta
haren harmada güzia porrokatzen. Nahi badüzü
berriagorik artzaintsa bat Frantzian Jeanne d'Arc
deitzen zena Englesen harmadak zathizkatü
dütiana.

Bena jin gitian hizkontzetara ta dezagün ait-
hor haboroenak diradiala okher gertzen, dütiela-
koz zekiñantzak egin: emaztegeiak, ez zonbat
balio dian, bena zonbat diharü pezü den, girade
arranküran; halarik ogen dügü erraitezbür-
düintsü ehüntzian giradiala, girelakoan ürrheko-
an ta zilharrekoan lepoaladrano ehortzirik. Noz-

pait bospasei urtheren amorioak zian izkontzia egiten ta adiskoaren zaiñak egiten; orai ikhusi ta mintzatü bagetarik izkont-geiak dirade izkontzen Prima ezpada, anderegeia, izanik ere Venus bezaiñ eder, Minervaren iraziak, Dianaren noblezia, sorik inhurk eztereio eginen.

Hantik izkontziak eztü izena baizik ta egiazkoa da gerthü: saltzen dirade alhabak ahalik merkeena ta semiak ahalik karioena. Nozpait etxeko alhabek soiñekoak baizik etxerik etzütien eramaten, senharrek zütien dotatzen. Xinan aita amek dütie alhabak saltzen ta hetarik diharü hanitz biltzen; gure herrian aldiz neskatilek dütie senhargaiak erosten, hala dirade etxiak bi alde-tarik eskeletzen. Xinan, delarik neskatila athia etxiaren aberatstarzüna, Frantzian da eskelegoa, zor eginez baizik eztirelakoz etxeko alhabak kanporat ezarten: hala ere, hainbeste zor etxen sartzen, nola emaztegei beitirade hantik jalkiten.

Nontik hainbeste zorigaitzek gütie akogatzten, güzitakoak dena infernia beno ase ezinago ezi handienetarik txipietaradrano dütü arima güziak bihurtü. Nahi düzia jakin zergatik? Zikiñ-tarzüna delakoz izkontzietan sarthü? Zeren eta

banidadia ta ürgüillia ezteietan Errege ta Erregi-ña direlako jarri. Harrigarri da zonbat erhoke-riak dütian büriak ützülipurditü. Diamantez ta ürrhez dirade estalirik nobiak, noizpait koton soi-ñekoeki ta ürrhezko kürützia lepoan ederki zira-dianian noblezian, gizonak arauiala. Orai labora-rietan zeta behar dü zerbaitetan agertü andere-geian, jaungeian aldiz oihal ederrena. Nozpait beren kabalenena etxen ürünik eüliak zian egi-ten ta urdin kolore zen dindatzen; orai nekez die laman hetarik jaunsten.

O! zer gustagia jendia eztenian nahi dena: zurezko zankhoari zetazko galtza dü jaunsten, oskia hoiñik eztianari, zilharrezko ebilla ezarten ükharaiari, larrü xuriz eskia ta batere hetarik ithegün lür edo zor zonbait bizkarrian ekharten eztianik.

Bena nun da gehita hau handiago, eziez jende egiteko egitetan deitzen direnetan, bihurt baladi hen soiñekoa, oihal bustiak dian bezala hura, laite hantik thurrusta eskelen odola.

Zorigaitza gehitiaz da egünkal handitü ta lan-hoa bezala menditik ordokiala eraitsi. Jendia ütsütü ta aberatstarzünaren üdüriak dü eskele-

tü, hantik etxiak zathizka erorten, dotiak ezteietan janik, izkontziak bekhant ta okher gertzen, aitak bethi tahernetan. amak dolorez etxen tximaltzen, haurrak pikarrai gosez hiltzen. S. Paulak halako Etxeko Jaunak otso gizona beno apalago ta basa arimalaren pare dütü jarten.

Izkontze halako meskabü bagiak düke, berzerik-ezpadirade, izkontziak ber suertetik ta adintsü; bürütsü direlakoz emaztiak, zioan gizon batek, «hezürretik egin zenak, bürdüintsü behar ziala büria». Emazte halakoak dianian senharra arrabuhin aharrak düke ber azantza marteliak ükhüdian diana, deusere bien artian, ber hirotsak ta ber protxiak daude. jeloskeria deia astakürü bi bürü daude nahasirik. Ekhia ülhünpe da etxen, ülhüna aldiz Ekhi, hantik sospetxiak gertzen, Egiak, ohoriak dialakoz nekez iraiñak ozarten, hantik iraiñak, elhe txarrak aizoan ta erriak bazterretan üsü.

Famari ogen egin zereionian Egiak eztü beraz axolik ta honkia denian gaitzaren lekhian gaitz guzietara girade lerratzen, milatan hobe lizateke ehün gaizki ixiltzia edo honkietzaz erraitia, eziez ogen bage bakhoitzaz gaizki ustia.

Zü aita ta zü ama, zier niz mintzo Eztaziela zien haurrak amorio eztienetara izkont. Sorthü gaitza zientzat lizatekiana beren, dükie jarraiki badie beren gozoa, begotze izairiari bere züzenak. Zikiñantzak egin badü izkontzia konkaitz dereio jarria damnia, delakoz amorio bagerik; egina dago izkontzea amorio bagerik, amorio sorthü etzenaren izkontzia eztaite amorioaren ünñüde, lehenago amaizün.

Bizia bezain lüze den iguiñan, hartara doanak, dü haitoan züzen zerbait, hartakoz bortxatzia ezta odolgarriago eziez zakian bi gathü etsai ezartia. Maitiako badü neskatilak, aita amak heno, senharra, har beza nahi diana, ezpadü nahi eskentzen zereioana ta beldürrez amorioaren herioak neka eztezan izkontzegeiarena, har beza nahi diana.

BEREZITA XV

Aita amen eginbidiaz

Dügün jar Jinkoak diala beredikatü izkontze bere borhondatiala egina zena, ta haurrak hantik nahi bezalako diradiala sorthü. Dügün ikhus orai zertan dagoan hentzat, haien eginbidia. Gaiza sinhets eztaiana, alabadere egia dena, dago hontan aita amak zordünago diradiala, eziez haurrak beren aita amareki. Jinkoaren legen erakiroanian dagoena, da menpetiago eziez ezagütze hetarik eztiana. Othian zer dereie zor haurrak beren aita amer, eziez bizia hetarik Men diena, ta ützül etzerekeiena bena bai errespetü hümilena ta beharrian diradianian zokhorri ahalenak.

Aita aldiz haurrai sorthü den bezain sarri dereio zor hazkürria ta azkontzia potere dianaren doiala. Legantza bagerik hütsik egin e'liro bi artikülü her, ezpada izan nahi bere haurraren erhaile ta haren bizio güzien langile.

Batian ta berzian Jinkoaren ta izairiaren legier da bihürtzen ta basa arimaler sordeitz jarten; hek dielakoz beren hümiak bazkatzen ta dakiena

erakhasen, frütü güziek die hazkürria ta gozoa
hontü diradianian beren zühaiñetarik, axuriak
bere amatik diana, ehünen artian beria ezagütü-
ren. Arranoak bizkarrian, dütie hümiak jarten
hegaltan diradiano azkartü. Sügia süiala da jau-
ziren arrautziak urthuki badereitze hartara. Peli-
kanak txistatzen dü (ümen) bere bulharra, bere
odoletik hümer emateko.

Zer kastatik zirade zü aita, zeren lürrak zütü
egarten zure haurrari ükhatzen badozü behar
dütienak ta zokhorri beharrak, azkontza gizon
perestiaren bidian jar lirokiana ta Jinkoari zor
dereioan amorioak ezagütürrik, borreoaren eskie-
tara falta bagerik eroriren dina.

Dükezünian bilhoak xuri, itxuria tximaltü, adi-
nak bizkarra makhürtü, zankoak txordonpa(tü)
besoak ikhara(tü), ürrhatsak herresta(tü) hau-
rrer errekeitürrik ezpadüzü eman, zer amorio
dükezü hetarik merexi, amorio zütarik eztienian
ükhen bizirik ta hilik bürhau baizik eztüzü segü-
ro entzünen.

Zü aldiz berze aita, honki düzüla hazi ta erre-
keitatü semia, diozü; bena zer azkürri eman
dereiozü haren arimari, zer gerthaldi gizon

perestü bat bihotzian jarri ta nola dereiozü berdüdiaren bide xüxena arakhutsi.

Eta zü ama haurra düzünian eznatü, troxatü ta bere khüiñan xurdunpatu, ürrhats zonbatetara atrebitü hitz ere apür bat aipaerazi, uste düzia, düzüla zure eginbidia bethe? Ezetz erraiten dereizüt. Entzünen zütianian haurrak erran ezakozü «*Begi, mihi, beso ta zankho horik bada-kieia nok erabilten dütian? Arima dük. Arima dük Jinkoaren dohaiña bapteiaz ükhen diana ta odolian dagoena, odola denian agortü edo ükhatü arima doala Jinkoak manhatü dian lekhiala boztaroa, ügürükia edo süiak ügürükitzen dianila*». Gaiza hek erranez ta arra erranez dütükezünian haren bürían kokatü, haurra jar gorotz athian gaifien eta erran «*Hau dük gorotza, gaiza güzien hiroa, hi ta ni halakotüren girenak. Ikhusten düka zelia, ekhia güziak dütük Jinkoa hire arimaren emailia, güziak dütük hartan ta bera dük güzia. Lürra dük ezkaratza, zelia khanbera, ekhia sükhaltia. khanbera dük ohez, jende perestientzat betherik, berziak aldiz süiala egotsirik sekülakoz dütük erretzen. Ekhi haren barnian, sekülan eztielarik Jinko huna ikhusten*». Hori dateke

haurraren lehen katexisma: honki jinkoareki bizitzia, bigerrena ta aitaren gerthaldiez lanari amorio ekhartia, hirurgerrera:

— haurra erori denian, ama laister marrakara doa. *Zerek min deiek egin?* Harri horrek, berze harri batez dü amak joiten diolarik, *ene haurrari min egin dereiok, eztereiook berriz eginen:* haurra da ohiltzen diolarik mendika ikhasten.

— Ama zühurak zükianian haurra xütitü litzi-
rioan erran. Egon bahintz geldirik e *hintzan harriari eskernio egitera joanen, barkhamendü galtha ezok, min egin dereionez hitzeman hebentik aitzina pausian dükala ütziren ta bakia-
rentzat egiok pota.*

Haurrak ezta gaiza batetik nahi, amak laister berzetik dereio eskentzen. Eztirade haurrak hala altxatzen, ezpadütüzü mani osorik galdürük ikhusi. Errakozü «*Ehiza gose, bego izanen izaneko*». Hatsarriari bürü emazü, ama, berant, auher dateke, «*Principio obsta sero medicina paratur*». Haurra bethi dantzaerazi dena nekez jarririk dago, gizon datekenean bethi txostakerietan izan denaz nekezago dateke egitekoer enjogi. Arima giziberietzaz gazteroan hersatürük dena,

sekülan ezta zabaltzen haurtarzüna jarrikiz bilho xuriak dütü atzamaiten ta haurki da hiltzen.

Salomonek dio zazpigerren proberbioan «*haurrik balindadük, haurzarotik ikhasetzak ta errekeita honki*». Gaiza harrigarria da Jaun handiak, dialarik koziner, baratzezaiñ, zamalzaiñ ta lekhaio haren egarian, eztakian nolako dian kolejioan haurrak bere errejenta hon edo gasto denez, mantso edo ohil. Ardier da emaiten artzaiñ perestia, kabaler ülhaiña ta hurren ofizioan hitzik eztakian haurzaiña ardüra, hala dirade haurrak arresak bezala errekeitian otsoari emaiten.

Aita amek gogo eman beze, hurren bizioetzaz diradiala berme, bizian ta herioan orozbat. Dereiela thonban erranen «*zeren holako bipera dereiküzie eman semian, zihaturen haiñbeste min eginik mündia eskerniatü diana*». Erelijonia ezagütü balü ta zerbait berzerik ikhasi halako izanen etzena, ezi hatsarretik bihotzian jarri dena gerozkoak nekez dü itzaltzen. Eginpe honak etxiak eztanian llabürzki edo berant da eroriren, orozbat gizona haurzaroan deslaidatü izan bada; haritza denian handitü, da lehenago

hautseren eziez beita plegatüren. Berthüdiak goizik bihotzian sarthü ezpadirade, bizioek bethatzen dütie lekhü hutsak ta jagoitik hantik ezdirade zothükutzen.

Gütik dirade aita amak bere haurretan ütsü ezdiradianak; eztü nahi, erran dereitzen aizoeak dakienak ta inhuri eztie erraiten beren bihotzminak, izerdiak milatan xukatürrik. Aberats üzteko semiak dirade hiltzen, harek begi batez nigarrez, berzetik erriz llabürzki dü hen thonbetara heleraziten bere deslotsa. Jinkoak begira, mina ürrhünago eztagoan ta semiak aitari erran eztezon haren faltaz dela gizon gaizto gerthü.

Nozpaiko heremita baten bizipenean dügü ikhusten, bizi zelarik botxü baten harzüloan, agertü zereitzola aita ta anaia aspaldian hil ziradianak, zioelarik heremitari, herratürrik geroztik zabilzala ta algarreki aharran; behatü behar zütiala ta arrazo zianarentzat Jinkoa othoitü, leitzon barkha bere bekhatiak, hantik ziradiala erautsi, zioelarik semiak aitari *«egiazki zela hon handi bat bizi izan bena galerazi zereiola aitak arima zereiolakoz ützi gaizki bildia»*, aitak bere aldetik zioan semeari *«zian amorioak zereiola*

aberats gerth ladin, porroka erazi bizia arima ta khorpitzta ta hantik zela haren herioaren izan langilia».

O alta! O ama! ogi azia jaten eztüzienak, nahiz bildü haurren aberasteko doia, nork erran dereizie ezagütze dereikeziela oren laurden batena; nor berme dateke hainbeste lanez ta errekeitüz üzten dioziena eztiala laisterrago barreiatüren eziez beitüzie bildü ta senthagailla datekiala ari deno, zietzaz trüfatzen ezpada.

Gerthaldirik ezta balima ere ez etare izanen barreiazaliaren semiak bortxaz izanik biltzale eztian ükhen seme barreiazalia Gutik ere dirade gerthaldiak gizon gazte aberats sorthiak irretsa bagerik, gizon perestia den gerthü, ezi halako dirade güziak, alta ta ama aberats uste dütienek, hargatik ere dügü ardüra ikhusten etxeko semiak primiak beno baliosago diradiala, dakielakoz behar dükiela beren ogia irapaizi.

Alta amen gertháldiak hanitzez barnago haurren bihotzian dirade eziez errejentaren elhiak ezpeitirade sartzen. Hurrek, nekez oraiño ibiltzen direnek ikhusten ta entzüten dütienetarik deusere ez tie galtzen. Emezie arren gerthaldi

honik hetzaz balia ditian, arrazoa heltü daiteke-
nian. Arima hek dirade alta amen itzala ta azan-
tza odoletik die alta amen üdüri izaitez egarria,
hantik berthüdiak edo bizioak, honak bezala pri-
müeresten ta guruskuiatzen dirade etxen.

Bi urtetako haurrak hamabitakoaren ber
errespetiak, ber errekeitiak behar dütü. Liliaren
pare lanthan dago zabaltzen deno, harrek zauri-
tzen badie obena düke bizi deno. Hitz bakhoi-
tzian aita amak dirade beren haurren miraila,
harat bethi soz daude, arren gogo eman beze
deusere gaitzik edo okherrik ikhus eztezen,
zeren eta ber gaizak beitütie eginen. Lana malte
badie orozbat dirateke haurrak. Amak ürüten
dian haria haillikaerazi beza haurrari, amorega-
tik den txostakarian ere langile ezi aspaldian da
errana, auherkeria dela bizio güzien ama.

Charlemagne enperado're izan denetarik
handienak, haurrak zütian lan güzietara jarten
semiak harmadan soldado ziradiano, alhabak
josten ta ürüten ari ziradian. Den bezala labora-
riaren semeren ofizio goldenabarrena, orozbat
aitorensemiarena da ezpata. Delarik bata hazkü-
rrü emailia, berzia da herriaren esküdataria,

batek ere ez tie aberatstarzünaren beharrik egiazko aberatstarzüna dago nor bere suertian, gizon perestü izaitian bena biltze egarria jinez geroztik okhertü dirade beren eginbideetarik biak.

Dotiak nahi dü tie izkontzetan handi ta hurtzen dirade elhürra bezala; haurrik ezpada jiten ta anderia hiltzen dotia behar da ützüli, etxaltiarri behar zathi handi bat ebaki, osorik egonen zena, doterik hara ezpaliz sarthü. Nozpait berrogeitahamar luis arranta ziana aberatsen herrokan zagoan. Gure Errege jaunen andere alhabak sei mila luis zien dote, halako bat Paueko prodüradoriak e'lüke nahi. Giradia aitzinekoak beno aberatsago? Ez bena bai eskeliago ta ürgüillin hantürik, girade harrez següro zapartatüren.

O aita ta ama ezpadakizie Elia Apez Handiaren bizipena. Galthaezazie erran deizazien gertaldi harrigarriagorik. Eztükezie aitetan haurrer errekeitü bagian ikusiren ta düzie ordian sinhe-tsiren Jinkoak eztereielä sekülan bekhadü hori barkhatüren zeren eta Ja beren haurren erhaile beitütü akadoitüko.

BEREZITA XVI

Haurren eginbidiaz aita amen eretzian

Semia, bere aitari zor dianetik gibeltzen dena, dügü erran Jinkoak bere aitzinetik urthiki diana dela, izariaren etsaia ta jendiaren desohoria dela mündian. Ibarretik üthürrü begiala bezala igaiten den arraiña orozbat doa aita amer haurren amorioa, hori Izariaren legetan dago ezi dian bezala argiak ekhia aitzinatzen ta jarraikitzen, den bezala ere odeiek itxasoan hura hürrüpatzen ta lürrila ixurten; orozbat lehoa eri edo — zahartü denian, dabilta hümiak harentzat bazka buzkatzen. Arranok eta berze txori güziek dütie bazkatzen, daudenak korokan edo eri habian.

Albret handiak dio bere ihizlariak oihen handi batetan ari ziradialarik mirotz edo falkon hatzaman nahiz, bat ikhususirik adar bati loth, zotükatzeten etzena hüillentü zereitzela ta borogatü zela ütsü, flakü ta zahar izigarri, jakin nahiz nola zen hazitzen gorde ziradiala ta berze zonbaiten aidürü zirelarik heltü ziradiala biga batetan, batak

zialarik arakei zathi bat aztaparretan taxehekatzen zutinak zaharraren moskoan zatizka sareraziten, hantik düdarik egin etziela hümiak ziela aita edo aitasoa bazkatzen. Badeia, arren, azkonde edo apostazia handiagorik jendiaren legetan, eziez haurrak bere aita amer zahartazünian zokhorri beharrak ükhatzen dereitzenian. Zer da, alabadere, mündian laidogarriagorrik haurren ofizioa aita amer dena heno. Pers(i)ako kondairan ikhusten dügü haurrek aita amen hautsak, beren khorpitzian plaga eginik, zütiela barren jarten ta larrian josten. Zonbat dirade gure artian hirotü eztireno, ahatze dütienetarik bere-nak?

Tertulian-ek dio Lazedemonek deusere etziela resolbitzen aiten thonbetan jarririk baizik, hen obiak jakile izan zaitian, deusere gaitzik etziela nahi egin. Herodotek ere dio Izedon-ek, Skythiako jende ziradianak bere aiten büriak ürrhez zütiela distira-eraziten ta beren Jinkoer bezainbeste errespetü ekharten; Damaskenek ere dereikü erraiten bizidünek apairürik etziela hartzen non etzien bizitziaren premisa, bizia eman zereieneri eskentü. Platon, filosofo handi horrek

ber gaiza dio. Solon, lege egile handienak zioan aita ta amaen erhailientzat etziala batere eginen, etzelakoz izakin halako lardaskia hil dadin bere herrian.

Sei ehün urthez Erruman holako lardaskirik etzela ikhusi aizo batek zianian erho bere aita legerik etzelakoz, egin zien bat: zakü batetan ximino batez, oillar batez ta bipera batez lagüntürik hurrilat urthukiren. Eztait hari üdüri eztenez aita behardüna ützi diana ta ahatze. Aristotek zer dio jinkoer ta aita amer errespetüari hüts egi ten dianaren, elhiak auher diradiala, gaizondo laitzalerrak behar zereitzola.

Egiazki Jinko onaren landan nor dütügü begien aitzinian ezpadütügü gure aita amak, zelüko ta lürreko ta jender lege güziek dereikie manhatzen, amorio hori bihotz hirotienak ükha e'lirokiana, arimal basaener diena maite ta maite lükienek, gure aita ta ama balin balekie zonbat hontarzünez akogatü gütien. baliz ere aita gaisto, hire aita dük, zor dereiok bizia ta bizi hizano dük hire aita izanen. Ogen egin dereika? Mendika Jinkoaren esküpetan diagok eta ez hirenetan. Ezteroken mardo bihotza, errak holako

dela dena, izairiari arrabuhin dela. inharrausi nahi hinkiala amaren sabeletik diok üztarria? Lege bagetarik arren, bizi errak hizanez hi nahian?

Aita amak ohora etzak bizi hadin lüzaz, dio manhiak, bizitze hitzemana doit Mündu hontakoa beno ürrhünago, ezi Jinkoaren eretzian bizi eztena, hilik dago aspaldian. Harrigarri da ikhustez jende batzü lürretik oiñdoa bezala sorthiak, sorthü dien harez, zerbaitetara heltürrik, ohart eztiradian beren sortzepenaz ta leheneko hazkürriak harrigarriago oraiño aita amak porrokatü ta pikarraitü diradianian beren haurrak odeietara igañeraziteko, halako hontarzüna hek ahatzerik haiñ üsü diradianak: bele ta boilltür, lürrak badia aski halako ezagütze bagien bürütik begiak khentzeko?

«Ahalke hiza ezagütze bagia, delakoz hire aita eskele, hire aberatsteko delarik eskeletü, ezteia hire belarra gorritüren, hire aitari mündiak dereioan ohoriaz ta hiri ahalkiaz?» Zer diok ahalke bagia Agathokles thüpuin egile erregetürrik, lür

ontzi egin zütianak, ürrhezkoekila herrokan ezarreraziten zütianak bere mahaiñian, zialarik her ohore gehiago egiten ta hik, hire aita ofizio apalaz dialakoz hire hazkürrü lehenari, eskele delakoz süskitü, eztük nahi ezagütü.

»Bazen Afrikan hi bezalako bat, haren aita deslüratürik berze herri batetara, semia zorthü honak üngükatürik anbaxador zen bere herriala igorri; aita, haren gana laister abiatürik, semiak e'tzialakoz nahi ikhusi, bere erraitian adiskide athe bat bildürik joan zen anbaxadora ren egongila, haren goardak porrokatürik, bere eskiez semia zian erho, ta ürkhategian jarri bere zaia ürrhez koekila, khoroa bürían».

Lege zaharrian semiak bere eginbididiari aurrhiden eretzian hüts egin zianian, aitag zian aizoen bilgürala ekharten ta han harri khadiz zien erhaiten. Jinkoak eman badü hainbeste potere semiren gaiñen aitari zer da berak begiratü diana seme gaistoentzat. Nolako diradian

halakoak erran behar baliz, libürü handi baten ekheia günüke heben. Ezi zer erran e'laiteke auherretzaz, laisterkarietzaz, jokhazaletzaz, neskatilakarietzaz, hordietzaz ta ohoiñetzaz. Etxia, aita amer barnetik thipiltzen dütientzat ta hen herioari aidürü dagoenetzaz, zathizka etxaltiarenen saltzeko ta bizi izan diradian bezala, hiltzeko direnetara, zer ez erran.

Aita batek entzünik bere semia ihesi zela armada(tik), etsaiak garhaitü zianian, igorri zereitzan hitz hek:

«Ene semia, gizon baten seme hiz, dakianak irainguen edo hiltzen, igor etzadak, lehen hire hezürak eziez jin bizirik ene gana, hil datekenian hire fama».

Berze batek zialakoz aite bere seme kargü-dantak zerbait hartü, aita Akadoi jarririk, jakiliak ta semia entzünik, semia zian deslüratü, ta han bere eskietzaz ber egünian hil; aita, haren ehortziala etzen agertü ziolarik hilak halako ohoria etziala merexi. Berze althe dügün ikhus gizon bat gosez hiltzera eripetia alhabak egün-

kal, aitaren ikhusteko baimenareki, zelarik ere goardetzaz aldikal ikhertü, hazkürrürük batere ekhar e'leizoan, egoskeraziz bere dithietan aita lüzez bizierazi ziala. Españan ere D. Pedro erregeren denboran ikhusi izan da semia dolorez hiltzen e'tzialakoz nahi bere aitaren bizia(k) eros lezan beria.

Gibel mendia Sicilian da zonbait aldiz bere azaliak, düründa gorraren pare, garrak odeiak beno gorago, sü ühaitzak ta botxiak inkhatzak bezala bomitzen dütiano urthukitzen, bazterretako jende güzia doalarik ezpeitaite inferniren ekantza üdüriagorik. Mündian megopiak ideren liroainik senhar emazte pare bat, bi seme gaiza baliosenezaz bizkarrian zabilzelarik aitzina, ikhusirik süoiola laister hen gibeletik zabilala ta aita ta ama erreren zütiala, kargak urthikirik behar z(üt)iela aita amak salbatü edo hekila hil, gibel ziradian hastara abiatü ta batak ama berziak aita konkaitz hartürük zabiltzan ber bidian. Bena ja suoiolak bidia ebaki zereien, zioelarik «*biz erregitian aitzinetik edo gibeletik*»; ziradian aitzinatü sü herrokiak apartatzen zirelarik, ziradiano aitzina laister abiatzen, zütieno aita amak

peligrotik ideki. Soegilik die gaiza hori sentha-gaillen herrokan jarri ta delakoz egiazki holakoa uste üken die paganek Jinko batek zütiala nahi amorio izigarri harrez ordaiñtü ta hen bidia Elge Sakratiaren izena, geroztik ükhen diana zien deithü, dago oraiño berde, diradialarik bazterrak pikez ta latsün hautsez estalirik.

Holako akadoiak ikhususirik seme ezagütze bagia nola soeginen dereiozü paganago ziratekia ezi ikhusi dütienak, bide berdina üsü dirade hantik ezagütziaren khordak hautse dütienak berme, dukie franko heltüren zereien zorthü gaitzak ta Jinko honak dakitzanak. Ziek aldiz Jinkoaren manhitera mantso ziradianak, odola ixur zenioarenak aita amen biziaren lüzatzeke. Zauzte aidürü mündü hontan dükezien ohoriaz, berzian ere khorozaz ta ziek aita amak halako hamarrak dütüzienak barkha zerbait gaztetarzü-nari, odol biziaren boilltari ta ogena aithortzen dianaren besarkak har honki, ezi sobera lüzatü nahi dianari hausten zereio soka.

BEREZITA XVII

Mendekatziatz

Mendeka delakoz Oarraren ekarraia da beraz hügügarri, da, ere, bere izairiaz gaitz ürretsü. Erran ahal ginero dela etxe zaharren pare, aizoer meskabürik e'lirokiana, eztütino lehenik etxen-koak tzapatu. Izariaren flakezian faltarik egin eztianak eztütü ezagützen ta batere egar e'liro-anak berdhüde güzietarik berhezirik dago. Gizona da ohorian izigarri gillikor ta errespetüz khoi. Ezta jende txipirik beren doia nahi eztoanik ta zor zereioana arrazoaren arauiala nahi eztianak. Gizon beno gehiago bada, bere izairiak galtho dereiona da errükia, gizon baizik ezpada, beraren faltak behar lükie berzerentzat agorterazi.

Latzaillaz gaiza güziak eragin daitekiala ustia da, erhokeria handia, ezi bortxaz eragiten dena irrein eztaite, delakoz gaiza gizontsü legen khin-per egina. Basa arimala gaizurtzen da aide bate-tik bürdüinta eztadin ta berzetik ohiltzen zerrate-giak dütianian ikhusten. Mehatxatzen dianak makhilaz, ezpataz ta süiaz ohart bedi ehün beso

eztütiala ta bizi bat baizik. Da, arren, higuingarri ta odolgiroi gerth dadin, jende güziaren etsai zereionian gertzen hainbeste non beso ta bizi beitirade, hala hanitz lagün uste dianak, mendikan bera dago goait peligrian.

Dügün erakhus gizonen legentzat ta bizipe-naren fabori, hen arteko amorioaren ezitarzüna ta barkhamena diradiala bakiaren oropiloak, nazaro ere maithagarriren lanabesa dela arrazo-aren doiala da güzia, berzer ta berari deusere barkhatzia..

Amorioa da izairiaren lehen legia, azkena aldiz garredoatzan ozardia. Jinkoan dagotza amorioaren zaiñak, haren adarrer loth diradia-nak berari dütü adheratzen, amorío hartan dago-ela etsaier, zor dügüa nekez giniro sinhets; ala-badere berak barkhatü dianian berari egin dereien thormendiak ta kürütixian itzeztatürük hilerazitia düdarik ezta amorio nakaitsü hori dereiküla manhatü ezi dio thipilki maita etzazie zien etsaiak. Lege hori izariaren züzenetan jarri-rik dago, ezi jendieren amorioaz khoi bagirade izariak dü nahi maitha dereizagün ta nahiago badüt barkha deizadan iraindü bat lehen eziez

mendika ditian. Zaldünki nik ere orozbat barkhatü behar düt egin dereitadianak. Jinkoaren manhia doa arren, osoki nere protxirentzat, ordian haren hontarzünaren broba handiago dago.

Berze althe dügün so mendikari, hari bürüz behera dabilanak izariaren legiak dütü erroetarik muzten. Ezi mendikatü baniz, berriz mendikari bat düt sortherazi, harek aldiz berze bati ene althetik hantik gizonaren bizitzia da, otso errabiatia-riaren pare ordian legiek ezpataren püntan dagotze ta gizona bata berziari otso. Nihauri düt erraiten nola maite hiro hire aizoa, eztelakoz maithagarri. Jinkoak nahi dia bihotza ezar deza-dan estiran, hügün düdanaren maithatzeko? Arrazoaren arrapostia da eztiala nahi Jinkoak maitha deizan gizon ene ürüdiala egina dena bezala, dagoelarik dena, nahi bada ez nere adiskide ta ni haren etsai e'nizalarik.

Bena bihotzak jauztekoz dereit erraiten, zer die askaziek, adiskidek ta jende güziek nitzaz akadoitüren halako be(l) tzigoz mendikarik ezpadüt hartzen? Jinkoa berari egin dereitzenez-taz hartü diana, Jinkoa ahal zialarik bere etsaiak hitz bakhutz erhautstatzen, beitzereie barkhatü;

ta Jinko ezpeita gütiago egon, haren gerthaldia-
ren jarraikira bi Enperadore Constantin ta Theo-
dosa barkhatzen dienian, beren üdüriak lohietan
terrestatü zütiener, nik ere hen üdüriala barkha-
tü behar beitüt.

Lege Zaharretan edireiten dügü jakilen aitzian
galtho egiten zela iraindiari barkha lezari
etsaiari ta hiruretan artzükatzen bazian, infama-
türik ta eskümükatürik zagoela. Eztait gizonak
zorthü gaitzagorik lükianez eziez bethi hügüngo-
an ta mendikaren aidürían bizitzia, khiristian
baniz Jinkoaren seme niz, ene aitari leal baniz
eta othoizten badüt, bere amorioan begira
nezan, erran dereit maitha ezak hire anaia, nik
hait ere maithatüren, berzela eginen dereiat,
hari egin nahi dükan mina, züzen, ezpadü diha-
rü, ogena, bena ene gaiñ dükek arren mendika.

Türkek, kristia eztirade, alabadere die besta
egün bat *behiram* deitzen diena, hartan die Jin-
koari hitzemaiten barkhatzen dütiela etsaier
egin dereien ogen güziak. Gü girade kristia,
barkhamen hau da gure lehen legian. Zer gira-
de! Turkek beno sordeitz giradianian, gure aita-
men manhier bihurtzen.

Aizo bilguran mintzaliak makhila khaldi bat ükenik erran zereioan makhilakariari «*jo nezak bena ene elher hago beha*»: hau zen egiazko gizona, zelakoz haren mendika herriari honki egitian; errazitaren boiltari laket zereio ordaria, bena soegilek zien beren laidorez mendikatü ta han ükhen zian bezigoak hainbeste ohore nola makhilariak desohore beitzian bereki ereman.

«Lehon edo katamotz bahiz (dio Gizon Santiak) erhoezak hire etsaia ta jan ezok bihotza, tximalerazi emaztiarena, ta haurrak jar eskele, direlakoz güziak ogen bagerik; habiloa hantik elizetarat ikhustera hiretzat altharerik eztiela. Ta ziek emaztiak haiñ azkar beitüzie mendika, nola bihotzak flakü, gahüna ahoan, ari ziradianak, bata berzia mihi'khaldiz porrokatzen zer diozie Jinkoari hantik landan erraiten? Eztieziela halakoari nahi gaitzik, bena sekülan eztieziela akoiñtarik hareki ükhenen. Zer bihotz dereiozu Jinkoari eskentzen beazünez betherik dena. Eztiñant nahi oberta hori dereiñ erranen ezti-

ñant trükesarik hiretzat ez etare arrotarik;
habil sekülan eztün ene begithartia ikhu-
siren. Auzi gaitz bat eritarzün handia
honen galtzepena, herioa borthan, süia
etxiaren laur bazterretan, mendika jinen
deia zokhorriala ta heletara (B)inhur ezta
zothükatüren?».

Mendika beno ederrago bada barkhamena
sinhets ezazu, mendika ederragorik eztela eziez
gihaurretan hartzen dügüna. Delarik barkhame-
na ahal, jomentü ta behardün, zertakoz galgarri
deno bihotza helgaitzez erre-eraziren dügü ta
harekila ari ziradiana gure etsaiareki gerlan,
bakia dereizon ezpainez, galtha errabia düzüno
ürdaillian.

Giradia, arren, gure zokho xarretan handia-
go, den beno Jinkoa mündü güzian egünkal güzi-
ki(d)aren бүрүзagia dügü eskernioz agopilatzen
ta bere ekhaitzaz erra mementoan gintirokia-
nian, dereizkü barkhatzen; gük aldiz hitz txar bat
ezkapi delakoz bizitarzünari, ükhen dütügün zer-
bütziak ahatzerik, adiskidegoa ehortzirik, honki
eginak barratürik, ta moldezi güziak zankhope-

tan ezarririk, mendikaz girade mintzo ta ari, zinez hartan.

Bena haiñbeste egin dereit(diozü) non egar ezpeitirok azkena? Hanbat hobe, eskernioen ufa atsa da ozartiaren errejenta. Adiskide bazen egilia, etziana nahi, egin düke. Etsai bada, mündiaren okherriala erautsi da. Xühür bada, merexi dü küpida. Nork oraidrano dü, hor bat ausiki horak zialakoz ausiki. Nor ere ostiko khaldiz mandoarekila da erautsi. Errazitan egin badü bego bere barnerat sartzera, zü gabetarik bere arimak dereio kastigoa eginen.

Jaun handi bat bada, Egar Jinkoak bürian gaiñen jarri dereiküna. Zü beno apalago bada, zeren bilhakaz jarriren da zure pare? Beldarra begithartian eskiaz nahi düzia tzapatü ta batetan biak theiütü?

Soegiten badügü mündüko gaizer ikusiren dügü güziak giradiala falta egile ta falten artian bizi giradiala. Sekülan ere ezkiradiala bakian biziren, bethi etsai berri egiten ari giradianian, herioa zereien egüncal hüillantzen gerlan hiltzen bagirade, datekia arima bakian ta hautse badügü Jinkoaren ordeñia, zer dateke erthailtü derei-

küna? Abelen odola herakitzen deno lürrian, buzkatüren dügüia meñdika, eros lehenago gure odolaz bakia, eziez Kain-eki hiltzia mündü hon-tan ta berzian mendika txar baten khostüz Jinko-aren begithartetik apartatürrik egonen gireia? Ez balima, uste badügü arima bat dügüla (a.o., azken esaldi hau egileak gaineratua).

BEREZITA XVIII

Ongondiaz

Deusere següragorik eziez mendikari doanak Mendikaren Jinkoa diala bathüren. Peligroari doanak bezala, edirenen diala herioa. Odolian laket diradianok dirade arima apalak, lohiaren pare diradianak. Soldado bihoztoiak sekülan eztü erho etsaia bere poterian ziana, kobartak dü erhaiten, harrez beldür eztenian. Arima ederrak bethi barkhamenak dütü argitzen ta mendikaren garhaitien minak eztitzen.

Theophila, lürrak ekharri zian enberadore odolgarriena, nahiz odolian hil, odolian bizi zen bezala, lürraren ta zeliaren etsai zialarik, herioa ezpaiñetan, manhü zian egin Theophobore haren kapitaiñ handienari lepoa mutz lezakien, uste zialakoz zatekiala bere mereximenentzat haren landan Enberador; haren büria ohian gaiñen jar erazirik, zianian aide orotarik erabili, zereioan erran:.

«Egin dük sarri Theophila e'nizatekila,
bena e'hiz hi ere Theophobore».

Ta ber hitzak arra erranik zian bere arima beltza gizon otsoaren pare ziana infernuko süiala egorri, hala gazterik mendikala kostümatürik, herioaladrano jarraikirik meskabüz ta desohorez bere bizipena theiütürik zen itzaltü.

Irainiari da ükhatzen mendika. Conradin, Conraden semia bere aitaren honak küperatü nahiz harmada eder bat Italialat eraman zian Charles I. d'Anjou-ren kontra, haren erdian zela-koz gloriatzen Clement IV. aita santiak zian erran «*Helas zonbat jaskaiña diradian lthaliaia ekharien*». Bihotztoi zen Printzia bai etare Printze frantsesa, bena han gerlan zen egiazki langile ta berzia gütik. Abantailla txipi bat behar zereiola ützi jin eraziteko jarri zereion lazoala, ezarri zian Alard bere kapitaiñetarik bata bere Errege soiñekila tropa zonbaiten bürian ta igorri etsaier.

Conradin-ek ustez Printze frantsesak berze jenderik etziala jo zütian otzarka harrigarrian, ta fitez zütian porrokatü, jakinik errege uste ziana

hilen artian heda zagoela, boztario izigarrian jarririk, Italiako Errege zela etzian ja dūdarik.

Charles, entretan zagoan gorderik bere tropa hoberenekila ibar batetan, zianian ikhusi etsaiak bere jende hilen bileizten zen batetan ibarretik jalki, falkoa bezala, hetara arroatü ta aragei handi bat egin. Conradin-ek bere althe ahalik jende beretarik bildürik senthagailla zian egin. Azkenekoz behartü ihesi, ützi zütian hamabi mila hilik. Atzaman lezen beldürraz erregezko soiñekoak urthukirik, zamalzaiñ, batenak zutian hartü. Pisa-rat igaraiteko sosik sakolan etzialakoz marinerari zereioan erhaztün bat eman bere ta bere küsinarentzat (Federik Ostriakoa zena). Bena marinerak ikhusirik etzela mithil baten doia halako joia, Pisako komendantari zütian salhatü ta harek presontegian jarririk bi Printziak, mezü zian hatzamanaz Charles d'Anjou-ri laister egin, harek urthe baten landan, Conradin eta Federiki zereioan büriak mutzerazi.

Conradin-ek bere küsüiñari ofizioa egin zereioanian bere aitzinian zian haren büria altxatü ta bolharrian jarririk barkhamentü zereion galthatü zelakoz haren herioaren langilia ta pot

hanitz бүрү noble hari eginik beria zian bihotz hozki borreoari eskentürik galdü. Juana de Aragon zen Printze doakabiaren atanta ta errege Pedroren emazte zelarik nigarrez hurtzen bere llobaren zorthü gaitzaz senharrak zian harmada bat haren mendikarentzat adelatzen.

Charles de Anjou-k igorri zian Charles Bigarrena semia, Printze de Salerna, Roger de Loria-ren kontra bi harmadak ziradian bathü itxasoan bena zirelako ontzi aragonesak azkarrago ta hanitzago, zütien sarri Charlesenak hondatü; bera ere hartürik, aitoren seme athe batekila zian Siciliarat presoner eraman ta han bere lagünetarik athe bati Conradinen ordarian бүriak kortatü zereitzen. Charles zen S. Luis Frantziako erregeren lloba Aragoniako erregiñak haren auzia eraginik igorri zereioan erraitera, ordü zela adela ladin hiltzera. Printziak erakusteko zela egiazki Erregeren seme ta Errege handiagobaten lloba, zian bihoztoiki berria hartü ta arrapostügeia erran: «*Presontegian üken zian Erregiñã ganik kortezietzaz zela net akogatürik lokan banütza zereioala(?) zialakoz ostiraliala bere herioa ürrhüntü, zelakoz eragabezko hil ladin*

külpagarri, Jesús ogen bagerik hil zen egünian». Erregiña Printze haren arrapostiak anbidatürik espanta igaran zereioanian, ber mezia igorri zereioan, ziolarik «*Errazü Printze Charles J.ek gozo ükhen badü ostiralian hiltzez, enia datekia-la barkhatzez, Jesusek bere odolaz barkhatü zianian bere borreroer ber egünian Jinkoak begira nezala gizonaren odola ixurtez, ene bürüzagiak ixuri dian egünian beria eneizat. Bada ere heltü den gaiza denboran ene plagak odoltsü diradianian e nai mendikak garhaitüren. Bihotz oroz dereiot barkhatzen, eztate ere ene falta, mementoan ezpada bere arradea güzian izaiten».* Etzen gaiza Erregiñaren poterian. Dn. Pedro senharraren borondadiala zagoan ta harena holako presoneraz baliatzia, hartakoz Espaiñalat eramannerazi ta Barzelonan thorre batetan jarri; han zegoelarik begiak nigarrez hurtürik ta bihotza hasperrenez tximaltürik heltzen zelakoz Da Magdalenaren besta, ziana gordatari, zian barurak ta othoiak egünkal doblatü, lezan Jinkoak bürdüin hetarik lotsezarrerazi.

Silvestre Piora-k dio, Printzia zelarik bere othoietan, besta egünian agertü zereioala ande-

re bat majusdadez betherik, jarraiki lezan zereio-alarik; hitz hek botztarzün izigarri bat bihotzian jarririk jarraiki zereioala, haiñ arhinzki non uste ezpeitzian ziala lürra honkitzen, ziradialarik bort-hak berberak zabaltzen ta ordian düdarik egin etziala zeliaren manhüz zebilala. Hantik denbora zathi baten landan, anderiak non uste zen? galt-ho zereioala egin; harek haren ustiala Barcelona-ko lürretan, «*bairatzen zirade Charles, zure Pro-bentzako kondegoan zirade, Narbonarik lekoa bat ürrhün*» hitz hek erranik Anderia zeiola desa-gertü.

Printzeak senthagailla hau zor ziala Santa Magdalenari, heda jarri zen lürrian Jinkoaren adoratzeko bere Santietara, khürütxe bat lant-haerazi; Santak ützi zian ber lekhian eliza eder bat ere harentzat geroztik eragin; hala Jinkoak nahi ükhen zian obratü Aragoneko erregiñak hitzemaana.

Dügün berze bat Charles Magne-ren sekreta-rietarik bat Eginard deitzen zenak maite zian enberadoraren alhabetarik bat, gai batez zielarik algarreki igaran, zen elhür hanitz erori Eginard-ek behar elkhi, lotsa(z) ezagüt detzen bere hoi-

ñen herexak Printsesak dü konkaitz hartzen ta kanporat eramaiten, urthus elhurrian ibiltzen zelarik. Enberadoria goistiar zen, leihotik ikhusten diana eztiro sinhets, ar'goitatzten dü ta egia jakiten. Biharamünian bere kontseilia dü biltzen ihur izentatü bagetarik dü kondaira egiten ta botzak galthatzen güziek gizonak merexi ziala herioa. Jinerazi zütian amorosak goga, nola zaudian beha sententzia aiphatürrik Enberadoreak alhaba eskütik hartürrik erran zereion sekretariari «To Eginard, gizon ekharle eder hau emaiten dereiat emazie, ükhen ezazie biek Jinkoaren beldürra ta zitiela lealki bizi algarrekila».

O! hüskaldün nobliak non dükezie gerthaldi ederragorik: gerlako legiak aide batetik Aragoneko erregiñari frantses printzearen hileraziteko potheria mendikak zütian ber legiak fabori, ütsümaite zian bere lloba haiñ krüdelki hilerazi ziena, bere bihotzak ta jende güziaren marrikak galtho ziroien ordaria. Alabadere barkhatzen dereio. Bestalde mündüko podentat handiena bere izenak mündia bethe diana, ta erran dügün kondaira erakutsi zianak, mündia beno handiago ziala bihotza, Errege Majestatearen legautsiaz, non da

probantza ageriagorik bi herioen kasian dūgū bi grazia ta barkhamen ikhusten, berthūde handiaren obrak diratekieia arren bethi erregetan ta errana deia, txilimistarik hartarik aitoren semetarik eztela jalkiren.

BEREZITA XIX

Axolgabiaz

Nozpait zen filosofo suerte bat bere büria haiñ maite ziana non berzetzaz dremenden axola expeitzian Epikura deitzen zen. Egobia oso harekila dereie iraunatu zela gogozeto ta erregale, zerbait balizate lükian hetarik; bena bere ezkiribü haboenetan, gaztiarentzat, lekazietzaz ta berze baratze belharretzaz baizik etzelakoz mintzo, hen ere honki apaintzia ageri da etziala sabela haiñ Jinko eziez arranküra ta ohoriaren axolik bage bizitzia. Berari baizik gogorik etziala bakhoitzari; bera mündian izan baliz bezala ere ari zela, da ageri izkontziaz mintzo denian; ezi nahi zialarik gizonak emaztiz gozo laidian haurretzaz errekeitü batere gaberik nahi zütian agindü. Hezitzia zena hori?

Nor bere nazaroari behar ziala nahi zütian güziak eman, megopiatik khentü arranküra güziak, beretako baizik ez bizi senharren erreligionia ta axolgabia zian bere Jinko maitia. Zonbat dirade orai gizonetan beren anderiak beno mai-

ñatiago diradianak basa-filosofo haren eskolala doatzanak ta berze arrankürarik eztienik salbü beren khorpitzanak, dütielarik mardoki ta beilloki errekeitatzen, odei güziak megopiatik akasatzen, gogamen arhinak hen lekhian jarten ta gozalde güzietan igerika bizitzia igaraiten dienik halarik filosofia haren kastak egünkal dialarik noblezia khozatzen, beldür niz aitoren seme güziak anderetürrik kotak baizik mentsik eztütükiela sarri.

Sorthü e'laite e'lükianak (gogoan?) dela lana gizonari, den bezala txoriari hegalta nola lizateke gozalde khorpitzari minik ükhen eztianari? Nork eztaki Printze handienen zorthü gaitza, die-larik mündian bihotzak galto derien gaiza güziak, inhon eztirade laket. Jauregi batetara heltü diradianian, berze batetara nahi lizaiteke; zaldiek dütie düründa bezain laister manurgak eramaiten eta eztoatza hen arauiala aski laister; arranoak nahi lütükie üztartürrik bideetan ta egongietan; orozbat dirade debeiatzen. Mahañian gaiza kostatsuenak ta arra(ro)enak dereitzelakoz bethi jarten, artzañak beno, bere inkhatzpeko paztetxian ta kotxi(a)ren hürrüpan die

gozo gütiago edireiten beren apairü handietan, gozomen güzietan aldiz dirade hañ higatürik non bateretan bakhoitza ezpeitie gozatzen.

Khentezozü gizonari (dio filosofoak) mengoa eztianari, aragietzaz axolik eztüke! Khent ere egarria, üthürrü hura edo lohiarena berdin zereitzo izanen. Bero eztena freskülala eztoa, ez etare beroala hotz eztena. Gaitzak beharra eztiradian lekhian gozomenak eztirade sartzen. Mündia haiñ zahar izanik eta lürra haiñ emaile, ezetare oitakinek haiñ jakintsü diradianak ezte-reikie oraidrano arakutsi gizon bakhoitza bere zorthiaz osoki askidatia zena. Lehenago da gizon bekhatü gaberik sorthüren eziez min gaberik hilen. Thenpesten artian, taula baten gaiñian itxasoak igaraitia meskabürik bage edo mündian miñ gabetarik bizitzia dirade bardin. Sorthü beno lehen hartara akadoitü girade ta heltü giradian bezain sarri gure nigarrek dereikie sententzia irakurten.

Uztarria dügü güziek lepoan sortzepenetik herioaladrano txipiek bezala gorotzian, handiek bere jargia ürrhestatian. Sobera xilho dütü gogamenak gizonak dereioen ahal güzier bethatxü

ezar ahal baleza ere, beriak thapa, badüke üngü-
rütan eliokianik. Dügün erran doaitü datekiala
osoki gizona elhorrik lürrak eztükenian, airia
datekenian azaliarik bage, itxaso denbesta
bagetarik ta urthe güzia primaber edo bedatse
datekenian.

Bere egarri güzier beba dagoena eritarzün
lüzianen errekeitari da jarten. Egia harez sinhes-
tia dianari, hügün zereio mahaiñian denbora
diana galtzen; haiñ gütik behar dialakoz khorpi-
tzak ta khüto emaiten zereioalako bere beha-
rra. Dolügarri da, arren, denbora emana, auher-
keriari delakoz emana. Erlia lanian ari delarik dü
bere hazkürrü doia hartzen. Loan baizik pausürik
eztü; biltzen dü aro honian gaitzian bizitzeko
behar dükiana; ünhürria da orozbat bethi langile
bethi denbora jingeiari бүрү eman nahiz arran-
küran. Gizona aldiz Gorgon-en pare hirur
tzüntzür, harek bezala hirurer nahi lüke batetan
ireitserazi ta bata ezinez bazereio thapatzen lais-
ter doa mediketara zabaleraziteko. Aberiak eztü
jaten ezetare edaten bere gosiaren ta egarriaren
doiala baizik, gizonak aldiz egar e'liroiana dü,
arren, harek arrazo gehiago ta eztelakoz berze

gaizetan ahalkiari enjogi, dü bere zorthia honek beno hanitzez hobe.

Gizonari dereio aberiak bethi zerbützü eskeintzen, laneko bethi adelatürik, gose denian baizik eztereio bazkarik galtho. Gizonak aldiz, lanari bethi xüxenik dago. Khorpitzari güzia arimari deusere, Epikuraren da eskola; Mahometen errelijonia hantik sorthü denak dü alabadere khristianer ikhasi, datekila berze mündian gozomen handiagorik eziez lürrian dütügünak ta Epikurak deusere etzialarik bere khorpitzari ükhartzen, soberanak zereioala ogen egiten zian aithortzen.

Platonen eskolak zioan gure arimak ziradiala zelütik lürrila eraitsi, Jinkoari zerbützü egiteko, heben angüriek bezala zerioien zelian egiten; bena gaxo hek beren sortzepena bidian ahatzerik berthüdiaren palazioala xüxen behargei ziradialarik abiatü, belhagile baten olhan ziradiala sarthü ta harek zütiala khatiñaz kargatü, menpea hain apalian ere jarri non xühürtarzünak edo herioak baizik libera e'lirokienik.

So egiozü jale handiari, jan eztirokian begik ere dereie nigar eraginen. Soegizü bere osaga-

rriaz amoros denari, nola dian amoroski zerbützatzen. Berhatza bethi pülsian heia odola bethi ber bidian doanez. Jaten dianentzaz bethi beldürrian, lotsa dereie egiten bizia llabürt dereitzen, urdaillaz dü abodekairi botika bat egiten, bethi dotorer galtho ta beha jende güziari min ezütianak dütü erraiten edo ixilik бүrian bederaka dütü igaraiten, ta arra igaraiten; eztaki zoiñ den lotsagarriena delakoz güzietzaz lotsa Jinkoaren hamar manhier lizate lehenago arrabuhin eziez Hipokrataren bakhoitzari. Dialakoz ere hünian eritarzüna ta hantik direlakoz zaiñ eraisten, zain güzietan min diala dago heiagoraz, ta manhiak erhokeriari hon izanik ere harenari honkirik eztereie egiten. Ezta gaitzegilerik galeran min biziagorik dianik, eziez halako arimak diana bere khorpitzari emaiten, pare dago erliari ezel lilia xüskatürrik hiltzen dena, bata mendikatara, berzia lili soberatara joatez azkenekoz zapartatzen dirade.

Ordüzegi khorpitzaren geñhatziak higatzen dü osagarria, sobera janak ta edanak erhaiten. Soegizü konbent(i)etan zonbat bizi diradian osagarri mehienak, diradiano azkarrenak gazterik

mündian hiltzen. Job santia ikhusten zienek düdan ziradian gizona zenez gorotza gizontü alabadere bere thormentü harrigarrietan Jinkoak zereioan zokhorriak ziradian haiñ izigarri non erraiten beitzian deusere etzela beraren minak beno maithagarriagorik hantik ere gizonak zonbat bere gaiñ har liroan dereikü erakhatsi, ari-marentzat. Khorpitzaren aldiz mündü güzia gertaldiz estalirik dago, gosiari bere doia, egarria ere beria, tieso izaitez zentzüer gor ta khorpitzari gogor diradianak, eritarzünak bekhant ta bizia lüze dutiela, lan soberana indarrak ezpadütie nekatü.

BEREZITA XX

Egokidiaz

Gizonak egar likiro gaitz gehiago eziez uste beitü, nahi bada gaiza güzietan egokide izan; txipienetan megopia hertsiek die herrekek botxietarik erorten diradenian azalia egiten: handietan aldiz zorthü gaitzetan ta meskabetan doa gogamena ühaitz handian lur laiterraren pare, herotsik gabe. Egia horrez gerthaldi handi bat dago, heben dügüna emanen.

Souza portuges zen, aitoren seme seinalatunetarik, maltso aberats, perestü ta bihoztoi zen. Emaztia zian ere sortzepenaz ta berthüde güzietaz ezin konplitiago, aspaldikoz Indietan, nahiz beren herria ikhusi Cochinen ziradian enbargatü, bereki zütien haurrak net txipi, aitoren seme zonbait, ontziko ofizierrak ta seiehün gizonen üngürian orotan. Negaroaren hatsarria zen doatsü izan, bena Cap-Bon-Esperantzara heltü zenian ontzia, sorthalde aizia zen haiñ borthizki jaiki non odeiak nahasirik, düründa ta ekaitzak haiñ harrigarri erauntsi ziradian, zelia ere süiaz

erdiraturik erre nahi zükiala, ontzia beitzian inkaria. Alde güzietarik leze baizik ez ageri ta hetan herioa jenden aidürü, itxasoak ütxülipurdikaz ontzia inharrausten, behin alde batera gero bertzialat urthukitzen, gidaillak nahiz berriz Indietarat, aize khinperrek bidia baratzen, belak zathizka, batürak porrokatürük, hur herrekak ontzian turrustaz sartzen, jendia etsitürük, besarka bata bertziari azken adioa erraiten ta arimak zeliari eskeintzen.

Hartan zirelarik hegoak berze althe dütü egoizten lürrilat doatzalarik lotsaz erdiara ladin ontzia beraren joitiaz, dire angura ta kanotak huriala egoisten, Souza bere emaztia ta haurrak batian da sartzen, ürrhe ta berze aberatstarzün meskabü halakoan bil ahal zütienekila da hetan jauzten, lehian barkoek joan ta jinak üsü dütie egiten, nahiz jende güzia salbatü, bena anguraren soka da hausten bagek ontzia die ellauditzen azkenekoz da zolatik lehertzen hanitz jende ithorik berziak bagekila borrokan hütxa ta ürrestadiak ta Indietako aberatstarzünak igerikan han, bere hatiekila; ezkapi nahiz itsasoak iresten dütianak, güziak herioari ihesi marrakaz.

Ontzia kükültü die bagek, die ere lürrialat hilak urthukiten, hekila probandiak ta hatü güzietarik dirade itxaso huraz hirotürrik. Lotsaz üngürünetan hilak behar ehörtzi, erier eman zokhorri, gosiari bürü egin, esparantzarik batere ta gaitz güzien beldürrian beillatu basa gizonen herrian direlakotz erori.

Alabadere Souza gaxoak sü pitzerazi zanian bilerazi ahal ziana, hazkürrü zenbaiten gei, ikhusten zialarik gosiak, bera, emaztia ta haurrak zabilzala güziak nekatzera, bildürrik bere jendiak, zorthü gaitzari bihürtü nahiz inkaria egi-ten zielarik lagünak ahalik bihoztoiena hitz horetan zen zarthü.

«Jende honak dolürrik ezta gütarik behar, galdiari, bena dügün Jinkoa err-
mestia salbatü gütialakoz; franko dakizie
zer den marinera ta hartara doatzanak
gosiari, egarriari, galtzepenari, ta meska-
bü güzier enjogi diradiala; aidürü hartan
nork beria ideki behar diala ahalena ta Jin-
koari ordaria eskentü zorthiak eztereion

berze honkirik ützi, bakitia baizik zien artian».

Bihotz oroz gomendatzen dereiziedana ikhusten düzie zonbat, emazte hau ta haur gaxo hek diradian dolügarri. Alabadere hentzat dükedan errekeitiak ezirateke handiago eziez zientako ükhenen dütüdanak ta güzientzat arien niz orozbat.

Bilgura güziak nigarra begian botz bakhotz eramaiten ahal zütiala norat nahi biziatzaz etzuela berze esparantzarik baizik haren manhien bedentzian, zeroien erran. Eragin barrüki bat taulaz hariz ta ediren güzietaz, gaian basa gizoner eta arimaler bürü egiteko hamairur egün hatien ta probianden idoreraziteko, gaiza beharren ere adelatzeke, bere harmada eskelearekila zütien enplegatü, hantik landan zen abiatü.

Sortaldiala zian gogoia zekielakotz bazter hetan uhaitz handi bat bazela Portugesek S. Espirito izentatü ziena. Souza bere emaztiareki ta hurreki zabilan lehen lehena, aitak ta amak zütielarik aldizka haurrak ekharten; hen saihe-tsian zen Andres de Baze, pilotia banderaren

ekharle, lauretan hogei portüges ta ehun bat bertze jende, güziak harmatürrik, hen landan materosak ta maiñala gerla etzkienak zabiltzan.

Dolü zereielakoz gizon gazter, halako andere flakü zena haiñ bihoztoi huñez ibilten (beit)zen andarillak eginik zütien ama ta haurrak aldizka soiñian ekharten. Bena llabür izan zen zokhorrian, mendi txüetara ta botxü zorrotzetara heltü ziradianian, han hek bear larrapoka gaintü, basa gizonak hüstüz, basa arimalak auhenez thinietan, leziak harrigarri, lanhoak üsü, biderik batere ezetare errailerik, düdan ehün lekoa egin behar, non etare hogeitahamar behar eztzenian, halako zen ibiltia jende dolügarri harena.

Azkenekoz prbiandak akabirik, marluüz zathi hirotiak zütien ausikitzen basa fruitu txarrak jaten, ta sordeitzat zena hurik ez ihunere batzen; olha zonbaitetara heltzen baziradian zortzi luis zereien hur pinta saltzen. Hala jendiak holako zorthü gaitzaz nekatürrik ziradian üsü hiltzen ta bere khorpitz txarrak basa arimaler üzten.

Zen ere Souza gogomen dolügarriz nekatürrik, zialakoz ikhusten bere emazte biguiña bera beno bihoztoiagoki ziala jenden bihotza azkar-

tzen ta indar emaiten. Azkenekoz jakin gaberik norat, laur hilabetez ibilirik heltü ziradian S. Espiritoko ühaitz bazterriala, han erregeñi batek honki jinak eman zereitzen.

Nekez ziradian errege harekila aditzen, alabadere Souzak zian inthelegatü ürhünago joaiten bazen, berze errege bat ziala bathüren mündüko ohoin handiena zena ta beren etxian behar ziala enbarkatzeko tenorialadrano egon, halako khorteziak basa errege batetan zen mesfida Souza, baliman ere etzian ogen, hartakoz berritzen zereioalarik khümita erran zereioan berze faborerik haren ganik nahi etziala salbü eman lezon ontzi ühaitzaren igaraiteko, nekez zereitzona basa erregiak otorgatü.

Jarri zen ühaitzian ta bost egün zen han nabigatü, ez jakinez nonlürra honkiren zian. Sei ehün jende Indietarik bereki zütianetarik ekharri ehün ta hogeitara ziradian agortü, berze ühaitz bazterriala zenian heltü. Biharamünian berrehün zaldünen saldo bat Etiopiako Erregenetarik ikhusi zütian, Souza jiten; portugesek ja zütien harmak adelatzen Etiopenak inkara hari soz, baratü zien ibiltian. Ordian portugesek señalez zereioen

beren eskelegoa erakutsita zokhorri othoitü hek baietz, bena jin zaiztian erregeren gana ta honki heldiak ziratekiala. Abiatü zen Souza bere troparekila, bena errege koartak zereiton borthak zerratü ta manhü egin bere jender eraman letzen portugesak, oihan txipi barniala, hiriaren hüillan zeniala. Han zonbait egün egonik ziradiarik gaizak trüküz hazkürrützaz emaiten, zaudian zer gerthüren zen hantik aidürü.

Ordian basa erregiak Souzari zereioan igorri erraitera, bera jendiaren beldürrez portügesen harmen gatik, ta zirelakoz hazainak khario hirian, etzütiäla sarerazi bena bazien harmak ützi, zütiala bürgü bazterretan jarriren ta ezin hobeki han ziratekiala, Andere Souzak halakoen herrian esküdagoa bagetarik izan ladin bere jendia, etziannahi. Bena bortxak dü garhaiten legia: topatü zien portügesek ta erran bezala berhezirik Souza, haren anderia ta haurrak zütien sare-razi; erregeren hirian heldü bezain sarri nor bere egongiala, Souza ta bere lagünak dütie makhila khaldiz porrokatzen, dereitze güziak khentzen ta hiriz kanpo akasatzen. Etziradian ürrhün, ez jakinez norat abia heldü zereienian berze zaldün

athe bat, otsez soiñekoak urtik letzen, larria ützi ezpazien nahi. Zorthü gaitzaz ziradian portügesak haiñ mendestü non batek ere bihurtzera ezpeitzian bihotza enjogi. Andre Souza bera ahalkez zadin pikarraitü bere maiñaten eretzian, nekez zian mantharra lürrilat egoitzi ta ber denboran hariñan eskiez xilho bat eginik gerrentzialdrano zen hartan ehortzi.

Zaudian maiñatak ta berze jende güzia begiak apal, arimak hilik; Eleonora zen anderia-
ren izena, khorpitzaren erdia zianian hariñaz estali, bere bilhoetzaz ere bolharra gorde, deithü zütian mainatak otsez *non zen bere senharra?* Gero begitarte zohardi batez soegiten zialarik pilotariari ta berze ofizierer zereien erran:.

«Ene adiskide honak, zien kapitainari ta niri egin dereiküzie egürükitzen günia-
na, zien bihotz lealetarik. Ordü ta ützi dei-
zazien khorpitz hau lürrari ja bere legarra-
ren erdia dianak phakatü. Zoaztie ta zien
bizier sorga, ene arima tristiaren ere othoi
Jinkoa. Zietarik herrilat heltüren denak
Eleonoren berri galtho eginen dereiziener

haren bekhatiek non dien iarri, düzie erranen».

Denbora zathi bat ixil egonik begiak zeliala, zian oraiño erran:.

«Ene Jinkoa mündiala jin nizan bezala heben nago enekhorpitzaren erdia ere hilekila. Ene Jinkoa besarkatzen düt zure akadoiaren azotia, ene bekhatiek merexi ziena har ezazü besoetan ene senhar ohoratiaren arima, igaran bada zure ganat, haretzazü ene haur goxoenak, nere saihe-tsian daudenak; har ere enia ja ezpaine-tan dena ta dereizüdana ene Aita ta ene Jaunari ützültzen. Ezta lekhürik zure ganik ürrhün denik ezetare zokhorrik zure besoek eman elirokeianik».

Akabatzen zütialarik hitz hek Mosde Souza, bere senhar maitia, ohoiñen eskietarik ezkapirik, heltü zen emaztiaren khantiala harritürik, bata bertzia(ri) soz elherik erran ezin gaberik zaudian. Oihan bat zen hüillan hantik, laister harat Souza

zena abiatü, bazka zerbaiten haurrentzat buskara, bena ethorri etzeno zen ja hil bata; bere eskiez ehortzi zian; ützüli zen berriz ber oihania-la, nahiz bere emazte maitiari zokhorri ekharri. Jin zeneko Eleonora zen itzaltü ta khorpitzta bi andere aurenek heda zieno estaltzen ta nigarrez bustatzen, marrakaz zaudian, herioa ezpañetan, bigerren haurra ama beno lehenxiago ere hilik ediren zian. Souzak, ordian, Eleonore eskier mila pot eginik ehortzetari zen lothü, bi andere aurenek ürğaisten zielrik: erdian zian jarri bere emazte maitia ta saihetsetan bi haur gaixoak. Izigarri dena da lazerri haiñ harrigarrian, dremenden plaiñia zeliari ezetare lürrari etzereioan ezkapi, Souzari. Hantik herioaren aidürü, üngürü zonbait thonbari eginik abiatü zen oihania-la ta düdarik ezta bizirik edo hilik, basa arimalek jan ziela arima, Eleonoraren lagün, beria ziala igorri Jinko Jaunari.

Zonbait portuges hetarik S. Espriteko ühai-ziala berriz abiatürük, herritar ontzi bat ere bat-hürük, hantik zerekü, balima, kondaira nigartsü honen berria heltü; bena nola nahi den, zer ali-go, zer baloria ta zer egokidia etziradianak zort-

hü gaitzarren kontra Souza ta Eleonorenak! Zer ere ez tate gerthaldi ikharagarri hau meskabü demendrenaz bihotza flakatzen zereitzaner ta marrakaz doakaberik ez tiela diroiener kasü dremendenian, dirudianian heiagoraz eta helez.

BEREZITA XXI

Herioaz

Mündian ikhusten dügün gaiza güzietarik batere ezta heioa beno egunkalagorik, alabade-re inhur edo gütik dirade hari khostümatürik beriaz lotsa eztenik ta mila lekoa urthuts haren ihesi gogo honez egin elirokianik, esperantza bidietan eztiala bathuren. Zeren eta Izairia beita bere desekiala nakaitzen ta behin baizik ezpeikirade hiltzen Gizon güziak ber gaiatik dirade, alabadere haiñbeste kasta direla eziez diერი beitirade, hen artian üdüri lizateke. Nontik arren banaitte hori? Oikantzatik ta errelijionetik düda gaberik, hantik ere basa ta mantso gathiak ber kastatik diradianak; orozbat hora ta otsoa salbü eta bata mantso beita ta berzia basa, mantsotzen delarik hora bezala. Nekez aldiz basa gathia arimal hau bere nazaroaz delakoz hora beno basago ta ohilago.

Gizonek dielarik beren artian ber üdüria hen banaitia dago, arren, hen oikantzan ta errelejionetik dien mügidaldatzian; hantik herioaren bel-

dürra, batian berzian beno handiago, ohoria ta berze berthüderik ere tinkoago, Arimetan ezta banaite batererik, ezi dierri güziak dirade bardin bihoztoi; bena baloriaz dirade baliatzen ükhen dien oikarantzaren araua, hantik herioa bate-tan berzetan beno lotsgarriago dago.

Hil ezpaladi gizona, hil nahi lizatekiala, aspaldian brobatürik dago, argia bezala ageri denian Ekhia. Ezi mündüko gaiza güziak dabilalarik erdia herresta, erradazü othoi, nolako lizatekian lürra bezain zahar lizatekian gizona bost miila ta sei edo zazpi urthe bizkarrian, ta haritz süharra bezala, zathizka eror laitekenian? Auher lizatela-koz halakoa Izairak dü khentzen ta berze bat haren lekhian jarten, lanthatzen den bezala haritz gaztia, zaharra zen eretzian, ezi mündia baliz jende zaharrez betherik haiñ hügüngarri lizate nola oihana haritz idorrez baizik ezpaliz lanthatürik.

Dolü zereizü bizitziari (diozü) ta gaitza haiñ ederrik ützia. Eztirade següro khorpitzari laket bena bai arimari. O! arima presontegian dagoe-larik bere khorpitzian, Platonek dioana, presone-rik soz ezpadirade, gozomen mehia die gaizetan;

orozbat arimak düke beria soz datekian gaiñetik behera dereianian so eginen, hantik ber gaizen berritziaren ikhustiak, bihotzak dereio berari erraneraziren, etzen ez, arren, hetzaz presontegian afadatü.

Paganetan zen jende süerte bat beren legezaz, gizon berhogei urthetakoari gordotzen betzereien dotoren ikhustian, zioelarik ahalke handia zela bizitziari haiñbeste amorio erakhus-tia. Kristianetan aldizlauretan hogeietan, berkasian, hamabi dotor deith lirokienik dira mündüan. Estekamentü halakoa ezteia harrigarri ta ikhusi ez-tian nahi gizonak non etare beitü bizit-zia lüziago, diala ere lanak ta arrenkürek saldoa handiago. Ezetare gogo eman nahi, delakoz bera hilgarri eskelegoa dagoela haren borthan bizi datekeno. Ezi zer da bizitzia, beztitzia, jaikitia ta etzattia, jattia edatia ta lo-egitia, jokian, *elhestetan*, tratietan, saltzepenetan, erospen(e)an, etxe egitian ta hen barreiatzian, aharretan, auzietan, ezi hetan dago güzietan gizonaren bizitzia. Bethi arrota bezala petik gora ta gora behera doana bezala, bethi ber gaiza erakhus-ten diana.

Mündian niz, diozū, dolū dut hartan nihaurren berheztia. Bizitze güzia thorrū batetan igaran bazünū bürdüiñ arreia txipi batetarik, kharrikan diradianak bezala, zünükian ikhusi jendiak, zal-diak, mandoak, manurgak ibilten txipak bezala gora behera herrekan, güziak bata berzia pultza-tzen ari diradialarik, txotxak bezala beren kotxe-ran. Gaiza hek balio ziena lüzez ikhustia?

Tertulianen elhe ederrari gogo emazü:

«Izairiaren ama (dio) dela mündia, gizonak haren barnendaudiala haurrak bezala, beren amen sabelian. Gizonen sortzepena dela mündiaren izorra, herio-ak aldiz haren hau-ükheitiak».

Arren hil ezpazirade nahi, eztüzü ere nahi mündiari haurrik emanerazi. Tirano odolgarrie-nak, thormentü güziak obratu dütienetarik bak-hoitzik ezta emazter haur ükheitiak gordozü dereitzenik. Mündia zützaz izorra da haiñbeste urthez ta eztirade nahi haren sabeletik jalki! Zer ziniro, bizarra xuriari erran baleza bere ontzian belloki delakoz nahi dela egon ta berzer ez lek-

hürük egin? Lealki elaitate ari. Ezi kanpo baliz berriz sorthü elizateke nahi, eztera berzerik sor ladin.

Erhokeri handiagorik badeia eziez mündiren laisterra baratü nahiaren egarria, dakialarik bizia emaiten dereioan ber eskiak, goizian dereioala lüzatzen ta llabürtzen arratsian ta bethi aitzina, bethi güziak borraraten inhur eztaitekialarik gibelerat gure aitzinekoak itzaltzen diradeano; egünkal itzal hartara goatza, gerozkoak ere itzatüren dirade. Mündia doa itxasoaren pare, dütiano bagak botxiala porrokatzera igorraiten, Izariak gütü herioari, gure gora beheren botxia denari igorraiten, gure arhabüiñkeriaz erri dü egiten, ta guk akabailla ezin sinhets heltüren dela.

Eztait zer züzenez bizi nahi giradian berziak beno gehiago. Ezi haur eskelenak sortzian eztereio min gütiago egin amari eziez Printze batek bereiari. Bata ta bertzia heltü dirade pikarrai, flakü, zentzü gaberik ta nigaregile, ber haurzarroa die ükhen, Zer banaite da arren bien artian? Eskelia lastoan dagoela etzanik, printzia aldiz khoznan ta handitü diratekenian bata datekiala gaiza güziez behardün, berziak aldiz eskü batez

arrapatzendian honak, diala berziaz barreiatü-
ren.

Ezpaliz bürüzagirik elitzate mithilik ezetare
mithilik ezpaliz bürüzagirik; bena Jinkoak nahi
ükhen badü, batak bertziari zerbützü egin gene-
zan, behar zian aberatsak eta eskeliak egin, ta
arakusteko hartan dagoen haren borhondate
osoa zonbatetan dü mithila bürüzagitü ta bürü-
zagia mithiltü. Zeren ere Polonia güzian aitoren
semetan eskeliak dütü aberatsak mithil jarri
amoregatik mündü güzian bata bertzetik zereki-
ña gintian. Hartakoz ere zaldiak dütü igaiñgiaren
zerziak manurgaren banaite egin, bata arhin,
bestia pezü. Bi kasta ere egin dütü orozbat gizo-
netan bena sekülan eztü erran laboraria etzela
aitoren semetüren, ezetare aitoren semia langi-
letüren, üzten dü ere zaldi pezia igaiñ nahi dia-
nari.

Gaiza haek dirade mündüko pastoralak: ezti-
reia komediant halakoak errege ta trükader iza-
nik, beren galtza mutxetara ta lürretara ethor-
tzen ta errege zena atzo, herrestan egün ger-
tzen; hanbat hobe, dadin ofizio hartan ardüra

are, zeren eta lehenago beitaiteke lürra alde batiala, auher, halakoaz thipiltürik.

Dolürik, arren ez, hen herioari, ezetare gazte-rik hiltzen denari, amoregatik dezen zaharrek ikhus hari eztiradiala ezkapiren ta eztela bortha-rik herioak trükü bat emanen eztereionari hogeitalau orenetarik batian ta nahi dükian thenorian; bena dügün erran zorthü hona dükiala, eginen dereienek honki jina; ezi nola nahi den etxia beruillatürik, da sarthüren ta bere ofozioa eginen, erakutsiren ere, lantzak, etarziak, inikida-diak dakial desegiten.

Gütik dirade zekiñak herioan bere abertstar-zünen axol dienak, haiñ ihi dütie üzten nola nekez beitütie bildü. Bekhatü hori arren hil laite-ke bereki, behar zütükiala berak bere behar han-dieneki; arrazoaren gatik balaki, berze bat da hiltzen eztialarik üzten bere lastozko habia baizik, haurrak ta emaztia Jinkoaren esküpetan dakiala-koz txoriak, erliak ta üñhürriak hazten dütianak dütiala ere sorgatüren.

Zer dateke hen khorpitzetzaz? Batek düke Elizaren edo ilherrian bardin hiotüren eztirenik? Sortzian ta Ehortziaren bardingoan diradian

bezala izanen. Dian batek hamar apez, berziak bakhoitz bat hil ohoretan bien othoitzetarik pare arimak eztirade akadoitüren, bena bai beren obretarik hetan daude tritiak auziaren irapaizgeiak.

Zü aberatsa, zeren dolü düzü bizi'galdiari? Zeren düzü herioa hügün? Ordüz edo berant, behar dükezü ikhusi, zordün zirade harzaleari, ez nahiz zorrik egin, itxusiago azkenekoz zereizü agertüren Zeren dolü düzü zure palazio ederrari, zure zilharkeriari? Hetzaz berze mündian eztüküzü beharrik, zeren, arren, adio harez haiñ beldür zirade, haiñ ta haiñbeste enberadore, errege, printze ta aita santü gizon bihotztoi ta kobartik egin da bidiaz zirade lotsa. Eztüzia ikhusi jende lo egiten, zonbait engoxatzen jende hilik eta güziek ber herioaren seiñalekila heda. Jinkoak ta haren ama Berjinak egin dien ber bidetik joan dirade, ta zü hantik ez igaran nahi. Eztüzia arren askazirik ezetare adiskiderik herri hartarat abiatürrik diradienatarik, batere batan düzün amore dremendena haren ikhusteko egarria dereizüna; edo etsai haiñ handirik düzia hau non haren ikhustiaz ikhara zitian.

Ezkentake (ümen) botztaroan izan mündü hontan ta berzian eztait zerenez gure zorthü honaz enplegü hon bat egin bageniza lürrian, zeren zelian ezkünüke holako bat. Bena gütik dirade bizitzia beren odeiak ükhen eztütienak ta gütik ene ustiala dirade zorthiaz bethi hardün izan diradianak; hantik ere den izan bethi bizia maithagarri. Gaitz franko ükhen dükienaren, arren, eztü haiñbeste dolü merexi, baganaki ere zonbat arhin diratekian gure adiskide faltsien dolümenak mündiari gogo honez egin gintiro azken agurrak güti edo deusere ez dügülakoz üzten gure dolia merexi diana.

Bego, arren, lürrari harena dena, Jinko Honari ere eskent beria sekülan hil eztaitekiana, harek eskütik lothürük dereikü odeiak erdieraziren, Ekhiaren gaintik igaranen aiziak, düründak, ekhaitzak zankhopetan ezarriren, itsasoak ta lürrak ere ezpalirade bezala ahatzeraziren ta berriz hilen ezkiradian lekhian, güti jarriren, bizi ta hil bagirade konfidantza hartan.

BEREZITA XXII

Arima herratietaz

Khorpitzza delarik egongei, ehortzi izan den lekhian, arrazoak nahi lüke orozbat ladin arima, alabadere dialakoz Jinkoak potore güziak arima herratütik izan eztela ezetare izanen, erran ezki-niro ta ezpaliz ere, arima eztela hilagrri Jinkoak nahi ükhen diala jendiari egia harez eman zon-bait gerthaldi dateke brobatzeko erran dügüna. Egiazki megopia flakier iratzarrian edo loan ardüra zereitzelakoz mamü ikharagarri batzü agertzen, hen sinhestia lizate haiñ ahalkegarri nola egiazkoaren arrabokatzia Ehüntze ta herri güzietan arima herratien agertziak diradialakoz izan üsü ta jakiliak mündüko gizon handienak, hetarik S. Lukek, apostoletan Jinkoak berak gogarditü dütianak, S. Augustinek ber gogome-nian dago dialarik agertze hetarik ametsak berhez ezarten.

Lehena da Moisaren arima Taborko mendian agertü zena. Berzeren brobat eman eztaiteke, bena bai gerthaldi zonbaitez gaizak errimatüren

dütügü. Samuelen arima agertü zela dago ezkiribü Santian jarririk. Kondairak dio Saul erregiak Samuelen herioaren landan, Filistiennen kontra batailla handi baten meseperan Jinkoa ziala othoitzen zer eta nola egingei zian. Iklusirik arrapostürik etziala hareganik, ezetare profeten ahoetarik, esparantza bagiek bezala, ziala egin Jinkotik etziana debriari galtho egitian. Belhagiliak errege harek zütian deslüratü bena sinhestian balima zombait ziratekiala herrian egon, zian manhü eman bat buska leizen; ideren zenian, nahiz bere jokia gorde, abiatü zen gaiaz haiñ desitxuratürik, bi aitoren seme lagün inakina noblezia handitik zela, dioe Hebroek, bizioek ziala halakatü.

Saulek ikhusi bezain sarri, heia zer ofiziotan zen ari, harek: *«Jauna, nahi naizia ta zü ere galdü, erregeren editak othian eztakitzia»*. Baietz, erregiak, bena beldürrik bage eri ladin, berme zagoela, zükiala kastigoaren lekhian dohaiña. Düdan zagoelarik belhagilia arnegüz zereitzoan hitzemana berritü ta gaiza hen artetik ürhünago etzela joanen, ordian sorgiñak galtho egin zereioan hea mintzatü nahi etzükianez etsai

hil baten arimari? haren üdüria ageraziren zereioala harek baietz.

Appoloniusek agerr-erazi ere zian Akhiles bere thonban hogeitasei zehe handitarzün ziana. orozbat berze batek Basila Enberadorari Konstantin bere semia bena holako elhetara nor laite fida? Ezkiribü sagratiak dirade, berze althe Samuelen arima agertü zela düdarik ezta. Saulek galtho egin zereioan sorgiñari zianian jesto zonbait egin, heia zerbait ikhusten zianez? harek baietz lürretik jalkiten zela bat. Nolako zen? Gizon zahar ohoretsü bat profetaren gisala soiñekoa diana. Hitz hetan Saul zen belharikatü, Samuelen aitzinian harek.

Harek: *«zergatik naik gaitzkaltü ta mündiala berriz jin erazi?»*.

Saulek: *«beharrak egotekoz niz nekatürrik ta zelütik ere galthoer eztüt arrapostürrik»*.

Ordian Samuelek erran zereioan: *«Gizon, Jin-koak ützi haiana zergatik deitadak galdotarra? Asmatü düdana dük heltüren, Filistinek hire armada diek porrokatüren ta hi hire hurrekila ziratekie enekila»*.

Hala heltü zena. Etzen hori sorgiñaren obratik sorthü zen irudizpena, bena bai egiazki Samuelen arima Jinkoak Sauli igorri ziana.

Jüsefek ere libürü 17gerrenian, Judioen aitzin gaitzetan, dio Alexandraren arima zela bere emaztiari agertü ta kharrazi zereiola oarriratü, zialakoz bere lehen senharra ahatze. Ikhusten dügü ere Appoloniusi agertürik gizon gazte bat bere arimaren zorthiaz arranküran zereioala erran etzela hori haren egitekoa bena bai Jinkoarena.

Ezkiribizale zaharrenetarik batek dio Troilon Frigiako herrian zela andere bat zakianak bera beno ederragorik etzela ta bihotza amoros ziana arauiala. Jinkoak zereioan eritarzün harrigarria igorri non hantik haiñ itsusi lehen eder zen bezaiñbeste beitzen gerthü. Alabadere zian bethi bihotza aitoren seme gazte batez errerik alporra, maite zianaren ürhüntziak ta doloriaren ezin erranik zen aldizka athitxatzen, sü bat herioak baizik hil ez zirokiana, Jin zen azkenekoz madika hotz izigarria eta ereman bereki sükhal-tia.

Aitak eta amak nigar franko ta marraka egi-
nik ehortzerazi zian ohore güziekila alhaba
maite, maita zialakoz ere hatü ederrak bereki
zereitzen Lürpian ezarri güziak. Sei hilabeteren
landan zen heltü aitoren semia ta maite zianaren
etxerat züzen abiatü zen, haren aita zian adiski-
de, honki jin ta honki bathiak, ürrikari ziradian
izn, ta han jaun gaztia zen ohatü.

Hantik llabür gaian andere hila bere arropa
ederrenetan zereioan agertü amoriotsü elhez ta
karexetzaz akogatzen ziano, zagoan jaun gaztia
harritürrik bena emekiz emeki zen hartara atrbitü
Gai batez etxeko jauna eri zen eta Anderiak bel-
dürrez zereioen igorri neskato zahar bat berri
jakitera, lanpada eskian. Heiagoraz zen joan
ihesi ait amer erraitera hen alhaba zena, jaun
gaztiaren khantian zagoela jarririk ta hareki
elhestan. Hek erho bat zela ta emazte gaizto bat,
bere bürüzagiren zauriak hala berritü nahiz; ala-
badere ama ohetik jauz ta laister batetan bere
alhaba ikhusi nahia zelarik beldürra beno azka-
rrago, zen abiatü ixilik jaun gaztiaren khanbera-
la ta ez deusere berriagorik borogatürrik eraitsi.

Erhokeria neskatoaren bürían zela erraiten zütianetan, zen ustiatan, harek Jinkoa zelia ta lürra jakile egiaz deitzen. Amak behar ziala, otsez, gaiza thipiltü zen belhariko jarri jaun gaztiari galthoz heia egia zenez zereioala igaran gaian alhaba maitia gertü? Ez nahiz erran egia, ezkapagiak zütian buskatzen, bena amaren nigarretzaz flakatürük, egia zela erran zereioan ta aithortü ziradiala izkontü ta düda elezan anderiak eman zereioan arhaztüna lephoko oihalian troxatürük zereioan erakhutsi.

Ama gaiza hek ezagüt'eta engoixatürük zen erori ta arrapiztü bezain sarri, gaiza her mila pot eginten zialarik, azaliala etxeakoak heltürük, güziak nigar thurrustak, amak besarkatzen zialarik sünhia: «*othoi ta othoi, otsez, ezadazü erakuts oraiño behin nere alhaba maitea?*». Harek, baietz.

Heltü bezain sarri anderia, kheiñü batez igorri zian mithila amari, jin zen laister aitareki ta biek batean besarkatzen zielarik beren alhaba maitea ta nigarrez bustatzen, zagoan alhaba ixil ta dolütsü; haspere lüze baten landan: «*Helas (zereien erran) ene aita ta ama maitia zonbait*

kario dükezien jakinandia, ezi berriz nigar dereiziet eraginen», hori erran eta zanba hilik da zelaurian erorten, khorpitzak dialarik ürhin afa-garriena egoisten. Etxenkoak lotsaz harritürik hen marreketara, aizoak ta hiriko jende güziak laister ikusgarri harrigarri hori beren begietzaza ikhusi nahiz daude harritürik.

Kontsulek hilaren thonba altxa erazirik, kopa bat ta erhaztüna, aitoren semiak eman zereitzo-anak zütien han ediren, berzerik deusere; man-hatü zian gero kehn ladin khorpitzta etxerik ta arakietara urthik. Jaun gaztia bere flakeziaz ahal-ke-türik, doluz ere bihotza azthizkatürik, ezpataz zian bere khorpitzta igaran ta hil han berian.

Hala dago kondaira bera jakile izan zenak ta berak Hadrian Enberadorari igorri ziana, dioan bezala ezkiribüz adiskide bati. Dago ere egia zela gizon behar bezalako, Phlegon zen deitzen ehün urthe edo üngürünetan J.K. herioaren lan-dan zen bizi, harez ere da S. Jeroma mintzo ta kristia ez izanik ere dereio laidore, ziana mere-xia, hantik Paganen sinhestia, hantik ere Jinkoa-ren poteriaren seiñale bata, harrigarri.

BEREZITA XXIII

Azkenaren jarraikia

Hebreuk hiruretan, urthekal, arima berhezien besta zien egiten ta hilen thonbetan ezkiribüz jarten: *Den haren arima, biziñ buketian jarririk*. Egiptienek haiñ azkar zien sinhestia, arimak behar ziela latzatiak izan, mündian eginzien bekhatietzaz, non hilen ehörtzetan khorpitzia erdiratürrik altxatzen beitzien ürdaila, hütxa nimiñi batetan ezarten ta Nil ühaitzaren bazterrian zütielakoz hilak lürpian jarten, hara zaradianian hil ohoreziak heltü, oihü egilek zielarik hütxa eskietan, zian gora erraiten: «Hila, bizi izan zela deboki aitasoen legeen jarrikian; bekhatürrik egin bazian bere khorpitzian galto ziala pürga ledian arima»; pürгатzen zien haren ürdaila bekhatien ontzian bezala, egoisten zialarik hütxa ühaitziala.

grekoetzaza zer eztügü erranen, Platonek, hen filosofo handienak Purgatorioan zian sinhestia, gük beno tinkoago, ta arimaz dio gure theologienek beno gehiago.

Errumañetan Kintilinak dio, xahüki: «*Arima zenian süiaz pürgatürik zelialat zabilala xüxen*». Ikhusten dügü ere lehen kristianek hilen arime-tzaz ziela othoitze egiten, obertak ere esken-tzen. Erran elaitte, arren, paganetarik dela othoi-tze hau jin, bena Aristokak dioan bezala Jinkoa-ren botza zeliaren ahotik jin zereikünaz; Aita Santiek dereikie gerthaldi franko eskentzen, dereikienian erraiten Izairiaren leger bihurtzen dena, pagan beno sordeitz dela S. Augustinek eskiribatzen zian Janvieri: «*kostüma xahar baten herexak dütügünian eliza güzian edireiten, argi dela apostoletarik zereiküla jin edo Jinkoak pote-re eman dereioenatarik ta harzaz aharratü nahia, erhokeria dela oiztekiziala doana*».

Nahi düzia broba següragorik. So egizü Fran-tzian Xalon Saoneko eliza bilzkürrari hilen othoi-tzentzat, Españan Bragakoari, Alemanian Worm-sekoari, Italian seigerrenari Erruman, Grezian batzarre hanitz, Marciusek aipatzen dütianak, Afrikan hirur bilzkürra oekuminiker so-egizie. Badeia arimarik Purgatoriotik igaran behar eztie-netarik? Bai, düda gaberik, dago gerthaldia ohoin lealian, Jinkoak erran zereionian: «*Egün*

hizate eneki paradüsián». Hanitz ere bertzerik hala hil direnetarik, S. Krisostomak homelia 32ian, S. Matheu-ian mintzo da apezan eta pro(fe)ten bilguraz hil otoientzat. Erregen lauge-
rrenian, Saulen arimarentzat mintzo da S. Paol ere Korinthiener lehenian, berezita 15gerrenian, hilentzat behar ginandiala bilguratü dio ta Maka-
been bigerrenian dio santü ta salbagarri dela hilentzat othoitzia. Nork ere dü S. Agustinek beno
gehiago ikhusirik nor den dioanian 37 psalmian: «*Jinkoa egin naizazü halako non hil nizaitekenian Purgatorioko süiaz beharrik eztüdan*».

Non den Purgatorioa Eliak eztereikü erran, ez tala ez paradüsián, ezetare infernian dioe; batzük die lürrián barnen jarten, berzek airian, han direlakoz pürgatzen zeliala igain diradiano hen egongia dela, puragatorioa die deithü; gogomen hen dago arrazoari argiágo; hanko thürmenttetaz deusere eztakigü, bena Jinkoaren ez ikhustia eta haren ganat nahia min handienak diradiala uste die dottor saintiek ta hartakoz Jinkoari othoiak maithagarri, dialakoz ikhusten maite dütügüla ohartzia.

Deusere sinhesten eztianak Izairia beno gorago, eztü Izairiaren Jinkoa sinhetsiren, zonbait gaiza deitzelako oitoginek ikhasten, dereikienetan ekarraien, dereikülarik Jinkoak arrazoak gordatzen. Demokrita filosofoa ari zelarik berze jakintsü batzüeki Izariaren segretüen elhestan zian bethi eskian kathozita harria bere gana gaiza güziak atheratzen dütianana; ezinez ediren berthüde haren zaiña zioanm segretü hanitz ziradiala mündian apalago ezarten zienak gizonaren megopia eziez ez haren jakinandia, askidatzen beitzian.

Erradazü zük gaiza güzien arrazoa nahi düzüna, zergatik theumeda harriak alde batetik atheratzen dian bere ganat bürdüiña ta berze aldetik zian buktzatzen? Zergatik erliak dirn hiltzen, hil zireianian Erregiña, lekhüz ezpadirade kanbiantzen? Zergatik erhailiren eretzian gizon hilak dian odol egoisten? Zergatik? Zergatik Blomuseko üthürrian hura den gorritzen gerla denian pizten? Gero erranen dereitzüt, nik ere, Jinkoak nahi ükhen diala arima herratiek biziékila diradian zonbait aldiz mintza.

Petri de Cluñy Frantzian sorthü zen giaon handienetarik bata ta bere berdhüdietzaz, haren denborann famatienak, dio Naüarran Estellako hirian, zagoala aitoren seme bat bere sortzepe-naz, aberastarzünez ta bere zelaiadi ederretzaz errespetü handiz gozatzen zena hirian ta bazte-rrretaz: dn Pedro Engebort deitzen. Adintsü ja zelarik frairetü zen Cluñyko ordenian, nahiz bizi-tziaren ta herioaren artian bere arimarentzat ütsarte bat; berze frairekila mintzo zenian bere berzaeraz zioan agerinde batek ziala obratü, zian er eharen kondaira egiten laski nori nahi.

Petiri de Cluñy Espaiñala abiatürrik, bere ordenarentzat gaiza hek entzünik, nahiz ere jakin egia joan zen Najerako konbentiala mintza-tü nahiz fraire Engeborti. Obedantzan izenian galtho egin zereioan, zer zen haren agerindea-ren kondaira. Engebort zen gizon astüna ta aipa-tzen zianetan net behatia; erran zereitzon hitz hek Petiri Cluñykoak, berak ezkiribüz ezarri dütianak:.

«Alfonsa gaztiak, Alfonsa Handiren pri-mia Kastillan zirelakoz jendiak menaldetü,

etxekal gizon bat igor zereitzen zian erre-
suma güzian manhatü. Eman nion ere
mithiletarik bata Sanxo zien ziana. Gerla
akabi bezain sarri etxerat zen ethorri,
handik llabür eritü ta hil. Ehortzi günian
gure kostüman gisala. Gai batian, negina,
iratzarririk ohian nangoelarik ikhusten düt
gizon bat sükhaltian ta süia hontü zena
barreiatzen, ordian ilhinten argiak zereita-
dalarik mamia hpbeki agertzen, lotsak
nündialarik ere tinkatzen, Jinkoak eman
zeitadan indar beharra galtho egin ahal
nereitzoan: nor zen ta zergatik jiten zen
nere süiaren desestaltzera? Apalki zerei-
tan arrapostü: *Ene bürüzagia etzitiala
lotsa. Sanxo niz, Zure mithil gaxoa. Casti-
llarat banoa soldado, athe batekila bekha-
tü egin dütüdanen ber lekhian garbitzera.*
Borthizkiago balestüririk, nereioan erran:
«Jinkoaren mezütik haratko bazirade,
zeren honat jin zirade?» Harek: *Eztakizula
gaitz ene bürüzagia, ezi Jinkotze baimena-
rekila batian dago gaiza. Eniz esparantza
gaberik zokhorri badereitazü emaiten».*

Berriz galtho egin nereioan, zer nahi zian ni ganik? Harek: *badakizü nere nausia igorri nündü-züla, gizona santü gertatzen ezten, ofizioala, gazteroak, gerthaldi gaiztoek ta kidarri txarrek die laister sodadoaren arima galtzen. Gerlan egin düt gaizki handirik, ebatsi orotan, arpillatü elizak ta hartakoz nago nautsia handian bena ere nausia, maite ükhen banaizü bizian enaiza-züla ahatz herioan. Zure aberastarzünetarik deusere, bena bai zure othoitzak ta amoinak dereitzüt galtho, ene minak ezti(tü)ren dütienek. Nere bürüzagisak zor dereit zortzi peseta edo üngürünia, othoi detzan jar, ez ene khorpitzaren, ezzialakoz behar batererik bena bai arimarentzat, zien onesgümenen aidürü dena.*

«Eztait nola bihoztoitü nintzan mamü harekila nian haiñbeste gozo mintzatzian, nola lotsa egin betzeitan. Galtho egin nereioan ene herritar baten berri Dn Pedro de Jaca? Sanxok nautsia enandin, azken herriko gosetian bere honki eginek, ziela paradisüala eraman. Nereioan ere,

akadoi ezagütü nian baten berri eman leizadan? Erran zitadan, saldü zialakoz *justicia* infernian zagoela següro.

»Jakin nahiz ere zerbait Alfonsa Handiaz, ene ohiaren hüillan zen leiho batetik berze batek erran zereitadan. *Santxo beno, bost urthez, hil zaharrago nizalako z niri ta ez hari printze haren mintza zite, dakidalakoz, harek beno gehiago berri.* Izitü nündian botz harek ta argizagiaren medioz ikhusi nian non zen Errege Alfonsa erran leizadan? harek zakiala frairien othoitziek honki handirik egin zereiela, bena non zen orai erran elirokiala.

»Handik Sanxori soz, erran zereioan: *Goazan ordü da abia gitian.* Zen Sanxo jaiki ta joaiten zelarik lastimalki othoitzan nündialarik azkenekoz: *zü ta ene bürüzagisa nitzaz othoi ohart zitezte!* abiatzen zelarik zereitan erran.

»Biharamünian Engebertek emaztiaz jakin ziala ber ikhusmena ükhen ziala, biek ta laister konplitü ziala Santxoren othoia».

Zer dūgū gaiza hetzaz erranen salbū S. Augustinek, hilen errekeitūz libūrūban berezita 15ian: soegitia ta sinhestia non etare ezpeitaki-gū zer den hilen artian igaraiten, hek ere bizien artekoak eztakitzela, hetara joaiten direnetarik baizik ta dūgūlarik angūriak gureki, hek ere dūtiela beriak Jinkoaren manhiak erraiten eta eragiten dereitzanak guri beno hobeki, doi dirad-ianak.

BEREZITA XXIV

Hilen bitzairaz

Hirur mila urthez lehen, eziez libürüak, dotorak ta eskolak gerthü beitziradian mündian, dügün Job Saintia beha berze bizian dioanian: «*Dakit ene erredentora bizi dela, mündiaren azken egünian lürretik nizala bitzaitüren ta ene aragietan düdala Jinkoa ikhisiren, nihaurek düdala ikhusgei berzeren begietan ez, bena enetzaz düdala beondaztüren*». Nork zereioan erran? Bere izairiaren argiak.

Ezekiel Profetak dio Moisen legeen erakidioan, *zien thonbak idekiren dütüüt ta hetarik zütiet khentüren*. Ezkiribü Saintiak dio, ardüra, Jinkoa, Abrahamen, Isaakan ta Jakoben Jinkoa dela. Jinkoa dü bizien jinkoa, hilak ehortzen ta bizirik ikhusiren dütiela, Izairak dereie erraiten. Dügün Paganak ikhus, Anaximandrak khorpitzzen bitzairaz gaiza utzezarriak bezala da mintzo. Athenagorasak gütik segürtatzen Pitagoraren ta Platonen ber sinhestia ziala. Azkenak ere dio infernü bat badela non khorpitzak bere arimarekila erre-

ren diradianak; hetarik batek dio gaiza bizirik lürrian eztela hilzenetik sorthü eztena.

Demokritak gomendatzen dü hilen ehortzia, direlakoz haren arauiala arrabiziren. Erroman bi adiskidek ezkiribüz ezarri zien: *Lürrian thonba bakhoitza nahi ginian gure arumak diradialakoz algarreki zelian*. Lucius ta Flacus deitzen zira-dian. Berze batena aldiz da Aulus Egnatius izen ziana: *bizi nintzan jakiteko nola behar nian hil, orai boztaroan nago*. Berze batek: *Nihaur bizi izan niz, nihaur nahiz bitzaiatü ta nihaur izan akadoitü*.

Gure Salbadora bere bitzairaite landan, berrogei egün lürrian egon dela, dio S. Paolek, ikhus lezen honki ta mamia nahi zienek sinhetsi amoregatik Paganek ere sinhets lezen bitzaitzia. Egiaz horrek garhait elirokia megopia? Zeren eta gaiza behin egina ta izana deusest'ezpeitaite. Hala gure izakai egin dianak gure khorpitzia beiti-ro nonbait, zertan nahi ta inon nahi egar. Jinko-ak deuserez mündia egin eta, elükian erhauts apürren gizon baten egiteko potheria lizate düda erhokeria.

Heraklite filosofoak dio thipiki sortzepena dela ühaitz agortzen eztenaren pare, izaria dagoela mündian langilia bezala bere botikan büztantzü lürrarekila dianak egiten nahi diana. O! nork sinhets eliro izairiaren Jinkoak diala gure aragian ber potheria, Izariak diana mündian.

Ekantzan balizatekia eroskiarik? Eztaiteke zeren eta arima delakoz khorpitzaren orkheia, galkida gaberik, bethi dagoena, bethi bere khorpitzari algartü nahiz egarrian baitago, hartara bitzaira gabetarik hil ezpeitaiteke, ezetare gizona zorthü honetarik hobeniala hel eztiradiano. Khorpitzta ta arima pezal bakhoitz.

Ezta nekezia gaiza eragiterik jinen, zeren eta harrigarri belizateke ükhantzia Jinkoari berriz egitia behin egin dianaren potheria, dügularik egünkal Izairian gaiza berririk ikhusten, gure zientziak igaraiten dütienak, ezpaliz baizik ere bizia diena gaiza güziek; zer arren eliro obra, gizonaren arima egin dianak? Denboraren lüzetarzunak bara elitiro eztelakoz berantiarik haren eretzian ezetare gizonen dianik, zeren eta lürrerko dierri güziak inhitz txorta beitirade harentzat.

Aithortü behar dügü, bizi gireno mündian gizonen khorpitzak hainbeste min ta eritarzün dütia la non ezpeilizateke bederaka dirade ere haiñ lüze ta haiñ mingar non ezpeita mündian arimalik gizonaren sordeitz denik, hartakoz ere noizpaiteko betk zioan osagarria Jinkoetarik lehen zela. Ezi zer da arimaren eskelegoa egongei denian khorpitz batetan eritarzünez hirotia denian? Erregiña bat palazio batetan memento-kal hortara doanian bezala, Delakoz khorpitz arimaren egongia, han ezta laket ezteno sanoki ta ozenki ta ez khorpitz bethi eri bada, dagoe-larik arranküran, dago presontegian. Hantik arren jalkitia dateke haren bethireko egarria, dakialakoz berze bizitze batetan eritarzünik batere eztükiala, ezetare goserik, egarririk, hitz bakhoitz bizitze oraikoan diradian gaitz athetarik batere.

O Jinkoa! zer faboria haiñbeste podagros, lür minez, ügeriz parelisiaz, zorminez, helgaitzez, harriz, gararillaz ta mila berze minetzaz lots'izaitia. Zerbait hetarik dükianak ükhen, zer balio dian bage izaitia. Zerbait hetarik dükianak ükhen, zer balio dian bage izaitia daki. Noiz date-

ke, arren, orena gure khorpitzaren peziaz giraitekenian arhintürrik. S. Augustinek dioan bezala, arranoen pare, ordian, borhondadia bezain laster norat nahi baikirade heltüren. Han, eztate okherrik, makürrik, ezetare txankürrik. Zenonek dio Edertarzüna dela lilien botza lili botza dialakoz amorioa deitzen, da izen bagetarik bera sartzen da Ekha bezala bortharik, ezetare leihorik hautse bagetarik ta arrapatzen dialarik bihotza, maite diana, gehiago gozatzen da eziez bere dianaz; halako nahi güntüke Jinkoak bere eretzian ta halako girateke sekülakoz.

Lürrian aldiz zer da edertarzüna, gorotz zathi bat, elhürrez estalirik, beire bat kolore faltsüz pintratia, arakei bat horek zathizkatzen diena; jarraikezazü mamua, hari loth, jakiteko etxean egonen zereizünaz: zirateke ahalke. Egiazko Edertazünak ta handitarzünak dirade bitzairan, han dütügü segürenak edirenen ta arimaren hobeki izaitia berze bizian dago.

BEREZITA XXV

Gizonaren biaz

Bizia lüzatü nahiz ahalena ari girade, medio güzietzaz errekeitatzen, osagarria ardüra ere hetzaz dügü llabürtzen, Vestalen süiari atixatzez bethi bizi zenari, ezta gure khorpitzta pare, hartan abentiaak üda hozten ta negiak kharrustatzen; urthiek ere dereie süiari emeki emeki hur hotz ixurten, lehenik garra gero iilhintiaak, azkenekoz inkhatzak itzaltzen, hiltzen dereitzona; sü hau ezta errekeitüz arrapitz daitekiana. Alpor beriaz bizi zeno zen ganargi ta flakatzen zeno, zokhorri zereio eman, bena lehen bezala ezta desti-eraziren beraren alporraz baizik eztialakoz alporrik; sü gabiak ere dü bizia atzenkidatzen khorpitzta abartzen, ximaltzen ta nekatzen.

Gütik dirade, bizitza izigarri lüze ükhen dütienak, halakoek ere egiazki min handirik die ükhen ta bizitze güti. Jenesak Patriarketarik dioan zahartiena zena da Matusalem. Alabadere S. Petrik dioan egüniala etzen heltü: mila urthe zütiala apostolü handi harek dio, bena Jinkoaren

eretziarik heke ez tirade egün bakoitz baizik. Biblia ezta mintzo emazten adinaz, salbü Sara Judith ta Anarenetzaz; bena Eüarenaz hitzik eztü aipatzen, alabadere dakigü güziak erhautüstürik daudiala, gü ere halakatüren giradiala.

Greza, arkanbilen ontzia denak, gezür franko dereikü, adin lüetzaz barreiatü ta erakhutsi bürüzagisa zela hetan, Phlegonek dio irakhurtu diala Apollionosen obretan Atheniensek nahi zielarik *Isla Lüzia* mürrüz üngüratü, langiliak hartan ari zirelarik thonba bat, ehun besata lüze, ziela ediren ta ezkiribüz gaiñian: *Macrosiris, heben dago lürpian Isla Lüzian bost mila urthe betherik bizi izan zeno*; bena ahal laite, kondaire alakoa elhezaharren herrokan jarririk lizatekiala.

Gaiza güziek mündian dereikie biziaren llabürantza erakhusten. Ogia, bizi girenaz zainetara drano urthekal da hiltzen; biñatziak urthe hartzen dian beste, negükal herio zereio jiten: zonbatetan ondoak arralanthatürik ere ezta hordien egarriaren doiala bizitzen. Sagartziak, peratziak, serisatziak, lantha früta emaiten dereikien güziek, hiruretanhogei urthiak eztütie igaraiten,

haboroenak, gure adinaren üngürüniala dirade heltzen.

Zaldia, hogei bat urthe, hora ta gathia hen erdia dirade bizi, polaillak adinik eztü zahartü beno lehen jaten dügü. Zer hek nahi die erran? Baizik: *zertan ari girade mündian?* Gaiza beharrenak haiñ gütik denbora dagoetzan lanthatzen, ürrhia ta zilharra dirade lüziago ireiten, bena ahalik tinkoena begiratzan dütügülarik, eskü barreiazaletara dirade erorten. Oreiñak ta arranoak dielakoz bizia gük beno lüziago, gure flakeziren ahalkez daude dütarik ürrhün.

Handiak nahi lüke bizia bere potheriari zehatü, bethi gogoa dü hartara, bena lüzatü nahiak dereio bethi llabürtzen Garciak dio Zelaneko errege batek entzünik *aiman harriak* bizi alüza-tzen ziala, harri harez jateko ta edateko ontziak zütiala eragin, bena berze gizonak bezala zela hil. Gizon zaharrari gaude begikhaldiz, haren adiniala heltü nahian, bena haren minak ta flakezia ezkünüke nahi. Phlegonek, ja erran dügünak, jenderen adin handiena edrien nahiz, dio Errumako erresuma güzia, zena hüillan lür güzia, ziala ikhertü ta ehün urthetako gizonen izane-

tzaz papel plama bat ezin bethe ziala, bena ezki-ribüz ezarri balütü berrogeitahamarretara heltü etziradienetzaz, libürü handirik egin lükiala, dio.

David, bere psalmietan patriarken adin handiaz mintzo denian, dio, jendiak bere bekhatietaz ziala bizia haiñ ññabürtü non hiruretanhogei urthian, bere denborako gizonak, zahar betziradian ta gütik lauretan hogeietara heltzen ziradianak; orai ere orozbat. Pompeak bere bildokia !Erremuan konsagratü zian egünian, gozomen handia (ümen) zian ükhen, ikhustez, han dantzana, Galeria Copila, 99 urthez ofizio hartan ari zena. Bena zonbat dirade halakoetarik geroztik? Batere herioaladrano ofizio hortan erauntsi direnetarik.

Jende apala doa ilherriala hur goterak bezala itxasoala, gogoia hetarik ürrhün doa lehenago handietarat, mündian balirade gizon bakhoitzak bezala. Alabudere ber mündia izan dena Enberadorik ezetare Erregerik batere ehün uthiak onki dütianik ta lauretan hogeiak ere gütik. Hetarik Anastasa lauretan hogeia ta zortzigarrenian, düründak erre ziana. Jüstinian ere 83etara heltü zena.

Aita Santietan S. Petriren ondokoenetarik gütik dirade hogeitabost urthe kaideran jarririk egon direnetarik edo ezta bakhoitzik eta hetan nekez bost 40 urthekoetarik. Jean XXII 90ak zütian herioak bere zekiñgoatik zianian ideki. Paol III urthe bat zian gehiago, Paol IV 84etara zen heltü. Gregorio XIII ber adina zian ta Elizari amorio ziana gatik, ez aski zen bizi.

Santiak dirade lüziago biz diradianak. S. Joane, S. Lük(a), S. Polikarpa, S. Denis, S. Paole heremita, S. Anton ta S. Remualdo ta berze fraire sandietarik, üsü dirade bizia lüzatü dütienik, beren bizitzia hartara zerbüttxatzen zütielakoz: bethi Jinkoari mintzo, gogamen güziak zeliala, botztaroa bihotzian, megopia arranküra bagerik, hazkürria, beilla ta loa bethi bardin, lanak ere orozbat. Zürübü baizik berze biziala igaraiteko ezten egiten, igaite hartara hanitz urthez adela-türrik, bethi zaudian manhiaren beha ta angürü-lagün gaiak hen aidürü, hantik hen bizi lüzia, halako bizipenak merexi zian bezala.

BEREZITA XXVI

Egiaz

Düda ta ez sinhestia dirade bi eritarzün, mündia sorthü ta biziren deno, sendotüren eztiradiak. Gezürak dialakoz eztia lagün, gogo honez dügü ireisten; bena egia delakoz latz, nekez dügü nahi ezagütü, argi denian dügü maite, ta harez lotsa zistatzen dianian.

Laur gaiza dirade mündian gordegoan, denbora, aizia, lürreko paradüsia ta egia. *Denbora*, gure бүrien gaiñian dabilalarik bethi bederakatzan dütü gure үррhats güziak, bethi gure bizia-
ren jarraikian dabila, eztakigülarik zertan den ari, ezetare zer dian egingei. Auherki dirade ari haren hatsarria ikhertü nahi dienak, bena bethi azkentziala, uxtez berriz behar die lana arrahasi, sekülan ez үррhentzeko ari dirade bethi. Hartakoz noizpaikoeke thorrietan triton бүzтанak ta күркүüllü zien ezarten erakhusteko denborak hatsarrerik ezetare akabaillarik etziala; hartakoz ere profeta Isaiak zioan: zerafinek beren hegaletzaz zütiela Jinkoaren hoiña gordatzen; guri erak-

husteko (dio S. Jeromak) zonbat jakintsü gaberik giradian, mündia beno zaharrago diren gaizetan ta haren landan juan direnetan!

Aiziari, aldiz so egiten badügü ikhusiren dügü ta aithortüren. Gizonak khozü baizik eztiala hasmatzen ta hargatik xühürrek die arrazoatü, heia behar lizatekinez Izairiak lükian aizerik, zeren eta zerbaitetan honki egiten badie, hanitzetan gaitz beitie obratzen; ezi egünkal dügü ikhusten ontzi handiak gizonez ta aberastarzünez bethiak aiziak dütiela itho-eraziten, berze althe zühaiñak erroetarik dütiela botatzen ta etxiak egoisten. Dügü ere ikusten odeiak dütiela apartatzen, lürrari hur eman-eraziten ta bere khoziaz airia pürgatzen, diela ontzier aize beharra emaiten ekharr-eraziteko lekhü batetara, Mündü güzian berhezirik diradin aberastarzünak.

Gaiza hetzaz botz bakhoitz girade. Bena nontik ta nola aiziak ari diradian girade aharran, batzük dioe, inkarien gerlatik, atoma bertzela deitzen dorenearik, dela aizia sortzen; berzek nahi die Ekhiak pürgatü dian airetik dela; berzek Lürretik jalkiten diren boheta edo baporetatik, berzek izairairen ürtzainkietarik, bena profeta

handiak bere psalmü 134ian dio Jinkoak bere thesauratik dütiara aiziak igorraiten.

*Lürreko paradüsi*az theolojiene bilhaskek ezte azkentzerik ta lan franko dü emaiten Jene-saren azaldiak. Elias Thesbit atrebitü da erraitez, baratze miragarri hau zagoela ohi bezala ta sart-hü ziradiener han, haiñ maithagarri zereie la non hetarik batere jagoitik jalki ezpeitzen. Orijenak aldiz, Platonen jarraikian, dio Paradüsü Kaldaika (hala deitzen dü) dagoela Jinkoa üngüratzen dien berthüdietan. Batzük kokatzen die Indietan, berez Mesopotamian dilobioari galtho, beha zereien gaiza. Egiazki gaiza hau dago haiñ gorderik non Jinkoa beita berbera dakiana.

Egiazki ere gure fediarri dü lan eman nahi, bena ez gure jakin nahiarri bere doia.

Egia bezaiñ gorderik ta ez ezagütürrik mündian ezta gaizarik. Demokritak, egia baizik bere bizian erran etzianak, zion haren altharia lanhoz ta odeiez estalirik zagoela, hartakoz hartara inhur hel elaitekiala; egiazki jakintsia heltü bezain sarri hara, auher ta gerla baizik filosofoen artian eztügü ikhusi, hek nahiz mündüko khorpitz handia zathizkatü ta beren artian bilhaske-

tan nor bere sinhestiaren fabori tinko egoitian, mündiaz beitie amets bat egin ta hala egia porrokatürük, zertara ez jakinez loth erori beikira-de düdaren ta ez sinhestiaren zorthü gaitziala.

Auherki geroztik Jinkoak bere semia lürrilat igorri, zelüko segretüetan jendiaren argitzeko. Zer dahantik heltü? Judioak diradiala bere lege zaharretan egon ta J.K.en harmak ükhatü, Mahometanak sorthü ta theologiaren aharrek Europaren bi herenak Lutheren, Calüinen ta zonbait berze maradikatien herejiaz bethe hor ziradian obra hongarri hen langiliak, diradeia erran. Elizaren pilarak behar zütienak izan, dirade zothükatü nahi zirenak. O! jaun apez hüskaldünak zier baizik hüskaraz mintza enaintekielarik nere diariaren gatik, othoi dereiziet egiten, megopiarik ezar eztezazien behar eztenetan; konferentzaz paira ez zitien misionetan, direlakoz, ziek uste beno hilgarriago, Jinkoaren amorio haren ta Elizaren manhiak batzu ez egitia, ginhuri ezkünükina nahi ta kharitate osoa diradiala berthüdiak artzaiñak bere arrotzen bihotzaren barnen jarri behar dütianak ta fedia erran dütien güzietan dela egiazko errelijonia, diot, jende perestiak

jarraikiten dütiëna, othoi ere Jaunak, barkhamen egizie nere zeloari, nizalakoë Egiaz kheirogo eziez theolojiazko bilhaketaz Khiristia izan nahi delakoë ene fedia, inkhatz egiliarena dena.

BEREZITA XXVII

Auherkeriaz

Ja nonbait eman dügü auherkeria bizio güien ama zela hüme hen bederakatzia heben ezta nere ofizioa, bena hetarik franko dütüt izentatüren, ükhan dezen merexi dien aletegi hügüna. Errelijionerik eztianak, da düda gaberik Jinkoaren ta jenden etsaia, halakoa gizon izena merexi eztiana, da Job Santiak Behemot deitzen diana; erran nahi beita arimala, basa arimal güzien izenak dütiana; auherra del ajinkoaren mahaiñetik akhazatürrik, otsoen pare, ohoikeriaz baizik ezta bizi, hek bezala gaia kanpoan egünez barnian han ebatsi dianetik heben jaten parte, berzia horditzeko ardu ta ogi trüküz emaiten, berak galdürrik berziak gal-eraziten dütialarik, ohoiñkerian dütü lagün(ak) jarten, ja dakielakoz ürkhaitegia-ko bidia, bre adiskider ere nahi dereia ikhasi ta lagüngoia hartan leial izaitia jende ikhasi ta lagüngoia hartan leal izitia halako zütienetzaz, laite erran zühürrak dioana, *aragiñari axuria bezala bere jauztejeji eraman die berak herioari*

jakin bagetarik bazoala. Nori da berset hau doi eziez jende gaztiari lagün gaiztoek tahernala eramanik tratü infernalaren egitera, hantik ohinkeriala doatzanak. Auherkeriaren obra denetarik bata, lagünkeria gaiztoak dü jende gaztia galtzen ta Judeako arboliak bezala frütürik bage ohil-eraziten. Fedia arimatik ihesi doa, doanian khorpitzia elizari ihesi. Jinkoa othoizten eztianak, Jinkoak dü üzten ta haren maredikiak dütü bethi lagüntzen. Bena entzüten da botz harrigarria: *Jinkoak erran dü gizon hori, jarezazie ezkiribüz, gizona da sekülan zorthü hona eztükiana.*

Hantik arima herratiak bezala, bethi megopia gelgaitzez betherik han, haiñ üsü baiak nola itxasoan, lotsa bethi jarraikiz. Bihotza bethi bieta(n) usikiz ortxikatürik eta janik. Begiak bethi ohil alde orotarot soz, beldürrez dezen jendiari ager arimaren belzkürak: ahoa bethi gahüntsü khorpitzak dian khozütik; halako gizonaz da Jeremia mintzo dioanian *orai dütüük hire ahalkia ta hire deslürratzia ageri mendi thinitik ditiagü ikhusiren.*

Gorde dütüka bandoler hizana, hire aita amaer lehen ürrhats maradikatiak haiñ errekei-tüzki non etzien borogatü gaiez ohoiñkerialat habila. Ez haiez, arren, aitag aski argoteiatü, ezkopeta khaldi batez zankoak hautserik argila-drano, haian ützi heda gorotzian aizoer arakhusgei, bere semian, ohoin bati thiro bat dereiola eman. Ta zü aita, aspaldian ikhusten eztüzia zure semia dela auhertü? Lana diala hügünt, merkhatü, eliza besta ta pastorala bakoitzari hütsik egiten eztiala ta züganik hartakoz diharürik eztiala, ezetare jesanik, arren diala ebatsirik? Dakizia Bazkoz ikhusi dianez jaun erretora; baiak edo ezak bardin dereizie zure semiaren arima infernüko süiaren khedarretik dela zathi bat, deizü salhatüren. Eztereiozia zerbait berririk soiñekoetan ikhusten, zük eman eztereiozüna? Berze jakilegoarik behar düzia, arren, etxen ohoiñ bat düzüla sinhesteko edo ohoinkerian hareki zireia erdizkan.

Zer, ordian, egingei düzün galtha? Laur mürrüen artian ezar deza, ogi ta hur zure khos-tüz eman, diano Jaun Erregiak egorri mila lekoe-tara ürrhün üure aurrhidiak desohora eztezan

hen ertzian ürkhätü datekenian. Ezi falta bage-rik halako düke serioa sinhetsezazü zü ere berme ziradiala Jinkoaren ertzian zure axolga-bian, semiak egin dian gaitz güzietaz zihaurek egin bazüntü bezala ta seme ohoiñak mündü hontan desohoratü zütianak, berzian zütiala erre eraziren.

Aspaldian erranik dago, ohoiñ handirik elitza-tekiala, ürkhan jar balite txipiak, ohoiñkeria dre-mendena da arimaren olio txorta ilhezko doatza bethi hedatzen, hantik ere frantses adajioa — arrautze bat ebasten dian, idia ebatsiren diala—. Jinkoaren manhietarik bata da, *berzeren hona eztük irritsatüren*. J.K.en lagünetarik batak, bidian diharü peza bat goititürik, zereioan erran: *Coesari ützüel ezazü Coesarena dena*.

Ebastia da arren bekhatü mortala, barkha-tzen eztena non gaiz ebastia ezteno ützüli bere lekhiala, berzela dago Jinkoaren mendika egun-kal, etxaltian erorgeia, nautsia dago ogenez berme, Dagoano xütik bekhatia. Jinkoak dütü herriak ta hiri osoak bere jendekila errhaustü, hantik zer eginen dian etxe bakhoitzak, nor düda daite?

Laisterka ezazü mündia gerthaldi güziak bil, ikhusiren düzü gaiztoak Jinkoaren esküpetan gaizki hiltzen. Kain, bere bizitze güzia otso gizonaren pare oihanetan igaraiten dialarik Lamechek dü erhaiten, Faraon Itxaso Gorrian ithorik, Nabukodonozor aberetürik, kabaleki bazkan, Holoferna emazte batek dio bizitza muzten, Senaxeribek arnegü baten gatik 180 mila gizon galtzen. Antiochos eritarzün harrigarriaz etsitürik, Nikanoren mihia boiltorek jaten ta haren eskia tenploaren borthan lanthatürik. Herode Agrippa dantzatik oherat hilik, Saturnin presidenta ütsütürik, Hermian bere jargian harrez janik, Leon IV zauriz estalirik, Julien Apostata zelüko lantza khaldiaz hilik ta geroztik zonbat ta zonbat gerthalsi Jinkoaren mendikaz ta bizioen kastigoaz ezteia mündi betherik.

O! gizon gaztia, enaganatzen dük hire arima, uste ezpadük Jinkoak ezteikala soegiten ta esparantzan bahago ezkapiren hizaiola. Bazakik jende perestietarik sorthü hizala, bidazaile honik ükhen dütia Jinkoaren manhien arrabuhin, aita amen amorioari traidore ta aizoen esparantzari okher nahi izala. Nola ibilten hizalarik bidesketan

ehiza lotsa bazterrian leze izigarria dianaz. Nola fida hiz hire lagüner, hekila larrütü nahi aiener. Eztüka ikhusten harat doatzala xüxen, eztüka ondar hartan haiñbeste jende zathizkatürük ikhusten, ta hi, ahariari lepoan nabela dereioanian bezala aragiñak, eztüka ikhusten herioala haiela eramaiten. Erradak ürkhak balio dianez gizon perestü bizitzia, dena lanaz aurhekeria ta bizio güziak haren hüme maitiak.

Lanabesez ta lankheiez porrokatzez hala berdhüder bihotzian bide dük eginen, zeren eta hekila batian hire aitzinekoer behiz xahü agertüren, berzela aldiz sekülan ezpeitüküt ikhusiren.

Etxeko jaunak. ezkiribü santian zioano erraiten: *«aita, ene haurrak Jinkoaren kegaiak jarrai etzezie ta zien arimak ordeñuz üt zien aiter»*. Ziek ere haurraz errazie *«Makabea Santiek zioena beren gehienaren ahotik»*: *hil gitian berdhü-dian gure anaiantzat ta eztezagün lohizta gure gloria bizio aurritu dereikien dremendenaz.*

BEREZITA XXVIII

Amorioaz

Amorio honki zehatia dena, lür güziako da megopia, orotan da sartzen, gaiza güziak dütü ikhertzen, güziak algarri adelatzen, güziak ere dütü animatzen ta haiñbeste milion aukera bizi direnetarik izairan, pezn eliraiteke amorioaren alporraz baizik. Ekhiak dian bezala khanbera batetan irabiak üngürü erabil-eraziten, ezpaküntü amorioaz guriak zothükatzten; amorio harez ahal giniro erran zühürrak ekhiaz dioana: «mündüko süiaren buhadera dela ta izairiaren obra handienak egiten dütiana».

Arpetz hartan ageri da amorio erhokeriari üdüri denaz ezkiradiala mintzo. Bego berhez, delakoz abere güziena, bata berziari hüillentü nahian dagoena. Betüstü dütia behin ber zühürrak dioan arotzaz, hartan ageri da gizon bat athorras izerdiz, khedarrez, baoen gorderik ta garren artian mantsotürik ari dela, dü ürrhe ta zilhar süian gorri-eraziten, unkhüdian dütü joi-ten, dütü lantzen moldatzen irakoiz ezorkei ta

gaitz batez dü ontzi bat egiten handien mahaiña janargitzen diana.

Orozbat ari da amorioa mündian, bihotzak arrapatzen dütü, lürrez edo morterez eztiradiano bere sü maithagarrian dütü antsiaren ta erranpiaren marteilliaz dütü joiten, probarentzat othoitzen jarraikiaz dütü limatzen, berdhüdez dütü leintzen ta haiñ eder dü obra egiten non lekhü beitüke zelü enpiratian.

Izairi güzia amorio egiazkoala doa, inhur ezta harez gaberik edo beharrez edo gürtziaz edo arrazoaz, hargatik S. Augustinek dio eztela mündian zikatzagorik ezetare nardagarriagorik eziez gizona, lürrian deusere maite eztiano. Gaistoen-tzat egiten ziradian hirañetan erraiten zereian — *ihur maite etziela ta ihurek maite etzütiela*.

Zühür zaharrek Izarian zazpi gaiza ezin hobekak zütien ediren ta zeliaren dohaiñak ziradiala zioen: sihetsien argia, akipiaren bizitarzüna, honki gobernaren potheria, baloria gaiza goretan ta nekezetan, megopiaren ügaridantza barnetetan ta amorioaren indarra. Orfeak ta Isidorak die hau lehena jarten dioelarik mündia beno lehenago amorioa sorthü.

Platonek zioenak igarika ari direlarik gogomen hartan hirur mündü dereikie egin, bata deitzen die Izairi angürütsüa, berzia arima ta hirugerrena mündü güziaren lankheia; bederen dereie beren ütxülibordokak gizona bere jakin-gabiaren ülhünpian die jarten. Mündü madetarra bere erthail güzien na(ha)stegoan die ezarten bena amorioak hirur ütxülibordoka dütü bereziki: Jinkoak gero egia handienen megopia angürütsüer dereie eman. Ezagützia, gizonari arrazoa ta mündiari bere eginbidia diradianak.

Gure begien aitzinian dagoena da kürkürü bethierekoa, Jinkoatik mündiala, mündütik Jinkoara, kürküriak dialarik Jinkoan bere hatsarria, beraren üngürrian dütialarik ere gaiza maithagarrienak biltzen, hori Edertzüna da deitzen ta mündian hedatzen deno ta berari atheratzen dialakoz dereie eman izena: amorioa. Soegiten badereiogü bere hatsarrian, gaiza güziak kokatü dütiala dügü ikhusiren ta, Jinkoari bere obra güziak igaiñeraziten, ordian botzkarioa dela deitzen, dügü aithortüren, dena Izairiaren, bre langilian, egia handiena. Halaz amorioa da kürküria honkitik honkiala bethi irabia irankorraz ützül-

tzen dena. Jakin nahi badüzü haren izairia, haren sortzepena, haren aitzinandak, haren zaiñak, haren zelkaudiak ta haren obrak. D Augustinek dereizkü hitz llabürretan erraiten dio: «Ari deno amorioa, maite dianaren buskatzen Eresia dela deitzen, hatzaman dianian eresiaren lekhian jarten da botzaroa, faltatzen badü aldia egiazki edo üdüriz beldürra dela heltzen, ta harek tristezia diala jarraikiz, hala amorioak diala haiñbeste begitharte nola aldekoit bathzen».

Alde batetik üdürria khauditü dü Santü harek bena harez ta berzez dotore theologienekei batian amorioaren zaiñak, zelaukaudiak, ta obrak dütie pintratü, alabadere haren izaria ez tie agerrerazi; ezi, amorioa ezta beraz ez botztar-zün, ezetare tristezia, bena bai borhondadiaren nahia zerbaiten maite ükheitian dena Egia, edo haren üdüriala doana ta ber denboran ekarrai güztia ta doi zereikün gaizala lerratzen dena.

Arpetzaz aldiz hartan dütügü amoriaren esparantza güziak besarkatzen, dütügünak hirur berhesdetan erthailtüren, amorio izairitsua, ari-malarena, ta arrazodüna diradianak. Lehena dago arima e(re)tzetan, bere gogankidetan ta

izatiar dianetan, khalamü harra den bezala bere ürrüxarekila, bürdüiña atxeiriareki ere bigerrena da arimaletan sortzen dian zalegarria khoietara edo beharretara gilikatzen dütiana, hirugerrena aldiz, megopia, haitua gaizen hartzian, hetan ere amorio angürütsia.

Amorio hau ere dago bi berhezitan, adiskidegoan ta naiera egilian. Lehenian dirade, osagarri, ohore, berdhüde ta honki güziak adiskidiari dütügünak opatzen hetan, guretzat irabazirik batere eztügünetan. Bigerrenian, aldiz hek eztütügü nahi, hantik jinen tzeikien probetxiaren gatik baik. Hala nahi dü zaldünak zaldia zer eder eta azkar ez kabaliaren gatik bena berarentako, hartakoz ezta lehenaren pare ta bekhanki daude biak ber bihotzian algarreki.

Hetan dago amorioaren izaira, haren lehen ürrhatsa doa zenkiek irudetzak ta megopiak eder edo maithagarri zereitzenak, pizten zereioenek, ordian bihotza; ta ükhen nahiak dereionak egarria, hantik dago bethi beha, bethi gogomenak hartara; behin esparantza heltüren dela hari, gero lotsa eztaitekiala hantik da igaraiten errekeitüetara, hegaltzaz dabila txoria bezala,

xederaren üngürünetan. Otorgatü badü nahi ziana, doa laurgerren gradoala dena bakita, dena ere egiazko adiskidegoaren büilhürra ta hartarik gozatzen denian, dütü amorioaren gozomen güziak bathü.

Meizakindiaren edo Metafisikaren medioz berhez lizateke amorioa hogei erhailtan bena zer pro(be)txü gündüke hetarik, aspaldian dago erranik herioa beno azkarrago dela. Ezkiniro, arren goga zonbat giradian eskele, gütianian garhaitü, ezpada amorioa behar güñükiana gük uste beno lehenago badoa. Ordian batere gabarik gaude, sorthü, gizonari bere azken egünetan hiltze zereioan gaitzena dena.

BEREZITA XXIX

Adiskidegoaz

Adiskidegoa da biziaren salbazionaren ta(h)ilezindiaren medika, lürreko paradüsüko arbole bizitzekoak hitzeman ziradianak ezi gure bizia gozomenek dienian lagüntü, mündian ükhen dütiegünen ohartze maithagarriekila girade ehortzen.

Harek dütü gure egiteko ülhünenak argitzen, düdadünak sinets-eraziten, khordokatzen diradianak segürtatzen, arrimatzen, txarrak honkitzen, honak edertzen, okherrak xüxentzen ta hil direnak arrapizten, harek deslürратиari herri bat dereio edireiten, eskeliari gurakusgarritzen, handier goiendia, aberatser zerbützia, jakingabier jakintzia, flakier indarra, erier osagarria, antsiatier pozkida.

Balago ere gizona izar Güzien erdian, bere zorthü honaren jakile bagerik adiskide bagerik, gaitz lüke zorthia, delakoz adiskidegoa gure zorionaren parte gehiena. Hanitz dirade adiskide izan nahi direnak ta gütik adiskidegoaren adrak

ezagutzen dütienak. Aristotak net erthailten dütü ederki honki egin nahian, amorioa amorioan, adiskidegoa adiskidegoan ta araukida obretan. Bihotzgintza da amorioaren txi(li)mista, honki egin nahia bere borhondade gor bat dena, amorio da obra akabatia. Adiskidegoa algarri honki nahiaren lana: hantik jarraikia, maite die-nak güzia ihuren eztirade adiskide, bena egiazki adiskide diradianak dakiela maithatzen. Jende apalenak lirioe amorio handien üdüria itzalt, bena hen artian sar, hanitz dirade amoros inkaria egiten dienetarik ta hetzaz emazte amorosik batere, hanitz enganatü nahian inhur eztienik enganatzen dielakoz farfaillaren ürrina: hanitzek dereie erri, gütik dolü ta emazte güziek dereie mespetxü franko egiten.

Hippodamak hirur adiskidegoa dütü mündian jarten, bata aberena, berzia gizonena, hirurge-rrena jinko-erdiena. Lehena dago Izairian jenden ta aberen artian dena, hetan ere bere artetan berhezi zonbait eginlaiteke, bena ezkirade jendenetzaz baizik mintzatüren. Aristotak dio, hirur kasta diradiala, hartan, beharrak, plazerrak ta berdhüdiak egin dütianak. Lehen da egün jarrai-

kiena ta nozpait hiriak ta bürgiak egin zütiana, zokhorri batek berziari, emangei estskürütik, ordian aizoak ünhürriak bezala ari ziradian; orai aldiz norbere delarik, adiskidegoak aspaldian bide, aharrer ta auzier, eginik, aizoak bizi zirade etsai bezala, adiskidegoak ere bere izena galdürik, gehiago amets baizik ezta ageri, sekülan izan ezpaliz bezala.

Jeloskeriaren ta zekhiñgoaren süiak die adiskidegoa erre, aiziak ere haren hautsa lürretik eramán. Khiristia lehenak hai tinko ziradian adiskide bata berziari, non hil nahian bata berziaren lekhian paganer eskeintzen beitziradian, onai aldiz anaiak bere anaiaren beitü ükhatzen odola, lizatekiala Kainen pare, arrotaz beldür ezpaliz. Nekez ere aitak haurrer haurre ere bere aita-amer behar lukeien amorioa dereie ezagützen. nekezago ere adiskide bat ediren daiteke, eziez ürrhezko meatze bat mandi gorenetan; hantik ezagütze bakhünak dü adiskidegoaren izena ozkendü ta hartara delarik orai jende güzia, dügün ikhus lizatekianez ezagütze hartan haitorik.

Dügün lehenik jende handiak adiskidegoari elirokiela har txiapiarentzat, delakoz bere handitarzünéz ta handiago izan nahiaz haiñ betherik non jende güzien zerbützü egin elirokienak, arrotz beitütie. Balakariz diradialakoz üngüratürik ta norbere irapaiziaren jarraikian doatzalarik hetan, ez tie adiskiderik batere ta mespretxatzen dütielarik alokairüzko zaldiez bezala hetzaz zerbüttxatzen dirade.

Adiskidegoa, bardintazünian baizik ezta laket, hau batzen ezpadü, dü egiten. Ez izanik ere bardinagoa bi jende suerten artian, behar handiak dütü zonbait aldiz apal-eraziten ta txipien doiala jarten, berzela hegaltaz doa adiskidegoa ta beren handitarzünari so ari derelarik bezaiñ apaltarzünaz dirade. Inhun ere maite aztielarik, amorioaren inkaria bortxaz egin behar diela dakie, berze althe beren handitarzünak dereie lanak haiñ üsü emaiten non berzebtzat ütsartia beitie nekez edireiten.

Hantik dirade mündü güiaren balakariak üsü delarik hen bihotza zeißütegiko oillarraren pare aize güzier ützültzen dena. Bena hen balakak ta hitz emanak euriaren hur istiletan, küsküillien

pare dirade, hel bezaiñ fitez dirade argüsten
hala ere gizon zühürak daki jende güziari hitze-
man dereien obra, harentako eztela, jalki bezain
sarri ahatzerik dagoela.

Jende güziaren adiskide, baterenena eztela
aspaldian egia hori errana dago, baietare
botaiak güzier eginak eskerik merexi eztiala.
Jakinezazü beretzat osoki dagonera, dremende-
na eztiala ihurentzat haren adiskidegoak habia-
rik, eztialakoz bazkarik hümier ekharriaz; eztü
beharrik, antzü bizi da, ta antzü hiltzen. Büria
gora aldiz nahi dianak zühaiñen adarretzaz eztü
axolik ezetare nahi itzalik.

Kent'handiaren ingürünetarik bizitze txarra
dienak, bürü flakiak, mihi gaiztoak, mintzale
handiak, sobera jakin nahiak, erri egiliak, trüfale-
rak, bofoak ta güregiliak berbera düzü bethi edi-
reinen.

Adiskide baten haituak gaiza hanitz dü galt-
ho. Gizon perestü, gomarte, zühür, bihotztoi, leal
ta patxor, bena berak berdhüde hek ezpadütü
adiskide halakoa eztü bathüren. Hala ere oraiko
adiskidegoan, koka ahal laite gizon xühür baten
erranian: *bizi zite zure adiskidiareki egün batez*

zure etsai gertgei baliz bezla, ta zure etsiareki egün batez zure adiskidegei baliz bezala. Iritzi on da bihoz Xüxenari, bena non da bihoz Xüxena jagoitik okhertüren, ezten iritzi hau galgarri.

BEREZITA XXX

Gizoneta emazten adiskidegoaz

Senhar emazteen artian den adiskidegoz ezkirade heben mintzo, bena bai bizioa berhez jarririk, gizonetan ta ematetan izn laitekianez adiskidegoa laidogarririk? Hartakoz da galtho heia emaztiak agiazko adiskidegoaz gei diradianez ta izkontziaz kanpo halakorik badenez?

Emazte zühürrekila akoiñta ükhen eztianak, galtho hori arrapostü egin eliro. Alabadere lohian bethi inharrausi eztenak zerbait liroke erran hartan. Zonbat libürü betherik eztirade gizon plainüz bere anderen fedekaitzetaz ta zonbat andereen ezegokidetzaz betherik, bena horik direia batzüer edo berzeer faltatik gerthü?

Ez. Izairianetik da, dütielakoz amorosak itxasoko baiak bezala, bere aiziziaz gaiez ta egünez bordokatzen. bena dügün aithor halako gorabeherak adiskidegoan erakhusten dereikiela adiskidegoa itxusi bat ta ederra, ekhia bezala bere gradoan doala. Nahi lükienek ekhiak odeiak elü-

kian dio, emaztiaren adiskidegoa ostagarraren pare dela, gorri, berde, hoilli, urdin, kolore khanbiakor güzietarik: irusdegarri diadiala, hantik goagartak hongarri dütielakoz, txordonpak orozbat, nahia ta ezaxola batetan; hek güziek dereie-la aiziak zühain ostoak bezala odola azotatzen, hantik diradiala itzalpiak, jeloskeriak ta desenfidantzak sortzen, hantzen ta, zapartatzen. Balükezü zerbait den hetarik; bena hanitz andere dirade botxia bezaiñ gogor, herioaladrano beren gogomenetan egon diradienatarik ta diradiala gizonak beno bakidero ta tinkago diradianak arrazoa dago hen flakeziari (ümen) direlakoz lothü, lothüago diradiener, gizonak aldiz beren indarrer fida diradialakoz, bere borhondadian arhinago diradiala, hartakoz ere khanbia(ko)rago.

Sortizkai gaiza da emaztiak dian liskar gehiagoko gizonari, eziez gizonak emaztiari. Zeren eta hau paira belaita lehen harez eziez honez. Brobatürik dago gaiza, seroretatik azken emaztialadrano, sacramentian berze gaiza hanitzetan bezala, emaztek egin eztirokenatarik ari dela gizona hala ezpaliz, Jinkoak egin lüke Eüa Adam

beno lehen, bena debeiatü edo lotsatü zatekela-koan, bera zian egin lehenik gizona. Hantik Izairiaren arrazoaz beharrak diala ohatzen adiskidegoa, azkarragi hartan gizonetan beno dela emaztetan. Egia horren brobantza agerida gizonaren egobian gaizak maite etare ez hügün eztütiene-tan, hartan azkarki die maite ta borthizki hügün, direlako ere gaiza güzietan gaindi amorioa gizonak beno dela henitzez biziago ta bere estekamentüetan direla lealago.

Ukha eztaiteke emaztiek gizonak beno biho-tza hobiago diela, hen izairia delako mehiago, hen nazaroan delako ere amorioari. Ekha dena aiziari, hartara dirade enjogiago, Broba dago arrazoan, direlako gizonak beno debotago har-takoz, arren, amorioa azkarrago.

Gerthaldi batzü adiaskidegoaz edireiten dügü kondaira zaharretan: giozn bat, bere aurrhidek etxen süiaren erdian ützirik, laister aizosa joan zela, soñian bere adiskidiaren garretarik salbatzera; berze batek bi begiak emanik bere adiski-diaren esküdantziaren gatik, bena hanitzago dirade emaztetan gizonen erezian adiskidegoa-ren gerthaldiak.

Valeria deitzen zena, dio, gazterik alhargüntürik, galthatzen zereionari, zeren izkontze handi bat etzian egiten? Eman zereiela arrapostü bazakiala bere senharra zela hilen artian bena bizirik ziala bihotzian ta berarentzat giozn güziak hilik ziradiala. Hypsokratak dio errege Mithridataren emaztiak jarraikiten zian bere senharra gerla güzietan ta zaldiz haren saihetsian, etsaiak lehen zütiala akopilatzen. Sulpiciak hautse zütian bere бүрдüiñak sehar deslüratiaren edireitera abiatzeko. Eponiak bederatzi urthe igaran zütian senharrereren ehortzulo baten arzuloan.

Emazten lealtarzünak beren seharrer, gertaldi hanitz derekie eskentzen, batez dügü berezita hau akabiren. Diala orain laurehün urthe igaranik bizi zen Raimond Lulle, Majorka islako herritarra zen sorthü kasta nobletik ta gazterean errekeitü handian zereien aita amak oikattü, bere erregiaren Khortian kargü handienetara ere zütien hel-erazi. Nazaroaz zen izigarri amoros ta ütsarte güziekin gogomenak hartara zütialarik, emazte ederrener güre egiten, poesia laidorez zütian güziak akariziatzen; azkenekoz ande-

re izkontü batez zen erhotü, zelakoz anderia ohoretsü ezinago ta amorioa hel eztaitekianari jarrikiago zelakoz, aitoren semiak, garrak begietan ta bihotzia, arima herratia bezala zabilan bathü ezinez bere andere maitia.

Egün batez kharriketän zabilalarik zaldi eder baten gañian ikhusi zian eliza batetara anderia zoala bere debozionen egitera. Galopaz ere zen darthü eliza ta erakhusteko bere andere maitiari pikaderia zakiala, han erauntsi zen zaldiari jauzi güziak eragiten, gogo eman gaberik althare ta sacramentietan aitzinian zela. Jende hanitz zen elizan apartatürük ere zagoan, bena saldo atrebitürük zaldiari zen lothü ta zaldüna elizatik kanpo ezarri.

Anderia erhokeria harez zen haiñbeste ahalketü nin erabaki beitzian mementoan ihesiaz egin etziana, berze medioz obratüren ziala; bere seharrari erranik igaran ziradian gauzak galtho egin zereioan zaldün amorosaren ikhusteko nabastarria ta deith-erazi zian bere etxera. Heltü bezain sarri, irruritü zereioan faman egiten zereioen ogena senharrari ta berari bürían jarri zian erhokeriaz ta zonbat meskabü hel zerekeio-

an hantik; gero desestaltzen zialarik bere bolharrak erakhutsi zereioan dithietarik bata, minbiziaz erdi janik, erraiten zereioalarik, gaiza halakoak merexi zianez ürrhats auherrez denbora galdü zian et egin zütian erhokeria(k)?

Reimond harritürik zauri haren lardazkiaz ta andere haren berdhüdiak han beria berze gizon baten arima zian hartü, Jinkoaren amorioak bere bihotzetik berze güziak akhasatürik, ardüra berari mintzo zenian erraiten zian: —Nontik jin hiz? Amoriotik. —Nor hiz? Amorio. —Norena hiz? amoriorena. —Norat hoa? Amorioala. —Nork egin hai? Amorioak. —Zertzaz bizi haiz? Amorioz. —Non hago? Amorioan. —Noratko hiz? Amorioalat. Hala bizirik ta hilik Santien herrokan herritarrek die jarri haren izena fama hartan dago.

BEREZITA XXXI

Igoriaz edo hügüngoaz

Arimaren griñaldi güzietarik hügüna da hotzena, aidürena ta galtakorrena. Sügiaren arrautziak bethi korokatzen ari da, khozia barreia ahal dezan bazter güzietarat. Dügün bilais griñaldi harrigarri hori; hala ariman egiten dütian zathizgoak dereizkü erakhutsiren ta nola-ko diradian erranen. Errazita ardüra haren lagün denaema daite denboraz; bena hügüna zahartziarekila zaiñak dütü barnago lanthatzen, athera eztereikianak, hazkürria dü jarraikian ta gaitz egitian; ogen güzietan gogomenak ta mendika nahian, bethi egarria. Ber üthürbegitik jalkitzen delarik laur bide dütü jarraikiten. Zonbait aldiz hastio dü arrazo gaberik. berzela jaloskeriaz berzealthe ogenik ezthanez, edo dianaz nola-ko nahi den ützt eztaiteke athor(ra) beltza bezala, delakoz gorrotoaren obra.

Txitxak eztü zaldiren lotsarik, bena miroaren edo esparberaren; hegaltan laster doa amaren hegalpetara. Bi atabaletan (batian) ahüntz larrü,

berzian otsoarena: azkenaren azaliak hauts liro (ümen) lehenarena; halako dirade jende artian gorroto arrak, izigarri diradianak.

Eztirokianak, arren, holako griñaldia iñharraus gogoan denian eskentzen, da faltagaaberik mespretxiaz ta ordariaz handitzen ta erran dütügün zaiñak dütü barnatzen, bihotztoiak dütie akhasatzen, handiosak dirade mendikatzen, flakiak gordatzen; ardüra ere hügüna amorio hoztütiaren lekhian da jarten ta hantik gaitzena da gertzen.

Zonbait aldiz ere uste ezkünian eskazak desgaiñturik gihaur girade gibeltzen ta hügüiña zereikü heltzen. Ordian ginhaurrez mendikatü nahiz maite ükhen dügünaz, dügü hastioago, enganatü gütialakoz. Kintilianek dio: Hügüna askazien artian medika bagerik dagoela, haren plagak sekülan eztiradiala zarratzen zeren eta lzairiaren lotürak ber aragiaren odolaz josirik porroka ezpeitaiteke ürratzemedika eztaitekiana egin bagerik.

Halako dirade bihotz haboroenak zauri harez hirotürik daudianak, hantik haiñbeste gizon ahül, hoilli ta itxusirik adiskidegoa güzien ihesi doatza-

nak, kagüngo hügün dütienetarik, behaztü(n) ta igormin baizik jaten eztiendarik. Berze suerte bat bada hetan, sügiaren mihiarekin sortzen dena, bethi herratürik dabilta, hiritariak bethi gogomena dereie erratzen bürü huna jaten. Berze lanik ezte, baizik berzek erraiten ta egiten dütien güzien desohoratzia, gaieko-txori berri gaitz ekarler üdüri dirade, deadar heriotsüez die-larik pausia enbeditzen arima eztiak dütien lotsatzen.

Hantik hügüna bethi bera delarik athitxatzen, arima poserosetan sarzen bada Tiranoak hetarik dütü egiten, fitez basa gion jendejalen sordeitz gertzen diradianak; hantik bihotzak gordinik dütienak jaten, hantik hilak lürretik khentzaliak, hantik bürhezürrak kopagei egnak, ta hetan Elboin maradikatia edaten ziana, mündia biziren deno, gezürti lardaskagarria.

Ezteia dolügarri bizio halakoa sorthü bazen gizonarekila, khristianarik hartan den gogortü. Nol ahoi sümantza güzietara igaran deno, zer ohore düke obraren lanegiliak? Badakizü ja bek-hatü mortal hori nontik zerikün heltü harez begi-

ra ezkinandiala eztükegüno gure izairia hobetü; gaiza egin ahal daitekina dena alabadere.

Izartearen gorritoa nondik da jiten? Jendiaren gogomenetik banaite diradialarik, algarri beitirade joiten, bolak bezala bilartian, beren ukurtetan hel elaidikina, norberak jarraik baleza bere zatua; bena nahiz bataz berzia garhaitü girade gure artian etsai gertzen. Hantik otso gizonak bezala nahi dügü gure pare dena hügüntüa arrazorik bage, hügüntü osoki adrakaizkia eta nola eztaiteke halako, delarik Jinkoa batarzünaren Erdeia, ebak'ezetzagün gure nabelaz, kürkürü üngüratzen gütiana ta hauts Eukaristia sakramentia batarzün haren gatik egina dena; dago hantik kanpo Satanen poteriala girade erorten, ezi Jinkoa da bakearen Jinkoa ta batarzün güziena. Jinkoak dü barkhatü bere erhailer; gük ere dügü egünkal hitz emaiten gure etsaiari dügüla barkhatzen haren bihotza jan giniroiano gresillan. Barkhatzen diot (diozü) bena eztirot haren begithartia ikhus. Jinkoak orozbat dereizü barkhatüren eztügülarik ikhusiren ta zer da ez ikhuste hau? Satanen lagün izitia O! khiristiana zer peridikiaren lizatekia hau ekhaia? Zeren bizi

ginanteke katamotza ta ginanteke katamotza ta leoin-ñabarrak bezala lehen, eziez J.K.en bidida jarraik, dianak bere osolaz etsaier barkhatü.

Gü, balima, *hüskaldünak*, hartan inhur beno enjogiago giradialakoz medika zsendogarriak beharrago güntüke. Dügün zombait giniroan bath.

Bada jende, gathiaren ürrinak, apoaren bath-ziak, aiñharbaren ikhustiak emgoxa ezpaiñetara jin-eraziten dereienak, gatzontziaren arauldiak orozbat, horik dirade Izairiaren dohaiñak, haren gorotza deithzen dütügünak ber arrazoa bihurt laiteke auherki, ber gaiza lizateke tximinoa nahi lükianak maskortiari izkontü; bena jendia ber kasatik izan eta izairiak halako gorrotorik elüke behar ta ikher bageneza hastioaren arrazoa ediren giniro, ümen, faltsüki edo gezür batetik dela sorthü, balima ere gaiza, okherrez hartürik.

Ardüra, gure artian, hügüna auzitik da sortzen, auzia da gairen eta mündiren ützüli-bordoken semia, ezta nahastegoaz ta ülhünez baizik bizi, bilgüra batda min güzietzaz egina; süiak, meahtxiek, düründak, ekhaitzek itxasoaren laziek, arranoaren aztaparrek balenaren tripak,

basa arimalen ozarak ta sügien khoziak *huskal-dünetan* bara-erazi elirokeiena, bere aitzinian dabila bethi, berzeren honaren egarria ta haren saihetsetan engaña edo ziliboka, mendika bide etzena, gezürra deslealtarzüna ta haren lagü-nak. Akadoi honak dirade Jinkoaren dohaiñ ede-rrenak; bena nola nahi dien akadoiak akadoitü auzikarrietarik, bata dago harritürik, emaztia nigar thurrustaz, haurrak marrakaz ta askazi güziak dolian.

Nor da aizo honer halako, dolü elükiana, auziek dienjendia porrokatzen ta etxlatiak eske-letzen? Nori dolü elitzateke Türkiako ber akadoia gure herrian ezten jarri, han abogadürik ez eta prokuradorerik ezta batere, nork bere züzena Bizir Handiaren aitzinian dü pleteiatzen, harek galdü dianari, dian ogenaren arauiala belhariko jarr-erazirik, 40 edo 50 makhila khaldi, hoiñ zole-tan dereitzo eman-eraziten ta audientziatik aknpo die urthikitzen harat berriz ezten khi jite-ra hala akadoikeriak, eztü laborari gaxoa hezu-rrretadrano jaten ta hoiñen minez ibil ezpadaite ere, jarririk dü etxen ogi jatn ta gogo honez dü mina berekatzen. Nontan ta zertan nahi den auzi

baten azia ezta bi gizon perestiek akadoit eliro-
keienik Zonbat nahi den gizona bere zentziari
tinko auziaren galtziak dereio bürütik khentzen
uste zian züzena. Zeren, arren, bi gizonen erra-
niala, auzirik gabe aliro berak bürütik khent, gal-
tzepeña damnia, ahalkia, desohoria lütüke gütia-
gorik, hügüngoaren ez astakürürük. Egia delarik
araukidate gaizto bat auzi hobena beno hobe
dela araukidiak balio dü zerbaitez erostia, diala-
koz bakiaren gozomena üzten sobera khario
paka eztaitekiana.

Iritziaren bizitarzünian kolpü zonbait baze-
reitzü ezkapi, kolpatü düzünari zoaza barkha-
men galtara, jakilez eretzian ta zure makhila
eskent. eman dereizazün ordaria. Eskent ere
gastiena gizon perestia bada barkhatüren derei-
zü, halako ezpada, züzen bat zure althe dükezü
jarri harenari ogen eginen diana.

Bakia maite eztianak gütik bake bere bizian
dü ükhenen, halakoak dirade handiosak beren
bürüa berze beno gorago ekharri nahi dienak,
dremenden hitza okher hartzen dienak, giziberia
bat ere damnü handitan ta horaren txanpa,
begian harri'khaldia bezala, halakoek die falta

gaberik auzi azia, lan egar elirokiena ta hügünak barnetik eta kanpotik franko dütükianak.

Jende güziaren etsaiak, düke jende güzia etsai ta sekülan arrazoa bere halte. Egia harez mündiak dereikü gerthaldi harrigarririk, Enberadoretan ta Erregetan xehekatürük izan diradianetan. Nola, arren, gizon banützak hor errabiatia-
ren pare esküin ta esker ausikiz ari dena, eluke haiñbeste etsai nola baitüke aizo ta hantikzer bizitza dateke harena, bethi auzietan bizi dena erraabian da hilen. Bakiak dü pausia lagün, biak die gizonaren zorthü hona egiten, ta arima xüxena da hen egongia, liliz üngüratürük dagoena, gizon xüxenaren egarria dena.

BEREZITA XXXII

Tristeziaz

Xühür batek zioan gizona ütsia bezala mündian zela sartzen, lanari ere osozbat lotzen, han ziala bizi zeno harri handi bat, errolagei zereioan nak doloriak ta tristizia, eskietan ezarten. Bata hetarik borhondadiari khinper aritzia zela, berzia aldiz gaiza maite günükienetzaz pairatzia; hantik arima dagoela bethi lanez akabairik, hantik ere batzuk diradiala abartzen, berziak aldiz zanba hiltzen; heltü zereiona Gilbert Montpensiereko dükiari bere aitaren thonbaren gaiñen hil zenian.

Arima flakietan da sortzen ta megopiak, ardoillak dian bezala бүрдүйнә дү jaten, boztaroa dü ere haren kharastarzünaz bihotzetik akhasatzzen, langora zereio gaiza güzietan jarten desalailak dü bethi lagüntzen, biek dereitze odola idortzen iziritze alporra hiltzen ta megopia güziak agortürik bere minen üthürrian egünkal handitzen. Hantik da jendia bethi himor gaitz üngürünetan gaiza güziak entzüten dütianak, egiten zereitzen güziak zereitzo gaitz. Dremen-

den gaizek die khexatzen, ihienak elhorriz bet-herik opatzen dütienetarik deusere bere arauia-la etzereio honki jiten, azkenekoz bizia ere zereio eranspegarri.

Halako dirade haurzaroan kotoan eta zetan ohatürik izan direnak, nahiz güzier obedierazi orori dirade bihürtzen ta laket zereiena baizik ez tie egin nahi, hantik pairamenik, sekülan ez ükhenik autsurtia ez tie ezagütü ta hantik aitzina bizi izan direlarik ustian deuserez falta elereikie-la mündian nekezia dremendenak arima bere bartaderatik jauzerazten dereie.

Hantik üillü batekila bilhakan, itzal txipienak dütü thormentatzen, elhe arhinenek herritatzen, hotzpera eztena samurtzen, sorraitz arrapostiak egiten, mingar dirade beren hitzetan, zedalik dereie bürialala odola igaiñ-eraziten begiak eskan-borratzen, ahoa gahünstatzen. Bena zaharrak dirade hügüngarriako non etare odolaren hotz-tarzünak behar beleikie himorrak ematü, üdüri zereie jende güzia hen flakeziaz berme dagoela. Bethi argoitán daude nontik eta nola jende gaz-tier auzi dien eginen: zombait nahi xühür izanik eta berak beren gazterean izan diradian beno

eztirade hantik zothükatzen maiñata zaharrak hor hazteritsuak bezala dütie eskerniatzen. Adiskider borthak zarratzen haurrak etxerik kanpo urhtikirik, konzentziaren artekariarekila auharrak dütie üsü arra xüxentzen ta auherki.

Mündia, jende bere sortzepenaz plaiñuz ari diradienetarik, da betherik, berzerenaz enbide ere direnetarik, Jende güzier, beren minak bezala dütie eskelek eliza borthetan, berenak jiner ta joailer dütie bederakatzen. Berze aldiz dütielarik biohtzaren barnian kokatzen, ager eztitian, die begithartia estiranezarten. Berzek beren marra-ketzaz, herrekek botxietan bezaiñbeste azalia die egiten. Berziak arima herratien pare doatza. Gora behera, petik gaiñera, esküin ta esker, aitzina ta gibelerat, ihor ere eztautekielarik, jokü t lagüngo güzier ihesi doatza. Berziak beretzaz diradilarik debeiatzen, berzen eretzian dirade damürratsü, püntzoi, arrabuhin ta mündüko moldezi güzien etsai, soeginkeria zonbait bihotzian balie bezala.

Zonbait ere bizitzaren eginbidiak ahatzerik, jan ezetare edan eztie nahi, ehortzuloan balira bezala, hantik gogomen beltzak ütsirüdiak, des-

parantza ta megopiaren mila egipen erran ezki-
nirokianak dütie athezen. Gaiza egiazki niga-
rratsü da nol a griñaldiek dien gure bizia thur-
mentatzen. Bada ere egiazki dolore haiñ izigarri-
rik non gizonaren indarrak lirotekianak garaith
arima, zerütik jin ezpaleitze zokhorria; bena ait-
hortü behar dügü ere gure konzentzia edo bara-
kindiari traidore giradialarik dügüla bihotzian
haiñbeste azi gaizto manirtera üzten; arrazoak
ta berthüdiak lütükienak hatsarrian atzestü,
ordüz her gogo eman bagünü.

Auherki filosofoak dirade eritarzün haren sen-
dotü nahian erauntsi, batek ere eztü khausitü.
Peredikariek ere hartan die gütik obratü, zeren
eta nazaro bederakar madika beharra ezpeitiro-
ke jar, ziradiano jende güziari, mintzo, ja erran
dütügün ta himorren arauiala. Botztaroa da tris-
teziaren medika segürrena arima ederrer ere Jin-
koak dereien dohaiña: halakoak belzkaroez dira-
de etsai; Karmelitek Españan hitz güziak erri
batez dütie lagüntzen, beren hondikariak dereie-
lakoz manhatü bethi botz behar ziradiala izan.
Dioe ere Apollonek, bostehün frairen Bürüzagi
zenak botztaroan zütiala bethi etxekitzen ta tris-

tezia erorten ziradianak laister laur hitzez zütia-
la hantik khentzen.

Zahartzera üzten denian eritarzün halakoa
zorabiala da laister igaraiten; batek uste Lürrez-
ko tüpüiña zela inhurek honki behar güziak ari-
matzen zütiana zeria eror elakion lürriala; berzia
eskia bethi tink ziana mündia hantik ezkapa ela-
kion; gure denboran ere ikhusi dügü uste ziana
bere südürra zamari bat zela, zaldüna bethi han-
tik eraits-erazi nahi ziana; Printze bat ere
lebraost zela ustez, txakürrez bera, laister hen
ihesi khanberan zabilana, hek güziak tristeziaren
ta damorriaren obrak dirade.

Zer da, arren, hen medika, errekeita etxen,
kanpoan aldiz lana, ezi auherkerian dütü zaiñak,
megopiaren ta khorpitzaren obra jarraikietan
eztirade sartzen ta bateri ta berziari obra eginen
dereitze botztaroa emaiten ta osagarria azkar-
tzen.

BEREZITA XXXIII

Azkenaren jarraikia

Eztakitelakoz lürrian arimalik plazeraz gizona beno khiagorik ezetare hetan gozatüagorik, ezetare betere meskabier menpetüagorik, zer da, arren, gizona? Bere sortzeppenari legautse dereioaner bere biziari presontegi dena ta herioaz lardaski diana. Nigarrez argiari soegitia, khürütxe ükheitia, ahoa marraker ta gosiari zabal heltzen dena. Megopia hütsik, khorpitzta hauskorri dütiana, hantik naiera-egilen errabia, hanitz urthez abere hau eskelegoaren ersian bere orradearen kadenan, azotiaren lotsan bizi dena, bethi bere borhondadiaren gaizak khinper diana hantik gazterik langile ta tenpestaren erauntsietara zorthü gaitzaren seiñale diradienetara gero izkontziaren mithilgoan senhar emazte gaiztoaren bathzian. Egiteko txarrak, arraukinak eskelegoan, haurretan gaitz franko, erran txarrak üsü; hantik ere aharrak laidoak, desohoriak, auziak, gogmenaren flakeziak, etxaltiaren ützülibordokak, maite zenrren galtzezpena, zahartarzüna-

ren mesprexia, hen landan eritarzünak, azkene-
koz eskeln zokhorriaña jiten dira ta aberatsak
ere arrapatzen dütiana, dena herioa.

Mündü hontan gal ahal ginerokanak daude
honaren, famaren, askazien ta osagarriaren gal-
tzepeñetan. Zer dügü her bürü emaiteko? Sen-
tentzia, arrazoa, denbora beharra ta grazia,
hetzaz gabe bagirade, düda bagerik tristeziak
fitez gütüke garhaitü. Elhe güzier gor dateke,
müthü badirade erran dütügünak ta auher hen
harmak. Güzietarik hobenena dago tieso, sinhes-
tia ja galdürük dagoela, galdüren dügüna hala
harez paoratzoari girateke, ja adelatürük.

Ama batek seme bakhoitza galdürük zian,
sobera amorio, gal ahal zionari, ükhenez, ziala
min mingarriena ta doloriak medikatzen ziradia-
la bere bihotzian, ükhen zian amorio soberanaz:
hitz nobliagorik jalk eztaite emaztiaren ahotik.

Eskelegoak zütia lotsatü? Sorthü zenandian
egünian beno eskeleego etzirateke; ezi, ordian,
pikarra zenandian Odolian bazüniana ürrhe, per-
lak ere beharrietan ta ükharaitean? Ezpazünü-
tian, deusere eztüzü gldü. Aberats zinela ta orai
eskele, diozü? Zinandiana hatsarriak zirade;

datekina erezü bezala, jin zena, aberastürik, oihal txar batetan zü bezala eskele joanen dena. Troxatürik arrapatü dereizieia zure hona? Zü beno plaiñagarriago dirade arrapazaliak, galdü datekenian zure diharia Soberarik ükhen ezpazü-nü etzünian jokatüren aski bazünian bertziane-tzaz behar etzünian. Urratzen dieia zure fama? Ogenik ezpadüzü ütz elhiak laisterkara, akhitü-ren dirade. Ogen düzia, egizü gizon perestiago izn bazinadian bezala, egin zünükiana, ixiltüren dirade.

Gaizki errailiek ezte mihi bat baizik, zük aldiz bi eskz hetan dirade elhiak, zütan aldiz obrak; batak dütü aiziak eramaiten, berziak daude etsaiaren ahalkiaren jakile, mespretxiak dütü elhe txarrak deuseretzen. Elhiek bide xüxenari seküla ogen ezte egin, ezetare gizon perestiari bilho bat galerazi.

Nigarrez ari zirade düzülakoz adiskidia galdü? Etzünün zure besoetarik edo zankoetarik bata hiltzen ahal diradianak ta zü hil artekan herrestatü behar dütüzüna; bena egiazki maite bazünian, hila hobeki dago zure bihotzian, eziez zure saihetsian; han düzü bethi edirenen, zena

bere aragian, han zirade hareki mintzatüren eta jarraikiten zütiano zük ere düzü jarraikiren, zure aidürü dagoan lekhian zirade bathüren ta sekülakoz ber amorioan biak zirade biziren, ezi hilgei ezpazinandien algarreki, egobiar zen bata hil ladin berzia beno lehenago.

Dariusek Persiako Erregiak hil zereionian bere emazia erori zen tristezia heriogarriala, atsekirik batere nahi etzian behatü. Demokrita filosofoa zien deithü, esparantzan megopia handi horrek ziala khanbio zonbait ezarriren; heltü bezain sarri Demokrita nahi ükhen zien Dariusi eraman, harek ezetz, ziolarik behar zereitzela nigarrak ützi agortzera, gero ikhüsire ziala.

Egün zonbaiten landan sar-erazi zien Erregeren aitziniala, bere agurra egin eta filosofoak zereioan erran, arrabiziren zereiola Erregiña nahi bazereioan eman galthatüren zereioana? Dariusek baietz etare zütian aberastarzün güziak, heia, zer nahi zian? Demokritak: «hirur jenderen izenak dütüt galtho, ükhen ezten dolore ez eta tristeziarik, izen hek Erregiña zenaren thonban ezkiribüz jarririk, da agertüren nere hitzemanaren ekarraia».

Mementoan gobernadore güzien postakariak ikhertü zütian zoko güziak ta joan bezala ziradian jin. Ordian Demokritak erregeri zereioan erran: «Helas Jauna! enainteke enizan harritürrik, zure khoroa izigarri ederrak thapatü dereitzün haiñ tinko begiak, non haiñbeste milion jendetan zure menpe lotsagarri handian direnetan eztüzian bakhoitz bat ere edireiten, zorthü honean bethi bizi dena ta haiñ antsiati ziradian herioa ja palazio hontara ardüra izanik, jin da berriz zure erregiñaren eramaitera; zuri ere erraitera emazte zela zü gizon ziradian bezala; jarraikiz erran zereitzon elhe ezin kontsolagarrienak ta hekila zian erregiaren tristezia ematü».

Franko bezütian ezi sortzepenaren legarrak dirade dütügün min güziak ta herioa zorren pakazalia, batzütan lehenago, berzetam berantago; bena bizitze azkarrenaren hatsarria da tristezia haren llabürtzia da haren erhokerietarik handiena. Zer züzen dü egiten dereizkün lanetan? Zer zokhorri dereizkü emaiten gure mine-tan? Eziez sordheizten harek dü nahi meskabü heltü behar direnetzaz dezagün haren khoziaz trenka osagarria. Zerbait okher doalako z hirot

dezagün odola? Hitz txar zombaiten gatik errabia gitian? Hen ta aiziaren baratzia ezpalirade ber gaiz. Eztüzia nahi deusere ozartü ezetare eran-petü, berze mündü bat zuretzat eragizü, egar ezpazinok zure aitzinekoak egari dütienak, ezi mündia da izan noizpait ta ohi orai dena ta bethi izanen dena, lürra bere egünkaleko ützülian, Ekha bere beroan, Argizagia bere hotzian ere henpian diren gaizak bere gorabeheretan, ta gizonak norbere lankheietan.

BEREZITA XXXIV

Esperantzaz

Esperantzaren izairia dago zerbaiten ügürükian ta neke eztaitekenian. Ezi den gaiza eder, maithagarro ta gaion helgei ezpada, medio zombaitez haren opatzia da erhokeria. Nahiak, aldiz, medio beharrek dütianian arranzatzü da esperantza tadütüke zühürtarzüna, indarra ta bokantza hek gütielakoz da bihoztoitzen.

Mündian ezta jenderik esparantzak zothükatzen eztütianik, khortian, palazioan, merkhatian, alhorretan, itxaso ta lür güzien dütü üñhürrien pare ibil-eraziten bakhoizki gizon gaztiak gaia igaranetzaz deusere eztakienak ta jingeietan fidantza hanitzez betherik daudianak. Hargatik ere enganatzen diano jendia dereio begitharte eder bat egiten ta net zereioana gizon gaztiari laket; bena gogo emazü bere irudinian diala eskü batian ankora xühürrentzat, berzian aldiz mirailla bata da zühaiñari loth, erhoak aldiz berziaren ilusioner doatza jarraikiz ta hetzaz esparantza da galgarri gertzen; Boztarioak ere dü

lagüntzen ta lanetan ürgeitzen bena esker behar zenian, esküiñ dabiltzanak dütü mendi thiniala eramaiten ta hantik lezila urthukiten.

Zentzu gaberik dirade, egiazki, esparantza mespretxatzian gogomenetan bethi izanen diradiala, igerikan uste dienek, Gizonaren ekaraiak nahi dü, dütian bizian bere gorabeherak ta garrotzetan diradianak; denbora dügüna da haiñ llabür non heda ezpakeneza jingeiari, ezpeikiniro dinhets bizi izan giradiala, esparantza dügü hortakoz ogi ereiñian, txitxetan ta haurretan inharrausten dütü plazereki iparrak dütian bezala zühaiñetan ostoak ta denbora igarana, ahatzereziten, izan ezpaliz bezala.

Txoriak hegaltatik dü bere indarra erakhus-ten ta ahal beno gorago ezta igaiten. Gizona da ezin beno gorago igaiñ nahi dena ta seküñan handitü nahiri bere llabürtarzüna zehatü ezti-ana. Dakigü sortzepen apalenetik handitarzün handienetara heltü direnak; bena gaiza halakoak letartaren obrak dirade, harek Pupieni arotz semiari бүrian zereioan ezarri khoroa, bere aita- ren ükhüdian obratü zian, Harek zian Marziani, artzaiñari makilaz zeptro bat egin. Valentin Khor-

dairia enberatortü, Justin, maiastüriari ikhasi throno bat beretzat egiten, Damian artzaiña kardinaltü, Gregori VII menüser botikatik aita sntia- ren kaideran jarrerazi, Sixto V urdezaiñgoatik orozbat aita santütü.

Bena adajioak dio: «Aiñhera bakhoitzak ez- tia bere hegaletan bedatsia ekharten»; hek dira- de gerthaldi bekhanik zorthiaren arrotta ützüliak jalkiten diradianak ta senthagaillen herrokan jar diraitekianak; berdhüdiaren alogerak ta sariak diradianak. Nor zen hetarik bakhoitza bere gaz- teroan grado hartara esparantza heltzeko zian? Ta zer banaitia ezta hen ta zonbaiten lekhü haiñ apaletik edo apalagorik jalkirik, diharü trüküz grado bet erosirik, beren oisterkinez jendia ako- gatzen dütienak; bena lümere errespetü ta txo- riari mespretxü, jende perestiak dereitzener.

Botztaroak dü gizona lagüntzen, diano espa- rantza bagien eretzian harek ere dereio lanen pezia arhintzen, dereiolarik egi(az)ko mothaildak eskentzen ta ekharginak besarka-eraziten ta bihoztoitzen; bena hetan ezpadü adrarik jarri, nozpaieko hegaltariaren pare, Ekhiak hegaleko ezkoa хүrtүrik da sekүlakoz eroriren; ezi gogo-

menen zelian ezpadoa gurepoteria, auherki dago esparantza jarririk. Ahal liroiana, dakianak arrazotsü baizik eztüke nahi. Opa moldatsüari dago zorthü hona beha, ta desaraudia doa ihesi.

Hartakoz dügün gure esparantzari ondeki segürrik eman, ükhenen dian zorthü gaitza, nahiaren soberanaz dolürik ükhen eztezagün. Aspaldikoa da errana, esparantzaren erregia hil zela hospitalian ta ozartia zela astoen berdhüdia. Alabadere biak eztütianak mündian dü bide lla-bür eginen, ezpadütü arrimatzen nekez mügala heltüren.

Sortzepen apala dianak, dian berdhüdia gora. Nobliak abantailla izigarri dü herri güzietan iripendiarraren gaiñtik. Nonko den? Zer den? Nahi die jakin, batak dü bere izenaberziak eztien esparantza lüzeegi ezetare llabürregi, denborak nahi dialakoz zombait aldiz loth zekeitzoan bilho-etara, znbait aldiz ere ügürüki dadin.

Bada egiazki egün batzü ama hon, berziak amaizün diradianak. Bizpahirur jende, peskatza-len pare arraiñ hon bat dienian hatzaman hamia bethi hurian dienak. Zorthü hona ezta bethi buskatzen behar dianarentzat bena bai ardüra

haren axolik eztianaren. Carlos Vek zioan zela «*zorthü hona emazte laisterkera gizon gaztiak baizik maite etziala*». «Galbararen borthan, kho-roa eskian lüzez ügürükirik erran-erazi zereioan berze batetara bazoala ezpazoan nahi sar ladin». Hegaltaz dabila zonbaitentzat ta plomüz dütü zankoak berzerentako. Bada adin haren jarraiki-gei propi diradianak; bena halako adina igaranki hari laisterka doana da següro erho handia ta halako esparantzak düke ospitalian herioa. Hanitz dirade hetarik, sobera esparantzaren khea jarraikirik, khedarre baizik ükhen eztienik.

Esparantza eztago gure poterian, bena bai berzeren borhondatian; pikarra da sortzen, berzek die estaltzen, hartakoz ere mündüko podendatha handienek txipien zokhorria behar die. Odagarria ardüra galthatzen dügü gü beno eria-go denari. Gure minak ere, ardürago, dütügü erraiten berenetzaz esparantzarik eztiener ta gurietzaz dolü gütik diener. Otsoari dütügü aharriak emaiten, jan gintiroanari ahari baginande, güzier dü hitzemanen gehiago emailiari hitzema-na eztiana(k) etxekiren. Skorpioaren pare khozia dü büztanian otso gizonaren ere oare edaten

diano zereio egarria handitzen, lehertü datekenian baizik aski eztüke. Haren esparantza da gezürra. Eztü zure enganatzeko ügürükiren zira-dian lo iratzarririk ere eman dereitzün esparantzaz da trüfatüren, egin dereiozün dohaiñaz, haren gaizki egina date ordaria, azkenekoz eza-gütü dükezü, bena berantegi Judas beno sordeitz zela halako gizona hirotü datekenian düzü ait-hortüren, bizi zen bezala gorritü bagetarik bere faltsükeriaz hil dela, bizi den bezala.

BEREZITA XXXV

Lotsa

Lotsa da amorio gihaunenaren dügün alhaba, erran nahi beita gure khorpitzaren zatirande nahia, ta nekez azald' daitekiana. Dü bihotza haiñ tinko herxatzen nono odola igarain ezinez flakatürrik betago, hantik ere berze bizkaiak ere tenkatürrik, beren odoletik die laister bihotzaren zokhorriala igorraiten ta pairamen harez da begithartia, agerriena dena, xurpaltzen, besoak ta zankhoak ikharatzen, diano bihotzak bere indar güziaz odola igan-erazi nahiz, da erauzten, büria odol mentsez da hazten hotzak bilhoaren zaiñak tinkatziareki dütü xütitzen, begiak thürbüsten, iztezaiñak xurdunpatzen, botza estirle-tzen, elhiak nahasteb, izerdi hotzaz buztatzen ta gizona deuseretzen.

Griñalda doakabe harek die ardüra ere min handiagorik egiten, dereikünian gogoa, zentzia, ta megopia galeerziten, baloria ta gogomen güziak nekatzen, zonbait aldiz ere erhotzen ta erhaiten, hantik hetara ez erortez ahal lirokiana

lori, zer nahi zorthü gaizetara, ordüz gogomena adelatü badü. Beldür sorthizkaia da arimari bate-tan diana tinko bat emaiten, hari eztaite jendia bihurt ezteno jin arrazoa, haren zokhorriala, bena adelatürik badago erran dügün bezala, meskabü erranetara ezta eroriren. Adelatze hau gure potherian, zeren eta berzer ikhusi dütügün zorthü gaitzak, igaran bagünü ardüra gure gogon, gihauri hel ahal lizatekiala, espantatürik ezpeikinanteke diradianan heltzen. Gure arrazoa-ri galta beikinero nola hantik ezkaparazi gündükian ta ber kasian ja beikinanteke adelatürik. Ezi helgei diren meskabier, inhur bihurt eztaite-ke ta hetzaz lotsa ükheitia auherrago lizateke.

Hetarik dirade eritarzünak, bizi baginande zühürki, bekhant liraitekianak; süia faltaz ardüra eskeletzen gütiana, düründa begira ezkinante-kianez ta harez giradianian lotsa, meskabia igaran denian. Ezi txilimista agertü ezteno ekhaitzak jo dü ta düründa da odeietan kolpiaren orr-hoa lgandetzaz her bürü eztironak egin; ihesia baizik eztü ireñen deno. Basa arimalek gizona die bere harmekila bürüzagi.

Zertzaz date arren lotsa? Potheria gizon gaiztoaren eskietan denaz, adiskide faltsiaz, etsaia beno sordeitz denaz, kobartaz gibeletik, jeloskorraz alde orotarik, bilhakariaz, arrapatzaletzaz ta ohoiñetzaz, hen herrokan jar lite hitzamaile handiak. Hetzaz sakolak hüsten dütienak ta hen falta egitez bethatzen gezürtiaren kapitaiña, ta zakü afronteriaz bethrik denaz.

Gaztetarzünak, ordikeriak, lotsarik ez tie, arrazorik ez tielakoz, horatkoz ere erhoen kastatik dirade. Badirade ere gaiza güzietzaz ez solamente jinetzaz bena eztirenetzaz beldür direntarik, üdüri dirade erho bati, mündia ustez beire zela hautse lezen beldürrez zothükatzen etzena, bena següro halako jendek arima megopia beno ez tiela xüxenago beren bizian.

Aithortü behar dügü griñalda güzietarik ez tela lotsa beno harrigarriakorik, delakoz iruditziaren arauiaña gure zentzü güzietara hedatzen; tahala berrogei urthean mina mementoan igaraiten dena, dereikü bethi megopiak mahastekatzan ta arra mahastekatzan; hargatik ere Jinkoak dereikü gaiza helgeiak gordatzenezi balakitza jendiak tristeziatz ta dolüz liraiteke, gure egün

güziak kaguntürik daki, dakialakoz, ikhusten dügünetzaz dügüla franko.

Eskelegoa, ahalkia, eritarzünak ta herioa dirade egiazki gaiza lotsagrariak, gizon aberatsari ta perestiari; bena dakianak Beliserari zer heltü zereioan, nor ezta meskabu güzietara adelatüko Halako gizona Enberadoraren landan, jaun handiena, bere bürüzagiaren bazter güzietan etsaiak kalumnietzaz jauskaiñ, begiak zereioen lehertü ta kharrikaren kantuan jarririk igaraiten zagoan (ümen) amoina othoizten, halako gerthaldiaren landa, beha orai gerla egile txar baten, etxerat jin denaren, deusere egin gaberik, egiten dian plaiñiak.

Berze bat deusetarik jina, zorthü honak behin konkaitz ekhar(ri)rik, dialakoz gero urthiki ta zen lehen lekhian jarri, haren marraker giradia beha egonen? Lotsa izan ezpada sobera igaiten dolürik dütükia so egiletarik? Sobera lotsa edo ordüzegei ükheitia edo arrazo gaberik, dirade orozbat damnügarri ürrhün direnetzaz lotsan izaitia da zorthü dolügarria, laisterregi jin dadin beldürraz beikirade ginhurt bethi eskerniatzen, bena gogoia bageneza Izairian diradian gaizak haurrak

bezala beren bederatzü hilabetiaren azkentzian diradiala sortzen, khozüta ezkiniro gure bizitze eskelia mila gogomen auherrez.

Bada presontegitik süiaren medioz ezkapit direnetarik, bada ere lezetara eroririk borosta mardorik zolan bathürik, hantik sendo alkhi diradientarik. Bada ere zauria dielarik pulmoetan ezpada'khaldiak sendotü dütienik; hala ardüra zorthü honaren azia dago gaitzaren pian gorderik.

Min helgeiaz losa denak soegin balezo bere sordeitza ediren liro uste zian beno txipiago heltü dela ta handiagorik ikhusi diala. Beldürra, aren zonbait aldiz ezta haiñ gaisto eziez uste beitätü, dereikülakoz emaiten meskabiaren ügürükitzeko, ütsartia, hartakoz ere hen borogia ükhen eztienek die zorthia gaitzago zeren eta gerthaldiak igaranez probetxürik ezpeitie egin. Hantik ere dirade hanitz ürkhategiala botzik joaiten direnik, ikhusirik ja lagün zonbaiter ber bidia egiten, ta hil nahiago direlakoz batetan, eziez lüzez herioaren beldürrian bizi, gerthaldiez ere dakie, nola dütien herioa, halbadere die lotsa arhinago.

Jakin nahi gñnũke, zer heltũren zereikũn gure bizian, ta jakinen eztũgũna, bena segũro dena da Jinkoak nahi dian bezaiñbeste besarkatũ gaiza dũtiala eginen, herak Ekhia egin 140etan lũrra beno handiago dena, manhatũ dereiola zer orenetan barnen 12 milion lekoa egin letzan ta diala izar batzũer zothũka elitian ta eztiradiala mendia beno zorthũkatzen(ago). Manhũ ere diala egin zombaiti ibil laitian ta oren batetan barnen bide gehiago egiten diela eziez zaldũn batek ezpeitiro egin 1726 Urthetan. Erran liro, arren, gizoner egingei dienak, dena perestũ bizi ditian ta lotsarik eztũkiela sekũlan.

BEREZITA XXXVI

Ausartziaz

Ezta berdhüderik ausartziak beziñbeste gizonari ohore egiten dereionik, eragos güziak dütü garhaitzen, peligro güziak apartatzen, botxien bazterretan ta khaparren artian arrosak dütü biltzen; haren begien aitziniala sekülan oldekiak eztirade agertzen. Zorthü honak dü bethi lagün, bere ürrhatsetan bihotztoitzen dütianak, bihotzian dian alporraz berze bizkaiak dütialarik azkartzen, lotsak eztereioke dremendena ikhara emaiten. Halako gizona ezta aharrazole inhur eztialakoz irainden, ezta lotsa irain ezen.

Ausartze, egiazkoa eztoa peligro buskara, bena hartara behar badü doa ahün bizi balütü bezala laister elhestan, khüto arrapostian pairakor, meskabietan ekanpetsu. Arima dü tieso, deuserek zothüka eliroana. Zer nahi gaiztokeriak eztü lotsatzen, erri mehatxier hamar ezpadak ezterioe ürrhats bat gibelerat eraginen; Zühürki bethi da mintzo thipiki dü gogomena erraiten, bihotztoiki ari da orotan, legia dü gidail, ogenga-

bia bizitzian, berze argirik eziez egiarena ta fama hona baizik begien aitzinian gidail.

Halako zen Papinian famatia, Carracalla Enberadoriak manhü egin zereioanian züzent lei-zoan Senataren eretzian, Geta bere anaiaren erhaile izan zena, arrapostü egin zereion neke-zago zela legautse züzentzi eziez haren egitia; bazakian khostaren zereiola egiak, büria, Printze barbaroak mutzerazi zereioana.

Orozbat Aristidak, Denys Siciliako erregiak galthatü zereionian alhabetarik bata erregiña-gei: thipilki erran zereioan, nahiago lükiala ilhe-rrian, eziez tirano baten ohian ikhusi bere alha-ba. Ta harek bere ahizpekila egia soberana pakatü, berzek ükhen eletzen, tiranoak hilerazi zütian.

Halako gizonak izairiak dütü egiten bena haurzarotik ere arima zereitze azkartzen. Indietan (ümen) da herri bat non arranoak beno hantzez, belatxak handiago beitirade ta mantsotzen diradianak, hetan gaiñen haurrak konkaitz dütie ezarten ta arimalak hegalt-eraziten, dütie lehen aldian marrakaz daude haurrak, geroztik berak dirade arimaler jauzten ta odeietara igan-erazi-

ten, hala peligro güzietara berak dirade atrebitzen.

Khostüma haurretan da izaira bigerrena, hantik dirade gertzen aita amek nahi dütienua. Errumanek zütien berenak basa arimalen eretzian jarten, lehoner ta elefanter hüillent-eraziten hollizietan, gizonekila ziradianian güdatzen ezpadakariak ere ziradianian algarreki jardasten, ikhus lezen lürra arimalen ta gizonen odolaz estalirik, itxasoala ere gazterik zütian eroaiten herioari akostüma laitian; hartakoz ere ordüz gerletarat. Tarquinius erregiaren semiak bere hamalaurkerren urthian erho zian etsai bat. Scipioek hamazazpigerrenian etsaien artetik ideki zian bere aita. Probus bizarra jin beno lehen, zen tribun harmadetan. Alboiñek duelian erho zialakoz Thorismond Gepiden erregiaren semia, aitzak zian mithilan mahaiñetik khentü ta berian jarrerazi.

Bada uste dienik estudioak bihotza diala mar-dotzen. Bai hartara enjogi lizatekiana gerlako ofizioan jakintü behar lükianak; bena net behardün da aitoren semiari jakintze zerbaitetara heltü nahi denari, dian Alexandre ta Coesar izigarri

Jakintsü ziradian, etzen Errumako harmadetan kapitaiñik halako etziradianik. Lesdigieres Kone-tablia, Catinat marexala abokatü ziradian. Estü-dioak dü gerlako laztarzüna ezitzen, ezkonde zühürrak emaiten, gerthaldi honik erakhusten, mihia zorrozten, elhestan egikoia emaiten ta fama hona arrimatzen.

Irakhurtü eztianak, nekez dako ohoriarren egiazko eginbidia. Han dü ikhusten nolako gerlako ausartzia ta legiak, hanko langaitzak, obra ederren lankheia; meskabier nola behar dian bihurtü, aberastarzünak mesprexatü ta herioareki oroitü. Jakin ere, herriaren ta erregiaren zerbützüko hiltzia dela herio ohoretsuena.

Aristota pagan izanik ere zioan ausartzia zela zelütik jiten, hantik zion gogomena Izairiaren dohaiña etzela, berdhüde bekhanta delakoz. Platonek eskolan zer erraiten zazpi gaiza ziradiala mündian, gizona apaltzen zütienak:

1. megopiaren arhintarzünak.
2. khorpitzaren meskabiak.
3. khanbiakor delakoz bere borhondadietan.
4. bere obretan haiñ aizaldar non hil denian abaiñak beno azkarrago ezpeitirade.

5. zorthu hona beiraren pare diala, honki xahü ageri denian hausten dena.

6. zühürtarzüna zereiolakoz zahartarzünian ta okher zereion tenporaz jiten.

7. ta akarraba ederrik berant dütianian egin, auherki dütiala bederakatü jiten zereioanian herioa.

Paganek berek zien sinhestia zerütik ziela ausartzia, hargatik uste zian Alexandrek Jinkoaren odoletik zela jalki, Pyrrhusek ere zian ber erhokeria ta batak ta berziak harmadetan sinheste hori jarriak: etzen soldadorik uste etzianik Jinko baten esküpetan ari zela, hantik ausartia- ren, ikhusi dütügün senthagaillak.

Bena halako elhe zaharrik eztügü, orai, gure artian; zakian jendiak, ordian, bere izaitiaren flakezia ta gezürrez ahalena zien estaltzen. Dakigü, orai gük, gizon baizik ezkiradiala, gerlan ta bizitzepen güzian ausarte egiazkoa, konzentziaren xüxengoan dagoela ta hartarik baztertzen dena gizon apürra dela.

BEREZITA XXXVII

Ahalkiaz

Gizonaren griñetarik ezta batere ahalkia bezaiñ arrazotsürik, delakoz desohoriaren beldürra; badaki zer den egingei edo ez. Laido dena edo eztena eder edo itsusi ta zer den konbeni megopiaren ta arrazoari. Abantailla handia dü bereki dialakoz sortzepena, diala ohoretik ta ahalke egiten dereikien gaizak gaizto diradiala gizonen eretzian. Ohoria delakoz Izairiaren dohaiña, gaitzetik da gibeltzen ta honkiala hüillentzen gogomenetan, hitzetan ta obretan zerbait okherrik zereikianian ezkapi, ohoria beste althera mintza laiteke haren begien khinper ari baginande zerbaitetan ezi famaren amorioa da haiñ izigarri non ezpeita arima ederretan baizik sartzen ta han delarik Jinkotziaren garretik tximista baliz bezala beitü gizona argitzen.

Famaz jende güzia da haiñ khoi non etare lakikinak, elirokiala nola nahi küpera, gaizkia beitü eginen amoregatik harez mintza dadin jendia, ustez hilik bezala bizitzia dagoela deuserrez-

goan; hantik fama hona dianak handiago nahiz, beraz ahalke da, egun oroz zerbait ezpadü egin heda litzirokiana bazterretarat; orozbat uste badü zerbaitek ogen dereiola egin gogoak azotatzan dereio arima, memetoan odola igaiten büriala ta begithartian gorritzen bihotzeko plagak ere hontzen, üdüri haradrano diala bere odola urthikitzen.

Zorthü hona dü egiazki gizn perestiak dianian ohoria haiñ minbera ezi ahalke beagiak demonioari dohaiñ eder bat da ahalkeriarena. Behin haren naza hautse dianian jarraikiz gaiztokeria güzien ühaiztia bezala doalako.

Ahalkia, gizonetan beno handiago da emaztetan, hitz dremendenak direielako berdühüdia aseratzan, hargatik ere hen berdühüdia da ohilago hen beharrak ere maniago, dielako bihotza erbalago. Gizonetan aldiz püntü gilikorra da. Sorzpepena, deusetarik zerbaitetararat jin denak odol nobletik sorthü dela lüke nahi fama. Ahalkez lehert'laiteke uste balü jende güziak lakikila nontik den jalkitü, dena ardüregi dakiana, behar beno handios izan nahiz, ikhert-erazi dü gorderik zagoana; ta nor zütien aita handiak jakin-eraz-

ten, aipatüren etzena berak ahatze ezpalütü nahi ziabestü; mündiak daki nola diradian. Kargüdan batzü mereximentia egiteko hartan ezte-la sarthü, daki ere sortzepena ezte-la hartan sartzen ta izarrak edo aiziak beno eztagoela gure potherian.

Bena berdhüdiak dianian gizona goratü sortzepenak eliro apal-erazi: Poros, Indietako erregia bizar-egile baten seme, Bradila esklabon printzea inkhatz-egile batena, Artagoras Sikiniako dükia khoziner batena, Agathocles Siciliako erregia bortha-zaiñ baten semia. Primisaus, laborantzatik printzetürrik begiratzen zütien bere hatü zaharrak ta ahatz elezan nor zen ohi, ardü-ra maneaten zütian; Villegesira Arkoepezküpiak inhurek düdarik etzian organ-egile baten semia zela, bere gaiza güzietan arrotta zian pintr-eraziten nontik zen ahatz elezan.

Bada hanitz jende beren izen propia hil-erazi nahiz berzerik hartzen dütienak apalkeria dena; zereneta izena desohore ezpaita ta izen arrapatia beita, halako delakoz ohoiñkeria ta berze baten soñekoa jaunstan, uste beitie enganatü-

ren diela mündia, bena astoa errelikaz kargatia bezala dabilta, faltsü moneda egiten eri dirade.

Bada ere zonbait, beren bizioetzaz ahalke diradianik, hetarik dirade akhinak, gezürtiak, traidoriak, faltsiak, nastalariak, ohoiñak ta eza-gütze gabiak, diradianian halako ezagütiak; bena sobera lan dükielakoz fama hobiago baten lankheian, beren aitüretan daude ta gorridüra apür batez dirade kito, dütieno barneko zorrak inharrausten.

Ahalkia galdü dianak eztü deusere osorik hautse dü obra honen moldezkia, bide xüxena dena; halako gizonari honki zekeio alanbrezki-belharra, nekez gorritzen dena; igel beltzaren begiak, eskü arrapazaliak, sagiaren zankhoak. Lagün dütüke bizio güziak lükien krokodilioa zal-düntzat.

Haurzarotik da ahalkegabia sortzen, aita amek igaraiten dereitzen bizio txipiak dirade hekila handitzen. Platon filosofoak dio holako haurrak milatan axeriak ta otsoak beno nekeza-go diradiala mantsotzen. hantik dirade jalkiten bidütsiak mündüko desohoria diradianak ta deitzen dütügünak ahalke bagiak.

BEREZITA XXXVIII

Hontarzünaz

Zertakoz gizona hontarzünaz ezten betherik oarkera da megopia gaiñtzen diana; ezi arimal güzietan batere ezta zorthia haiñ txar dianik eziez gizonak ta ahazten badü hontarzüna ükhen direioan berdhüde hoberena zer dateke? Ta zer dateke gizona berze gizonarentzat dianian bere bihotza gogortzen?

Norat nahi ützül bedi, begien aitzinian düke Hantzia, ürrhats güzietan dü bathüren bere bani-dadiaren apalgia. So beza gaiñerat, hantik jiten zereiona airiak daki bizi-eraziten dianak, dereio-la indarrak egünkal muzten. Behera soegiten badü, lürra dü ikhusiren hazkürria dereiona emaiten ta khorpitzta hirotüren dereiona, bizitzia dereionak herioa dereio emanen. Jatia, edatia, loa ta pausia egünkal hartzen dütialarik, güziak doatza haren desereustetara bere barnera aldiz so egiten badü, dela min güzietara enjogi, arimal güzietarik behardün dela ta hen zokhorria ezpa-lü, hotzez hil laitekiala dü ikhusten.

Alabadere mündüko gaitz güzietarik gizonarenak dirade sordeitzenak, harek dü gerla berari jarraikiz egiten itxasoko meskabiak obratzen, harek hiriak eta etxeak erratzen harek aberastarzünak pikarraitzen, printziak eskeletzen, jendiak ahalketzen, harek dü estirak ezakitü arimaren jalki-eraziteko, haiñbeste borthatarik nola plaga egiten beitereio khorpitzari. Azkenekoz zer eliro giznak egin gizonaren? Lürrian infernia litziario jar potere bat ezpaliz zelian, haren gaiztotzen beno azkarrago dena.

Jinkoak, arren, zelütik lürriat dü hontarzüna igorri jendiaren zokhorrigi, bata berziari zor dügünetan hantik dirade arima ederrak honki egile berzeren minari diradianak dolü-egile. Jende perestiaren zokhorri zaharrean, zurzaren ürgaitz ta behardüner emaile, eskelen aita izaiteko.

Ber denboran ikhusten dügü bihotz franko ükhüdia bezaiñ gogorrik, berzeren sofrantxer bethi begiak idor dütienik ta mündüko dolore güziei ta marraker gor direnik, hontarzünaren itzala ere ezagützen eztienik, basa-gizonen pare Khiristianen etsai sorthürik, haren aragitik jan

lirioie, lehen eziez eskia heda belitzerioie. Borreoen kastatik jalkirik, odolian, süian ta meskabü jarrigarrienetan baizik eztirade laket. Izairiak dereie eman, Rhinzerosaren adarra, hartzaren aztaparra, lehonaren ahoa, tigroaren hagüiñak zathizka ta jan dezen, gizonek; basa arimalien arima die ta hanitzez basago dirade ehünetan nahi lükielakoz ikhusi zokhorri faltaz ehün gizon ber egünian hiltzen.

Halako bihotzak gizontsü izairian dirade, arima ederrer harrigarri, hen hontarzünik ükha eliroke aita ametarik diradiala sorthü. Lege zaharrak zian hil egiten, arimal biziari khent elakion bizkai bat ta hontarzüna arimalentzat zian manhatzen. Athenaseko akadoiak hil erazi zian haiñbat zialakoz belier begiak ziskatzen, ta plazergei ütsütü zütianian hegaltaz igorraiten. Hantik akadoitü zen bihotza zükiela kobart ta odolgarri, txorien krüdel zena, gizoner zatekiala Khartaginesek aizo botzaz kondena-erazi zien gizon bat mantsoitü zialakz lehon bat zioelarik basa arimalekila akoiñta zianak, gizonaren hontarzüna ziala galdüren.

Nere üduriala hontarzün gütiago zien akadoiek eziez lehonaren bürüzagiak, ezi bihotza amoriotsü ükhen ezpalü, arimala etzian makhila khaldüz mantsotüren. Probak daude athezka gizon bihoztoienak diradiala hontarzün gehiago ükhen dienak, Marcellusek zioan Sirakusa güzia garretan ikhusi zianian, aski nigar nahi lükiala sü garren hiltzeko. Titusek ere ikhusi zianian Jerusalem hilez betherik, nigarra begian zioan etzela hori beraren obra bena bai zeliarena. Gionak gizonari dian potheria ezta Izairiaren adran direlakoz gizon güziak ber khastatik ta hen artian berze bainatelatza ezta balakari eztia aldiz da loegile ta azaliak dü sügia iratzartzen. Ber, banaitia dago manha latzian ta manhü eztian. Batak dü bihotza deitzen, berziak aldiz ohiltzen hontarzünak aldiz estekatzen.

Bada jende itxasoari pare diradianak; bere izairiaz ezta gazi Ekhiak lürretik hürüpatzen dütian baporrak ixurten dereitzonetzaz dereio gaiña gazitzen, ta dian kolore berdian emaiten. Orozbat jende latz, kanpotik ageri diradianak barnetik dirade ezti ta botz gogorak ardüra bihotz hona salhatzen.

Nausi ona logale denian, maiñatak dirade beillari hontarzünak ere alde orotarik bere soegiliak dütü bethi. Bi bihotz dütü aitak bere aurrhidentzat, amarena da maiñantetako ta biak adiskidentzat güzier bere gradoetan dereitze hontarzüna erakhusten; halako zen gure aita lehenen bizipena, maiñateki bizi ziradian bren parekila bezala, Nork erran liro lehen hamalaur kardinalak. Sylüestre Aita Santiak egin zütiala Errumako hamalaur kharriketari lokatürik prauen errekeitzeko zaudiala, geroztik dirade, haiñ handitü, ta batean hen poteria norat nahi hedatü.

Hontarzün dianak bihoa hirian ta bürgian, etxez etxe, han dü edirenen franko no honki egiatik koka. Jende zaharrak lastoan hatü txarrez estalirik. Eriak, zokhorri batere gaberik. han dütü ahalkorrek edirenen nekeziaz haiñ flakatürik non beren eskelegoaren aipatzeko falta beitzereitze hitzak. Thürkek beren honen detxema die prauer emaiten. Bada hetan beren khostüz bidezalenzat üthürriak egin dütienik, behardüner doatza aitzina ta kharidadia die haiñ maite non kabale-tadrano die hedatzen. Ezta hon hirietan horik hazteritsü, txankü zahar edo mankhatürik ta

nausi gaberik, borthakal bere bizi doia ühen
eztienik. O! Khiristian giradiener zer gerthaldia
dereikien emaiten, eztiradienek? Dieno hek haiñ-
beste hontarzün probatzen nol agük gütik beitü-
gü erakhusten.

BEREZITA XXXIX

Ametsetaz

Aspaldian ehortzirik dago, lehenik ametsak gezürraren aizo hüillenenak ziradiala erranziana. Alabadere, Makrobek hetan sinheste zianak, bost herrokatan dütü jarri. Lehenaz dio, gaiza helgeiak dütiela salhatzen, hau ükha eztaitekeana, Josefen kondaira egia bada (bere ametsetarik amets-egile izen ükhen ziana): egia haren probantza dago Karferian zagoelarik bere bi lagünen ametsetan bata zatekiala, herio ahalkegarriaren seiñale, berzia aldiz bere autakina ohorezkoa, zütianian azaldü. Egia bietan gerthü zena. Geroztik ere Pharaonen ametsaren azaldia, Egipta zazpi urtheren soiltazüna zianian, erabaki. Danielek ber gaiza dereikü eskentzen, orozbat Jusef ama bereginaren senharraren ametsetik, errege herodaren arakeietik jesusen salbatzeko, egiptara zianian eraman; ta berze ametsaz errege haren herrioaren landan hirur urtheren bürian Palestinara berriz ützüli zenian.

Jakilegoa hek daude *ordeiñu zaharrian* ta *berrian*, berme hoberik eztago mündian.

Homerek ere Lürreko megopia güzia zianak dereikü Nestorren ametsaz erraiten Erregerenentan fidantxa dio behar dügüla hari, hen zorthü honez, edo zorthü gaitzaz mintzo diradianian, erran nahi zian Errege Agamemnonenetzaz.

Temistokla Atenakoarenak lekhü düke ere heben. Persiarat abiatürük hanko Erregiak zian ezin honkiago agurtü, gobernadoria bat ere zerioan Frigian itxasoaren bazterrian eman. Bena Khorteko isterbegiek hilerazi behar ziela erabakirik, gizon erhaile zonbait aitzina zeroien igorri. Ja bidetan zen Temistokla, lehen gaian zagoelarik lo ohian, amets egin zian Theleslione-ko hiritik igaraiten bazen, herioak faltarik etze-reioala eginen, hartan iratzarri zen bezain sarri ta nontik zükian hiria(z) kanpo berze bide bat, billenkitü zenian, jarraikirik bideskak herioari zen ezkapi; bena erhailek jakinik igaran zela, laister haren ondoan ziradian jarri. Uhaitz bat igaraiten zialarik, haren hatiak huriala erori(ri)k odir-eraziteko mainatak hedatü zütien sargetan, gaia ja zen t argizagia garbi Temistokla bere mainateki-

la lürrian jarririk, argiaren aidürü zegoan. Erhai-
lek, ustian ohatürrik zagoela, bere kezaldian,
xüxen hartara ziradian abiatü. Bena norbaitek,
hen heltzia ikhusirik eta *harmetara!* zian oihü
egin, jende güzia laister mandüler hetara, zütien
hatzaman güziak ta Temistoklak breki eraman.
halako gerthaldiak üsü dirade.

Dügün gurenetarik zonbait bederaka. Luis
gaztiak, Frntziako Errege zenak, bere emazia
Felipe Augustez erditü zen gaian amets zian
egin, besoetan zialarik haurra, Printze güzier
ziala eskentzen ta egoisten zian odoletik berak
edanik, edan-eraziten zereiela. Hantik, igerme-
nak odol-ühaizta handirik izanen zela, egiazki
gerthü zena; ezi, gerla Printze harek, bere den-
boran, zian egin handirik.

Bi prima handi ziradian, Margarita ta Ana,
bata Borgoiñako, berzia aldiz Britainako duke-
sak; Charles VII, frantziako Erregia zen hetarik
batarekila izkontgei, hitzak ere lehenari emanik,
Printzesa Amboiseko palazioan zagoan ezteien
adinaren haidürü; bena akadoitü izn zen abantai-
lla handiagoa Britainako dukesaren Erregiña-
tzian zatekiala. Khanbiamentü harez Borgoina-

koak deuserere etzakian. Egüntxe baten goizian bere andre-aunekila zabilalarik teristeki paseiün, baratzian hetarik bati galtho zereioan egin, zertakoz zen haiñ teriste bihotzian ageri? Printzesak arrapostü zereioan erran, gai gaitz bat ziala igaran, ta geroztik haren bihotza beltzairaz betherik zagoela, loan gogatürük Margarita bat eman., zireiela baratze batetan begiratze-ra ta errekeitü hartan zagoelarik asto bat hara jin zela; haren akhasatü nahiz izigarri eskarnio ükhan ziala — azkenekoz jan zereiola lilia; kondaira hori egiten ziano zer zatekian hantik, inhur etzen düdan: alabadere, heltü zen llabürzki, Anak ziala Margaita deslanthatü ta frantziako Erregiña zela gerthü.

Clovis frantziako errege Khiristian lehena Türenjeko Erregeren emaztiareki izkoitürük zian fedastatü; zialarik Erregiñak erabaki lehen gaian algarreki etziradiala etzanen. gai hartan zian Erregek amets egin, zointan ikhusi ziala hirur saldo animal, batian lehon ta Likorna, berzian hartz ta otso arrapüzaliak ta hirurgerrenian txakhür athe bat, bata berziari ausikiz ari ziradianak. Ametsez zereioan Erregiñak galthatü Bazinak

zereioan azaltü, hori nahi zela erran beren ondo-
koen kondaira: lehenak ziratekiala balios, bige-
rrenak jende apürrak ta hirurgerrrenak bren aha-
rretzaz deuserestüren ziradiala. Hala ere gerthü
zena; balizateke gerthaldi berzerik, bena berezi-
ta honek dü franko dütienetarik amets egiazko-
en doiala.

BEREZITA XXXX

Ezkerreko haurretaz edo bastartetzaz

Zertakoz diradian hñme bastardak egiazkoak beno azkarrago da galthoa? Arrapostia aldiz izkontze bagetan (ümen) diradialakoz haurrak eginbidiaz ardüra nekez eginak, nekezia hartarik diradiala flakü sortzen, dioe. Berziak alsiz gaiza ebatsien pare, bihotzaren ta arimaren ta khorpitzaren indar güzien diradialakoz obrak. Zaintsüago diradiala sortzen. Den gaiza faltsiek edo Egia, berzeren akadoiala nago ta berze batek dioan bezala diot, suerte bateretatik eztüdalakoz Jinko Jaunari esker, hartan axolagaberik nizala egonen.

Ber arrazoak bastartek, aize apür bat haboro dielakoz eziez leg-aurretzek behar dereiegü intsens apur bat heben eman, diogülarik kasta hartarik zen Romulus Errumaren ondekidarra, Theodorik Ostrogoten Italian errege izan zena, Gunderik Vandalien erregia, Artaxerces Parthen erresuma Persatara ekharri ziana. Clotaire bige-

rrena Fredegondaren semia bena ez Chilperice-
na Gontranek Orleanseko erregiak, zioana. Char-
les Martel zen ere ber kastatik eta ez errege iza-
nik ere erregen bürüzagi izan zena Guillaume
Normandiako dükia Enlgeterran erregetü zena.
Dunoiseko dükia, Frantziak bere handitarzüna
zor dereioana.

Kondairietan gütik dirade gizon handiagorik
batzen diradianak, ziradian ere haboroenak erre-
getsü odoletik jalki, salbü Artaxerces, lehenata-
rik bata. Ezi harez Persako kondairak dio, Panas-
chus larru-paintzale eskele batek, zerbait izar-
tetzaz zakialakoz gaiza jingeietan, Samnus eza-
gützen etzian gizon bat bere bortharen eretzian
ikhusirik igaraiten erran ziala Persiako errege
baten aita zatekiala.

Samnus jin zen hostatü hartzera Panalscaren
etxera, elhestan ari zirelarik erran zereioan, larrü
apaintzaliak dolü zereioala haurrik etzialakoz.
Berziak nahi bazian emaztiareki ützi etzatera
hitz eman zereion, bat eginen zereiola; topatürik
heltü zen hantik seme bat izen Artaxerzes ükhen
ziana. Sortzepenaz zen Errege hau larrüzaliaren
seme legen arauiala, bena egiazki soldado baten

bastart hantik gerletan langile handia, zian, arren, harek berzek bezala bere aitaren odoletik zerbait. Egia bada refraua: «haurrak diradiala beren aitetarik ezpala dena egürretik»: legiak eztereienian hazkürriak baizik otorgatü, eztü ogenik diradialakoz bastart haboroenak haiñ gaizto gertzen nun aitari beitrade desohore ta die izenari eskernio, amorio ere gehiago, direlakoz halakoak akadoiki püta hümiak deitzen, izen ahalkegarria dena. Beren sortzepena okherraz dakigü eztiradela berme; bena berdhüdiatz estal beze thona, ez errege erran dügünen arauiala, bena bai inor bere bürübidiaren doiala.

Diot aitoren semiaren bastardak ahatz eztiararik sekülan nor zian aita ta zer zor dian haren odolari da bethi ohar. Apalagoak aldiz, aita gizon perestia bazian, perestiago izan nahiaz den, egünez ta gaiez egarrian. Hala bata ta berzia jendiak dütü auspatüren behr bezalakoek ere beren herrokan jarreraziren eta dielakoz kastaz ohorez izigarri khei hala beren mereximentien doiala franko hartürrik die ükhenen.

Zertakoz halako haurrak, lealak beno bizkorrago ta azkarrago diranian, da galthoa? Diradialakoz legiari ebatsirik, da arrazo hobena, llabürrena, zeren diradian haboroenak aizetsü ta ürgüllütsü da bigerren galthoa? Erran eztereitzen nontik diradian gerthü beren sortzepena dü hanitzi bardintzen dielakoz, dirade lerdentzen, da arrapostia. Dakie Romulus Errumen lehen erregia hen kastatik zela Clotaire bigerrena Fredegondaren semia, bean ez Chilpericena Gundarik Wandalen erregia. Artaxerxes parthen erresuma Persareneki jüntatü ziana. Artus ere Engleterrako errege, hetarik zela dakie bastartü.

Gure bazterretan aldiz Theodobert Metzeko erregia ikhara erazi ziana Italia güzia. Karles Martel (ümen) ber khastatik, Guillaume Normandiako dükia, Engleterrako errege zena, Dunoiseko kondia Frantziak zor dereioana bere handitarzuna.

Kondaira gatik dirade Artaxerxes beno gizon handiagorik Persako kondairak soldado baten seme zela dio, alabadere hartara jalki errege famatietarik bata; bena zonbat bastart mündian

*aita hanitz ükhenik güzien desohore gerthü dire-
netarik.*